Las devoluciones de los Impuestos Especiales de Fabricación serán efectuadas por la Administración en la que hubieran sido ingresadas las cuotas cuya devolución se solicita.

No obstante, en los casos en que no sea posible determinar en que Administración fueron ingresadas las cuotas, la devolución

lurraldeko Administrazioak itzuli beharko ditu. Euskadin dauden establezimenduak kontrolatzea eta horiei baimena ematea, araubidea edozein dela ere, lurralde-eskumena duten aldundien eginkizuna izango da. Dena dela, aurretik jakinarazpena egin beharko zaie Estatuko Administrazioari eta Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari.

Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia foru-aldundiek eskatuko dute, garraiobideak euskal lurraldean matrikulatzen baldin badira behin betiko. Halaber, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen tasen % 10 bitartean handi dezakete zerga-tasa lurralde historikoetako erakunde eskudunek.

Matrikulazioa egiteko, gaiari buruz indarrean dagoen legeriak ezarritako irizpideak bete beharko dira. Zehazki, pertsona fisikoek ohiko bizilekua duten probintzian matrikulatuko dute garraiobidea.

4.k. Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zerga

Ekonomia Ituneko 34. artikuluak dio itundutako zerga dela, eta Estatuak unean-unean ezarritako funtsezko eta formazko arauek arautuko dutela.

Aurrekoa bete beharrekoa izango bada ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek horien zerga-tasak ezar ditzakete, lurralde erkidean unean-unean indarrean dauden arauek ezarritako mugen barruan.

Nolanahi ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek aitorpenak eta sarrerak egiteko ereduak onetsi ahal izango dituzte, baina eredu horietan lurralde erkideko ereduetako datu berak jasoko dira, gutxienez; eta sarrerak egiteko epeak jarri ahal izango dituzte likidazio-aldi bakoitzerako, baina epe horiek ez dute alde handirik izango Estatuko Administrazioak ezartzen dituenekin.

se efectuará por la Administración correspondiente al territorio donde se genere el derecho a la devolución. El control de los establecimientos situados en el País Vasco, así como su autorización, en cualquiera de sus regímenes, será realizado por las respectivas Diputaciones Forales, no obstante lo cual será necesaria la previa comunicación a la Administración del Estado y a la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa.

Respecto al Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte se exigirá por las respectivas Diputaciones Forales, cuando los medios de transporte sean objeto de matriculación definitiva en territorio vasco, pudiendo las Instituciones competentes de los Territorios Históricos incrementar los tipos de gravamen hasta un máximo del 10% de los tipos establecidos en cada momento por el Estado.

La matriculación se efectuará conforme a los criterios establecidos por la normativa vigente sobre la materia. En particular, las personas físicas efectuarán la matriculación del medio de transporte en la provincia en que se encuentre su residencia habitual.

4.k. Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos

Este Impuesto es un tributo concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado (artículo 34).

No obstante lo anterior, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán establecer los tipos de gravamen del Impuesto dentro de los límites vigentes en cada momento en territorio común.

Así mismo, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán aprobar los modelos de declaración e ingreso, que contendrán al menos los mismos datos que los de territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

Foru-aldundi eskudunak ordainaraziko du Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zerga, kasu hauetan:

a) Zergaren eremu objektiboak barruan hartzen dituen ekoizkinen salmentak edo emateak, euskal lurraldean kokatutako txikizkako salmenta-establezimendu publikoetan egindakoak badira, salbu eta ekoizkinok lurralde horretatik kanpo jaso eta kontsumitzeko beharrezko instalazioak dituzten azken kontsumitzaileei egiten zaizkien horniketak. Alderantziz, foru-aldundiek ordainaraziko dute zerga, kanpotik ekarritako ekoizkinak Euskadiko lurraldean jaso eta kontsumitzeko beharrezko instalazioak dituzten azken kontsumitzaileei lurralde erkidetik egiten zaizkien horniketak direla-eta.

b) Zergaren eremu objektiboak barruan hartzen dituen ekoizkinen inportazioak eta Europar Batasunaren barruko eskuraketak, baldin eta inportatzaileak edo eskuratzaileak berak zuzenean kontsumitzen baditu ekoizkinok, bere kontsumorako establezimenduan, eta establezimendu hori Euskadiko lurraldean badago.

Kupoaren Batzorde Mistoak 2002ko martxoaren 6an hartutako erabakietan, lurralde historikoetako eta EAEko erakunde eskudunek adierazi zuten zerga horrek bildutako dirua ez dela aurrekontu-xedeetarako erabiliko, eta horren erabilpenak bete egon behar dituela Europar Batasuneko araubideak araututako printzipio hauek:

- Osasun-politiken edo ingurumena babesteko politiken helburuak betetzeko esparruan erabili behar da.

- Lurralde erkidean indarrean den gutxieneko zerga-tasa baino tasa handiagoa ezarriz gero, igotako kopuruak egokia eta proportzionala izan behar du lortu nahi diren helburuarekiko.

Corresponderá a las respectivas Diputaciones Forales la exacción del Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos en los siguientes casos:

a) Ventas o entregas de los productos comprendidos en el ámbito objetivo del Impuesto efectuadas en los establecimientos de venta al público al por menor situados en territorio vasco, con excepción de los suministros que se efectúen a consumidores finales que dispongan de las instalaciones necesarias para recibirlos y consumirlos fuera de dicho territorio. Correlativamente, corresponderá a las Diputaciones Forales la exacción del impuesto por los suministros que se efectúen desde territorio común a consumidores finales que dispongan de las instalaciones necesarias para recibirlos y consumirlos en el País Vasco.

b) Importaciones y adquisiciones intracomunitarias de los productos comprendidos en el ámbito objetivo del Impuesto, cuando se destinen directamente al consumo del importador o del adquirente en un establecimiento de consumo propio situado en el País Vasco.

Por otra parte, en los acuerdos alcanzados en la Comisión Mixta de Cupo de 6 de marzo de 2002, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos y la Comunidad Autónoma del País Vasco reconocen que este Impuesto es un tributo cuya recaudación queda afectada en su totalidad a fines de naturaleza distinta a la presupuestaria, y que debe cumplir para su adecuación al ordenamiento comunitario los principios siguientes:

- Debe integrarse en el marco de los objetivos de políticas de sanidad o de protección del medio ambiente.

- La fijación de tipos de gravamen por encima del mínimo vigente en territorio común debe ser adecuado y proporcional a la finalidad de los objetivos a conseguir.

Hori dela-eta, Administrazioek konpromisoa hartzen dute Zergak bildutako dirua osasun-gastuak finantzatzeko erabiltzeko. Alabaina, lurralde erkidean indarrean den gutxieneko zerga-tasatik gora ezarritako tasei dagokien zatiagatik bildutako dirua ingurumen-jarduerak finantzatzeko erabil daiteke.

Por ello, las Administraciones se comprometen a afectar en su totalidad los rendimientos que se deriven del Impuesto a la financiación de gastos sanitarios. Sin embargo, los recursos producidos por la parte de los tipos de gravamen que superen el mínimo vigente en territorio común, podrán dedicarse a financiar actuaciones medioambientales.

Gainerako zeharkako zergak arautzeko (35. artikulua), Estatuak unean-unean ezarrita dituen oinarrizko abiaburu, arau substantibo, zerga-egitate, salbuespen, sortzapen, oinarri, tasa, tarifa eta kenkariak aplikatuko dira.

En cuanto a los demás impuestos indirectos (artículo 35) se regirán por los mismos principios básicos, normas sustantivas, hechos imponibles, exenciones, devengos, bases, tipos, tarifas y deducciones que los establecidos en cada momento por el Estado.

4.l. Jokoaren gaineko Zergak

Jokoaren gaineko zergak itundutako zergak dira, eta araudi autonomoa aplikatu behar zaie, baimena Euskadin eman behar zaien kasuetan (36. artikulua). Estatuak unean-unean ezarrita duen arautegia aplikatuko da zerga-egitateari eta subjektu pasiboari dagokienez.

Lurraldearen arabera eskumena daukan foru-aldundiak ordainaraziko du Zori, Enbido eta Adur Jokoen gaineko Tasa, zerga-egitatea Euskadin egiten bada (37. artikulua).

Lurralde-eskumena duen foru-aldundiak ordainaraziko du Zozketa, Tonbola, Apustu eta Ausazko Konbinazioen gaineko Zerga Tasa, halako jokoak egiteko baimena Euskadin eman behar den kasuetan.

4.m. Tasak

Foru-aldundiei dagokie eska daitezkeen tasak ordainaraztea euren jabariko gune publikoen erabilera edo aprobetxamendu bereziagatik, zerbitzuak betetzeagatik eta zuzenbide publikoko araubidean foru-aldundiek eurek egiten dituzten jarduerengatik (38. artikulua).

4.l. Tributos sobre el Juego

Los tributos que recaen sobre el juego tienen el carácter de tributos concertados de normativa autónoma, cuando su autorización deba realizarse en el País Vasco (artículo 36). Se aplicará la misma normativa que la establecida en cada momento por el Estado en lo que se refiere al hecho imponible y sujeto pasivo.

En cuanto al punto de conexión para la exacción (artículo 37), la Tasa sobre los Juegos de Suerte, Envite o Azar corresponderá a la Diputación Foral competente por razón del territorio, cuando el hecho imponible se realice en el País Vasco.

La Tasa Fiscal sobre Rifas, Tómbolas, Apuestas y Combinaciones Aleatorias será exaccionada por la Diputación Foral competente por razón de territorio, cuando su autorización deba realizarse en el País Vasco.

4.m. Tasas

La competencia para la exacción de las tasas corresponderá a las Diputaciones Forales en cuanto sean exigibles por la utilización o aprovechamiento especial de su propio dominio público, por la prestación de servicios o la realización de actividades en régimen de Derecho público efectuadas por las mismas (artículo 38).

4.n. Toki Ogasunak

Derrigorrez ezarri beharreko hiru zergen (Ondasun higiezinen gaineko zerga, Ekonomia-jardueren gaineko zerga eta Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga) lotura-puntuak arautzen ditu Ekonomia Itunak.

Ondasun Higiezinen gaineko Zerga lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek emandako arauen bidez arautuko da (39. artikulua). Zerga horrek lurralde historikoetako landa-ondasun eta hiri-ondasunak zergapetuko ditu.

Ekonomia-jardueren gaineko zerga lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek emandako arauek arautuko dute (40. artikulua). Lurralde-irizpidea da udal- eta probintzia-kuoten lotura-puntua, eta probintzia bat baino gehiagotan jarduteko kuotena, berriz, subjektu pasiboaren ohiko bizilekua edo zerga-egoitza. Azken kuota hori dagokion Administrazioari ordainduta (foru-administrazioa edo orokorra), bi lurraldeetan jarduteko ahalmena izango du subjektu pasiboak.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek emandako arauen bidez arautuko da, zirkulazio-baimenean ageri den egoitza lurralde horretako udalerriren batekoa baldin bada (41. artikulua).

Lurralde historikoetan eskumena duten erakundeek toki-erakundeen gainerako zerga propioen eta prezio publikoen araubidea mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dute (42. artikulua), bakoitzak bere lurraldean; betiere, araubide erkideko tokiko zerga-sistemarentzako ezarritako egitura orokorra eta egitura horren printzipioak kontuan izanda eta Ekonomia Itunak araututako harmonizazio-arauak beteta.

Araubide erkidekoez gainera, zeharkako bestelako zerga-modurik ezin dela ezarri dio Ekonomia Itunak, baldin eta zerga-modu horien etekina Euskadiko lurraldetik kanpora

4.n. Impuestos Locales

En el Concierto se establecen los puntos de conexión de los tres impuestos de implantación obligatoria: Impuesto sobre Bienes Inmuebles, Impuesto sobre Actividades Económicas e Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.

El Impuesto sobre Bienes Inmuebles se regulará (artículo 39) por las normas que dicten las Instituciones competentes de los Territorios Históricos, y gravará los bienes de naturaleza rústica y urbana sitos en su respectivo Territorio Histórico.

El Impuesto sobre Actividades Económicas se regulará (artículo 40) por las normas que dicten las Instituciones competentes de los Territorios Históricos. El punto de conexión para la exacción en el caso de las cuotas municipales y provinciales es estrictamente territorial, mientras que en el caso de las cuotas que facultan para ejercer en más de una provincia es la residencia habitual o domicilio fiscal del sujeto pasivo. El pago de esta última cuota a la Administración que corresponda, común o foral, faculta para el ejercicio de la actividad en ambos territorios.

El Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica se regulará (artículo 41) por las normas que dicten las Instituciones competentes de los Territorios Históricos cuando el domicilio que conste en el permiso de circulación corresponda a un municipio situado en su territorio.

Respecto del resto de tributos locales y precios públicos, el Concierto Económico (artículo 42) reconoce la capacidad de los Territorios Históricos para mantener, establecer y regular, dentro de su territorio, el régimen tributario de otros tributos propios de la Haciendas Locales, atendiendo a la estructura general del sistema tributario local de régimen común y a los principios que la inspiran, respetando las normas de armonización previstas en el propio Concierto.

Así mismo, el Concierto previene del establecimiento de figuras impositivas de naturaleza indirecta distintas a las de régimen común, cuyo rendimiento pueda ser

beste batengan isla badaiteke edo harengan eragina izan badezake.

Ekonomia Itunaren II. kapituluak finantza-harremanak arautzen ditu, eta harreman horien printzipio orokorrez diharduela, arautzen du toki-erakundeen eremuan Estatuak une bakoitzean erabiltzen dituen finantza-tutoretzako ahalmenak Euskadiko erakunde eskudunei dagozkiela; hala ere, horrek ez du esan nahi, inola ere, Euskadiko toki-erakundeen autonomia araubide erkidea duten toki-erakundeena baino txikiagoa izango denik.

5. ESTATUAREN ETA EUSKADIREN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA

Ekonomia Itunaren 4. artikuluak lankidetza-printzipioa arautzen du, eta oinarrizko printzipiotzat hartzen du. Printzipio horrek, oro har, zehaztu egiten du Estatuak eta lurralde historikoek nola erabili behar dituzten zergak kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko eskumenak eta zerga-arauak ematekoak. Hain zuzen, 4. artikuluak honako hau dio:

- Lurralde historikoetako erakunde eskudunek Estatuko Administrazioari jakinaraziko dizkiote zergen arloko arauak egiteko proiektuak, arauok indarrean jarri baino nahikoa denbora lehenago. Estatuko Administrazioak, halaber, jakinarazpen bera egin behar die lurralde historikoetako erakundeoi.

- Nazioarteko akordioek Ekonomia Itun hau betetzeko orduan inolako eraginik baldin badute, akordio horietan Euskadiko erakundeen lankidetza ahalbidetzeko behar diren baliabideak jarriko ditu Estatuak.

- Estatuak eta lurralde historikoek, zergak kudeatu, ikuskatu eta biltze aldera eskumenez dagozkien zereginak betetzen dituzten bitartean, zerga horiek hobeto ordainarazteko beharrezkoak zaizkien datu eta aurrekari guztiak emango dizkiote elkarri, behar diren garaian eta eran.

objeto de traslado o repercusión fuera del territorio del País Vasco.

En todo caso, dentro de los principios generales del Capítulo II, de relaciones financieras, se establece que las facultades de tutela financiera que, en cada momento, desempeñe el Estado en materia de Entidades Locales, corresponderán a las Instituciones competentes del País Vasco, sin que ello pueda significar, en modo alguno, un nivel de autonomía de las Entidades locales vascas inferior al que tengan las de régimen común.

5. COORDINACIÓN Y COLABORACIÓN ENTRE EL ESTADO Y EL PAÍS VASCO

El Concierto Económico recoge en su artículo 4 el principio de colaboración como uno de sus principios inspiradores básicos. Este principio está referido genéricamente al ejercicio de las funciones que competen al Estado y a los Territorios Históricos en orden a la gestión, inspección y recaudación de sus tributos y, también, a la producción normativa. En concreto, en el artículo 4 se señala que:

- Las Instituciones competentes de los Territorios Históricos comunicarán a la Administración del Estado, con la debida antelación a su entrada en vigor, los proyectos de disposiciones normativas en materia tributaria. De igual modo, la Administración del Estado practicará idéntica comunicación a dichas Instituciones.

- El Estado arbitrará los mecanismos que permitan la colaboración de las Instituciones del País Vasco en los Acuerdos internacionales que incidan en la aplicación del presente Concierto Económico.

- El Estado y los Territorios Históricos, en el ejercicio de las funciones que les competen en orden a la gestión, inspección y recaudación de sus tributos, se facilitarán mutuamente, en tiempo y forma adecuados, cuantos datos y antecedentes estimen precisos para su mejor exacción.

- Hain justu, administrazio batak zein besteak:

  a) Beharrezkoa duten informazio guztia emango diote elkarri, datuak prozesatzeko zentroen bidez. Horretarako, behar duten komunikazioa jarriko dute abian. Urtero, zerga-mailako informatika-plan koordinatua egingo dute elkarrekin.

  b) Ikuskaritza-zerbitzuek hainbat plan egingo dituzte, helburu, arlo eta hautaketa-jardunbide koordinatu jakin batzuk batera ikuskatzeko. Gauza bera egingo dute, halaber, egoitza aldatu duten zergadunekin, zerga-gardentasunaren araubidepeko erakundeekin eta Sozietateen gaineko Zergan eragiketen guztizkoaren proportzioan zergak ordaindu behar dituzten sozietateekin.

Lankidetza handitu beharra dago, zenbait alderdiri erreparatuta. Espainian Zerga Administrazio bat baino gehiago egoteak ez dio nahitaez formari bakarrik eragiten, harmonizazio fiskalaren esparruan Europar Batasunean gertatzen ari diren prozesu batzuei ere bai; hau da, azterketa-, eztabaida- eta negoziazio-prozesuei. Arauak prestatzeko eta emateko ere, nahitaezkoa da lankidetza. Lankidetza, halaber, zergen kudeaketaren arlora hedatu eta egokitu behar da.

Lankidetza oinarrizko elementua da Administrazioen araugintza zergapetze-ahalmenen baitan egin dadin, zerga-sistema bakoitzak Administrazioei emandako ahalmenak aintzat hartuta; eta, betiere, zergen kudeaketak arazorik sor ez ditzan. Lankidetzaren bidez gainditu izan dira Estatuaren eta Euskadiren artean zerga-alorreko zenbait gaitan gertatutako auziak.

Hori horrela izanik, Kupoaren Batzorde Mistoak 1999ko uztailaren 14an egindako bileran erabaki zuen Administrazioek elkarri bidaliko dizkiotela foru-arauaren proiektuak,

- En particular, ambas Administraciones:

  a) Se facilitarán, a través de sus centros de proceso de datos, toda la información que precisen. A tal efecto, se establecerá la intercomunicación técnica necesaria y anualmente se elaborará un plan conjunto y coordinado de informática fiscal.

  b) Los servicios de inspección prepararán planes conjuntos de inspección sobre objetivos, sectores y procedimientos selectivos coordinados, así como sobre contribuyentes que hayan cambiado de domicilio, entidades en régimen de transparencia fiscal y sociedades sujetas a tributación en proporción al volumen de operaciones en el Impuesto sobre Sociedades.

La profundización en la colaboración ha de observarse necesariamente desde distintas perspectivas. La existencia de diferentes Administraciones tributarias en España ha de tener irremediablemente una repercusión no sólo formal sino, también, real en los procesos de análisis, debate y negociación que se están llevando a cabo en el seno de la Unión Europea en el ámbito de la armonización fiscal. También se hace necesaria la colaboración en el diseño y producción normativa. Colaboración que, igualmente, ha de extenderse y articularse en el campo de la gestión tributaria.

Éste es un elemento fundamental para asegurar una producción normativa respetuosa con la potestad tributaria de las diferentes Administraciones, basada en el reconocimiento de las capacidades propias de cada sistema tributario, y para evitar los problemas que puedan derivarse de la propia gestión. En este contexto debe situarse la superación de los contenciosos planteados entre el Estado y el País Vasco en diferentes materias.

En este sentido, la Comisión Mixta de Cupo de 14 de julio de 1999 acordó la remisión en plazos determinados de las Diputaciones Forales a la Dirección General de

lege-proiektuak eta eduki fiskaleko erregelamenduak, epe jakinetan; horrela, foru-aldundiek Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Lurralde Ogasunen Koordinaziorako Zuzendaritza Nagusira bidaliko dituzte proiektuok, eta Ogasuneko Estatu Idazkaritzak Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Sailari.

Coordinación con las Haciendas Territoriales del Ministerio de Economía y Hacienda y, a su vez, de la Secretaría de Estado de Hacienda al Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco, de los Proyectos de Norma Foral y de los Proyectos de Ley, así como de normas reglamentarias, de contenido fiscal.

Ondoren, Estatuko Administrazioaren eta foru-ogasunen arteko egoera gatazkatsuari buruz sakonago hausnartu zen, eta egiaztatu zen beharrezkoa zela, Itunean ezarritako lankidetza-printzipioaren esparruan, lankidetzarako oinarriak ezartzea, honako hau lortze aldera: auziak konpontzeko auzibideetara jo behar ez izatea eta zergadunek segurtasun juridiko handiagoa ematea.

Posteriormente, se realizó una reflexión más profunda sobre la situación general de conflictividad existente entre la Administración del Estado y las Haciendas Forales, constatándose la necesidad de conseguir, en el marco del principio de colaboración recogido en el Concierto, unas bases de cooperación que encaucen los litigios hacia vías de solución distintas y previas de las judiciales, de forma que proporcionen mayor seguridad jurídica a los contribuyentes.

Zenbait arau auzitan jarri ziren baliabideen banaketa desegokia egin eta enpresa-lehia askea urratu zezaketelakoan. Hori ikusita, Administrazioek erabaki zuten beharrezkoa zela araugintzari buruzko akordioak lortzea, etorkizunean halako auzirik sor ez zitezen. Akordioek, noski, ez dute urratu behar ez Ekonomia Itunak lurralde historikoei aitortutako eskumenak, ezta Estatuaren berezko eskumenak ere.

Esta preocupación de las Administraciones por evitar la promulgación de normas que en algún caso concreto pudieran generar discrepancias sobre la posibilidad de distorsión de la libre competencia empresarial y la asignación de recursos, aconsejaba alcanzar acuerdos, que, sin perjuicio de la autonomía de las Instituciones competentes de los Territorios Históricos, recogida en el Concierto y de las competencias del Estado, eviten de manera efectiva los conflictos futuros entre Instituciones.

Horrenbestez, Kupoaren Batzorde Mistoak zenbait akordio lotu zituen 2000ko urtarrilaren 18an. Akordio horiek berretsi egin zuten Ekonomia Ituna indartzeko asmoa eta barne-esparruan zein nazioartean hura babesteko jarduerak egiteko konpromisoa.

Ello derivó en los acuerdos alcanzados en la Comisión Mixta de Cupo del 18 de enero de 2000. En ellos se reitera el apoyo al Concierto Económico y el compromiso a desarrollar cuantas actuaciones sean de su competencia para su mejor defensa en el ámbito interno como en el ámbito internacional.

Akordio horiek ikuspegi bikoitzarekin hartu ziren. Lehenik eta behin, errekurtsoetan inpugnatutako gaien azterketa xehea egin zen, adostasun-puntuak landu ostean, aurrerantzean auzirik gerta ez zitezen. Auzien zergatia aztertzeko premia nabarmena zen, Itunak araututako zerga-harmonizazioa desberdin interpretatu izana izan baitzen Administrazioek jarritako ia errekurtso guztien arrazoia.

Estos acuerdos se elaboraron desde una doble perspectiva. En primer lugar se realizó un análisis pormenorizado de las materias impugnadas en cada uno de los recursos interpuestos, con el fin de alcanzar puntos de encuentro que en el futuro eviten las posibles discrepancias. Este esfuerzo se justifica plenamente en razón de que la mayor parte de los recursos interpuestos por las distintas Administraciones se basa en una diferente interpretación de la

armonización fiscal regulada en el propio Concierto.

Bestalde, zenbait foru-zergaren araungintza zehatza egokitzea adostu zuten Administrazioek, eta, horrekin batera, atzera bota zituzten gai horien inguruan jarritako zenbait errekurtso. Errekurtso horietako batzuetan atzera egin zen, bai zenbait arauren indarraldia amaitu zelako —indarraldi-epea igarota edo gerora indargabetuta—, bai foru-arauak eta arau erkideak aldatu egin zirelako haiek eman eta Administrazioen arteko akordioak lortu bitartean.

Al margen de estos acuerdos, las Administraciones convienen, en segundo término, en adaptar determinada normativa tributaria foral y desistir de determinados recursos interpuestos por las mismas en esta materia. El desistimiento de estos recursos es consecuencia, entre otras razones, de la pérdida de vigencia de ciertas normas –bien por su carácter temporal o bien porque se haya producido su derogación posterior- y la evolución de las normativas común y foral desde su promulgación hasta este momento de los acuerdos.

2002ko Ekonomia Itun berriak aintzat hartu zituen lankidetza-printzipioaren inguruko alderdiak, eta, berariaz, III. kapitulu berri bat sortu zuen, Ekonomia Itunaren batzordeei eta Arbitraje Batzordeari buruzkoa.

El nuevo Concierto Económico de 2002 recoge esta sensibilidad, relacionada con el principio de colaboración, creando un nuevo Capítulo III, de las Comisiones y Junta Arbitral del Concierto Económico.

5.a. Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa

Lehen Kupoaren Batzorde Mistoa zena Ekonomia Itunaren Batzorde Misto izatera pasa da (61. artikulua), eta berriz zehaztu dira haren eginkizunak. Batzorde berria, aurreko Kupoaren Batzorde Mistoaren moduan, honela eratzen da: batetik, foru-aldundi bakoitzeko ordezkari bana eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, aldundietako ordezkarien kopuru berean; eta, bestetik, Estatuko Administrazioko ordezkariak, aurrekoen kopuru osoaren zenbateko berean. Batzordekideek aho batez hartu behar dituzte erabakiak.

Eginkizun hauek izango ditu Batzorde Mistoak:

a) Ekonomia Itunaren aldarazpenak erabakitzea.

b) Aurrekontu-egonkortasunaren arloko lankidetza eta koordinazioari buruzko konpromisoak erabakitzea.

c) Bosturteko bakoitzean kupoa ezartzeko metodologia erabakitzea.

5.a. Comisión Mixta del Concierto Económico

La anterior Comisión Mixta de Cupo pasa a denominarse Comisión Mixta del Concierto Económico (artículo 61), redefiniendo sus funciones. Esta nueva Comisión, al igual que la anterior, estará constituida, de una parte, por un representante de cada Diputación Foral y otros tantos del Gobierno Vasco, y de otra, por un número igual de representantes de la Administración del Estado. Sus acuerdos deberán adoptarse por unanimidad de todos sus miembros integrantes.

Las funciones que tiene atribuidas son las siguientes:

a) Acordar las modificaciones del Concierto Económico.

b) Acordar los compromisos de colaboración y coordinación en materia de estabilidad presupuestaria.

c) Acordar la metodología para el señalamiento del cupo en cada quinquenio.

d) Arbitraje Batzordeko kideen izendapena eta araubidea erabakitzea, baita Batzordearen jardunbideari, biltzeko deialdiei, bilerei eta erabakiak hartzeko araubideari dagokiena ere.

e) Zerga- eta finantza-gaiei buruz une bakoitzean hartu beharreko erabakiak hartzea, Itunean ezarritakoa behar bezala aplika eta gara dadin.

d) Acordar el nombramiento y régimen de los componentes de la Junta Arbitral, así como lo referente a su funcionamiento, convocatoria, reuniones y adopción de acuerdos.

e) Todos aquellos acuerdos que en materia tributaria y financiera resulten necesarios en cada momento para la correcta aplicación y desarrollo de lo previsto en el Concierto.

5.b. Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordea

1981. urteko Itunak (40. artikulua) Batzorde Koordinatzailea eratu beharra arautu zuen, eta Kupoaren Batzorde Mistoak 2000ko urtarrilaren 18an lortutako Akordioen ondorioz, Araugintza Ebaluatzeko Batzordea eratu zen.

Bestalde, Kupoaren Batzorde Mistoak, 1999ko uztailaren 14an egindako bileran, honako erabaki hauek hartu zituen, lankidetza-printzipioaren esparruan: foru-arauen proiektuak, lege-proiektuak eta eduki fiskaleko erregelamenduak Administrazioen artean trukatzea; eta, horrez gain, trukaketa horiek egiteko epeak zehaztu ziren.

Ekonomia Itun berriak bi batzordeak batu zituen, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzorde berria eratuta. Honako hauek osatuko dute Batzordea: Estatuko Administrazioaren lau ordezkarik, eta Autonomia Erkidegoaren beste lau ordezkarik (Eusko Jaurlaritzak izendatutakoak) lau horietatik hiru foru-aldundiek proposatuko dituzte, bakoitzak bana.

Eginkizun hauek izango ditu Batzordeak:

a) Zergen arloko arauak Ekonomia Itunari egokitzen zaizkion aztertzea, argitaratu aurretik.

Horrela, euren araugintza-proiektuak elkarri erakusten dizkiotenean, inork oharren bat egiten badu, Batzordean ordezkariak dituzten Erakunde eta Administrazioetako edozeinek Batzordearen bilerarako deialdia egin

5.b. Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa

El Concierto de 1981 estableció la creación (artículo 40) de la Comisión Coordinadora y los Acuerdos alcanzados en la Comisión Mixta de Cupo de 18 de enero de 2000 supusieron la formación de la Comisión de Evaluación Normativa.

Por otra parte, en la Comisión Mixta de Cupo de 14 de julio de 1999, en el marco del principio de colaboración, se acordó el intercambio entre Administraciones en plazos determinados de los Proyectos de Norma Foral y de los Proyectos de Ley, así como de normas reglamentarias, de contenido fiscal.

El nuevo Concierto Económico integra ambas comisiones, creando la nueva Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa. Ésta estará compuesta por cuatro representantes de la Administración del Estado y otros cuatro representantes de la Comunidad Autónoma designados por el Gobierno Vasco, tres de los cuales lo serán a propuesta de cada una de las respectivas Diputaciones Forales.

Esta Comisión tiene atribuidas las siguientes funciones:

a) Evaluar la adecuación de la normativa tributaria al Concierto Económico con carácter previo a su publicación.

Así, cuando en el intercambio de proyectos de disposiciones normativas se efectuasen observaciones, cualquiera de las Instituciones y Administraciones representadas podrá solicitar la reunión de esta Comisión para analizar la

ahal izango du, proposatutako araudia Itunarekin bat datorren aztertzeko, araua argitaratu baino lehen, desadostasunik balego akordioa lor dezaten.

b) Itunean aipatutako lotura-puntuen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Ebazpen-proposamenari buruz inork oharren bat egiten badu, araugintza Koordinatzeko eta Ebaluatzeko Batzordearen bilerarako deia egingo da berriz, eta batzorde horrek akordiorik lortzen ez badu, Arbitraje Batzordeari helaraziko zaio.

c) Egoki irizten diren azterlanak egitea araubide autonomikoa eta Estatuko marko fiskala zuzen uztartzeko, egituraren eta eginkizunen esparruan.

d) Administrazio eskudunei euren jardunak elkarri egokitzeko irizpideak, planak eta informatikako programak eskaintzea, eta lankidetzaren eta informazio-trukearen printzipioa benetan gauza dadin erabili behar diren tresnak, bitartekoak, prozedurak edo metodoak antolatu.

e) Ikuskapen-gaietan Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean sortutako auziak edo arazoak aztertzea, baita zergen ondoreetarako egindako balorazioen inguruko arazoak ere.

f) Txostenak egitea Ogasun Ministerioari, Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako ogasun-sailei eta Arbitraje Batzordeari, hala eskatuz gero.

g) Ekonomia Ituna aplikatzearekin eta betearaztearekin zerikusia duten beste eginkizun guztiak.

5.c. Arbitraje Batzordea

1981eko Itunean Arbitraje Batzordea eratu beharra arautu bazen ere, ez zen halakorik egin, baina Itun berriak Batzorde horren osaera, eginkizunak eta erabaki-eremua zehazten ditu, 65., 66. eta 67. artikuluetan.

adecuación de la normativa propuesta al Concierto y propiciar, con anterioridad a su publicación, un acuerdo sobre las discrepancias existentes en relación al contenido de la normativa tributaria.

b) Resolver las consultas que se planteen sobre la aplicación de los puntos de conexión contenidos en el Concierto. Caso de existir observaciones a las propuestas de resolución, se convocará la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa, que, de no llegar a un acuerdo, la trasladará a la Junta Arbitral.

c) Realizar los estudios que estimen procedentes para una adecuada articulación estructural y funcional del régimen autonómico con el marco fiscal estatal.

d) Facilitar a las Administraciones competentes criterios de actuación uniforme, planes y programas de informática y articular los instrumentos, medios, procedimientos o métodos para la materialización efectiva del principio de colaboración y del intercambio de información.

e) Analizar los supuestos o cuestiones que se hayan planteado en materia de inspección entre la Administración del Estado y las respectivas Diputaciones Forales, así como los problemas de valoración a efectos tributarios.

f) Emitir los informes que sean solicitados por el Ministerio de Hacienda, los distintos Departamentos de Hacienda del Gobierno Vasco y de las Diputaciones Forales y la Junta Arbitral.

g) Cualquier otra relacionada con la aplicación y ejecución del Concierto Económico.

5.c. Junta Arbitral

Tras la fallida Junta Arbitral prevista en el Concierto de 1981 el nuevo Concierto determina su nueva composición, funciones y acuerdos (artículos 65, 66 y 67).

Arbitraje Batzordea osatuko duten hiru kideak zenbait adituren artean hautatu dituzte; aditu horiek hamabost urte baino gehiagoko eskarmentua izango dute zergen edo ogasunaren arloan. Horien izendapena Ogasun Ministroak eta Herri Administrazio sailburuak formalizatuko dute; sei urterako izendatuko dira, eta epe hori amaitutakoan ezin izango dira berriro hautatu kargurako, egin duten aldia hiru urte baino laburragoa denean salbu.

Los tres integrantes de la Junta Arbitral serán designados entre expertos de reconocido prestigio con más de quince años de ejercicio profesional en materia tributaria o hacendística. Su nombramiento se formalizará por el Ministro de Hacienda y el Consejero de Hacienda y Administración Pública para un periodo de seis años, sin que a su conclusión puedan ser reelegidos en el cargo salvo que hubieren permanecido en éste por un periodo inferior a tres años.

Arbitraje Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

La Junta Arbitral tiene atribuidas las siguientes funciones:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo horien eta beste autonomia erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren auziak ebaztea, bai zerga itunduen lotura-puntuen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, Sozietateen gaineko Zerga edota Balio Erantsiaren gaineko Zerga administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean.

a) Resolver los conflictos que se planteen entre la Administración del Estado y las Diputaciones Forales o entre éstas y la Administración de cualquier otra Comunidad Autónoma, en relación con la aplicación de los puntos de conexión de los tributos concertados y la determinación de la proporción correspondiente a cada Administración en los supuestos de tributación conjunta por el Impuesto sobre Sociedades o por el Impuesto sobre el Valor Añadido.

b) Banako zerga harremanetako arazo zehatzetan Ekonomia Itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesatuen artean sor litezkeen auziak erabakitzea.

b) Conocer de los conflictos que surjan entre las Administraciones interesadas como consecuencia de la interpretación y aplicación del Concierto Económico a casos concretos concernientes a relaciones tributarias individuales.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

c) Resolver las discrepancias que puedan producirse respecto a la domiciliación de los contribuyentes.

Eskumen-gatazkarik sortzen bada, auziko Administrazioek interesatuei jakinaraziko diete; horrek eten egingo du preskipzio-epea, eta hortik aurrera Administrazio horiek ez dute inongo jarduerarik egingo. Gatazkak ebazteko prozedura arau bidez ezarriko da. Prozedura horretan, interesatuei entzun egingo zaie.

Cuando se suscite el conflicto de competencias, las Administraciones afectadas lo notificarán a los interesados, lo que determinará la interrupción de la prescripción y se abstendrán de cualquier actuación ulterior. Los conflictos serán resueltos por el procedimiento que reglamentariamente se establezca en el que se dará audiencia a los interesados.

Arbitraje Batzordeak indarreko zuzenbide-arauak betez ebatziko ditu espedienteetako auzi guztiak, exekuzio-formulak barne, auzi horiek gatazkako alderdiek edo interesatuek aurkeztu dituzten aintzat hartu gabe; eta ebazpenetan ekonomia-, arintasun- eta

La Junta Arbitral resolverá conforme a derecho, de acuerdo con los principios de economía, celeridad y eficacia todas las cuestiones que ofrezca el expediente, hayan sido o no planteadas por las partes o los interesados en el conflicto, incluidas las

eraginkortasun-printzipioei jarraituko die. Arbitraje Batzorde horrek hartutako erabakiak betearazpen-indarra badute ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoak baino ezingo dira jarri horien aurka, Auzitegi Goreneko jurisdikzio horretako salan.

fórmulas de ejecución. Sus acuerdos, sin perjuicio de su carácter ejecutivo, serán únicamente susceptibles de recurso en vía contencioso-administrativa ante la Sala correspondiente del Tribunal Supremo.

6. EUSKAL OGASUNAREN ANTOLAKETA ETA ERAKETA

6.a. Alderdi orokorrak

Autonomia Estatutuaren 40. artikuluak arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoak ogasun autonomo bat izango duela, bere eskumenak erabiltzeko eta finantzatzeko; horretarako, lurralde historioetako foru-aldundiei ahalmena ematen die dagozkien zergak ordainarazteko, kudeatzeko, kitatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko.

Horrela, bada, bi kontzeptu sortu ziren: Ogasun Orokorra eta Foru Ogasuna; biak berariaz jasota eta zehaztuta daude Lurralde Historikoen Legean (LHL). Bertan, Euskadiko Ogasun Orokorra, Autonomia Erkidegoko erakunde komunei dagokiena, eta Foru Ogasunak, lurralde historikoetako foru-organuei dagozkiena, bereizten dira. Euskal Autonomia Erkidegoan, foru-ogasunak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetakoak dira.

Beste erakunde-maila bat ere bada, udal-eremuko toki-ogasunek osatutakoa. Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoa den apirilaren 2ko 7/1985 Legeak arautzen ditu. Lege horri indarrean jarrita, urrats handia eman zen Konstituzioa oinarritzat hartuta Estatuak abiatu zuen erakunde-eraketan. Gerora, Toki Ogasunak arautzekoa den abenduaren 28ko 39/1988 Legeak osatu egin zuen hura. Jarraian, lurralde historikoek nork bere lurraldeko toki-ogasunaren xedapen arautzaileak onartu zituzten, eta erakundeen arteko harreman-eredu antolatua eta integratua osatu zen.

Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoa hiru mailatan egituratzen da:

a) Euskadiko Ogasun Orokorra.

6. ORGANIZACIÓN Y COMPOSICIÓN DE LA HACIENDA VASCA

6.a. Aspectos generales

El Estatuto de Autonomía establece (artículo 40) que para el adecuado ejercicio y financiación de sus competencias, el País Vasco dispondrá de su propia Hacienda Autónoma, otorgando a las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos la capacidad de exacción, gestión, liquidación, recaudación e inspección de los tributos concertados.

Se articulan de esta forma los conceptos de Hacienda General y Hacienda Foral, recogidos y delimitados perfectamente en la Ley de Territorios Históricos (LTH). En ella se distingue entre Hacienda General del País Vasco, correspondiente a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma, y Haciendas Forales, que se corresponden a los Órganos Forales de los Territorios Históricos. En el País Vasco, las Haciendas Forales son las de los Territorios Históricos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

En otro escalón institucional se encuentran las Haciendas Locales, entidades de ámbito municipal reguladas por la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local. Esta Ley supuso un paso importante en la configuración institucional abordada por el Estado a partir de la Constitución, completada posteriormente por la Ley 39/1988, de 28 de diciembre, Reguladora de las Haciendas Locales. Más tarde, los Territorios Históricos aprobaron las normas reguladoras de las Haciendas Locales de sus respectivos territorios, completando un modelo de relaciones institucionales estructurado e integrado.

Por tanto, la organización de la Comunidad Autónoma se estructura en tres niveles:

a) Hacienda General del País Vasco.

Autonomia Estatutuak, Ekonomia Itunak, Lurralde Historikoen Legeak eta, hein batean, irailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoak, Autonomia Elkarteak Finantzatzeari buruzkoak (LOFCA) aitortzen dizkiote eskumenak. Euskadiko Ogasun Orokorraren Printzipio Arautzaileen Legeak araututako erakundea da. Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen egiturari jarraitzen die; eta, ondorioz, Legebiltzarra eta Jaurlaritza ditu gobernu-organo, eta Legebiltzarrak aukeratzen du bertako lehendakaria.

b) Foru-ogasunak.

Ekonomia Itunak eta Lurralde Historikoen Legeak arautzen dituzte haien eskumenak. Lurralde historikoen egiturari jarraitzen die, eta gobernu-organo hauek ditu: Batzar Nagusiak, organo legegilea eta organo betearazlea kontrolatzeko eskumena dutena; eta Foru Aldundia, eta bertako Ahaldun Nagusia edo Presidentea, Batzar Nagusiek hautatua.

c) Toki Ogasunak

Ekonomia Itunak berak eta toki-ogasunak arautzeko foru-arauek ezarritakoari jarraiki arautzen dira. Udalen egiturari jarraitzen diote; hau da, udalbatzak izaten dituzten eta azken horiek hautatzen dute alkatea edo udalburua.

Txosten honek hiru mailako erakunde-banaketa horri jarraitzen dio, EAEko Ogasunaren azterketa egiteko, 3., 4. eta 5. kapituluan.

6.b. Erakundeen arteko baliabide-banaketa

Finantza-jarduera hiru erakunde-mailatan banatuta egoteak berak eragiten du hiru maila horien artean finantza-fluxuak egotea. Ekonomia Itunaren kudeaketak sortutako diru-sarrerak hiru erakunde-mailen artean banatzen dira, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak araututakoari jarraiki. Azken lege horrek autonomia-erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoen

Sus competencias emanan del Estatuto de Autonomía, el Concierto Económico, la Ley de Territorios Históricos y en parte de la Ley Orgánica 8/1980, de 22 de septiembre, de Financiación de las Comunidades Autónomas (LOFCA). Está regulada por la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco. Se corresponde con las Instituciones Comunes del País Vasco, que disponen como Órganos de Gobierno de un Parlamento y de un Ejecutivo, cuyo Lehendakari es elegido en el Parlamento.

b) Haciendas Forales.

Sus competencias se regulan en el Concierto Económico y en la Ley de Territorios Históricos. Se corresponden con los Territorios Históricos, que disponen como Órganos de Gobierno de las Juntas Generales, órgano legislativo y de control del ejecutivo, y de una Diputación Foral, cuyo Diputado General o Presidente es elegido por dichas Juntas.

c) Haciendas Locales.

Reguladas por el propio Concierto Económico y las Normas Forales Reguladoras de las Haciendas Locales. Se corresponden con los Municipios, que disponen a su vez de unas Juntas Municipales y un Alcalde o Presidente elegido por dichas Juntas.

Esta distribución institucional en tres niveles es la que se sigue en el análisis de la gestión de la Hacienda Vasca en este Informe, en los capítulos 3, 4 y 5.

6.b. Distribución de recursos entre las Instituciones

La propia estructura institucional en tres niveles de la actividad financiera pública obliga a la existencia de flujos financieros entre niveles. Los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico se redistribuyen entre los distintos niveles institucionales de acuerdo con la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la

foruzko jardute-erakundeen arteko harremanak arautzen ditu.

Lurralde historikoetako foru-ogasunek Euskadiko Ogasun Orokorrari ordaindu beharreko zenbatekoa Eusko Legebiltzarrak erabakitzen du lege bidez, aldez aurretik Herri Dirubideen Euskal Kontseiluarekin adostu ondoren; onartzen denak, gutxienez, hiru agintaldiko iraupena du, aurrekontuei dagokienez.

Bestalde, toki-ogasunek zerga itunduak eta ez-itunduak ere biltzen dituzte. 27/1983 Legearen 3. artikuluak araututakoari jarraituz, Autonomia Erkidegoak aitortzen eta bermatzen du Euskadiko udalerriek autonomien autonomia interes pribatuak kudeatzeko eta beren baliabideak antolatzeko. Halaber, arau horren bigarren xedapen gehigarriak arautzen du EAEko udalerriek ez dutela araubide erkideak araututakoa baino baliabide-maila txikiagoa izango eta diru-hornidura bat izango dutela obra eta zerbitzuetako foru-planen aurrekontuetik.

Lurralde historikoetako foru-organuek arrisku banatuaren irizpidea erabiltzen dute tokiko erakundeek urtero egin beharreko ekarpena sarrera itunduetan zenbartekoa izango den ezartzeko. Horrez gain, Dirubideen Euskal Kontseiluak gomendatzen die foru-organoei beren mendean dauden toki-erakundeei, itundutako zergen bidez bildutakoaren parteidetza moduan, gutxienez % 50 ematea, kupoa eta ekarpenak kitatu ondoren. Toki-ogasunen finantziazio-iturri nagusia zerga itunduak dira; izan ere, lortzen duten kopuru osoaren ia erdia izaten baita.

Bigarren kapituluak xehekiro adierazten du zer irizpide erabili behar diren Ekonomia Ituna kudeaketaren bidez eskuratutako baliabideak erakundeen artean banatzeko.

7. ZERGAK KOORDINATZEKO EUSKADIKO ORGANOA

Maiatzaren 30eko 3/1989 Legeak, Zergapideen Elkar-egokitasuna, Erakidetasuna eta Lankidetasunari

Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos.

La determinación de las aportaciones de las Haciendas Forales de los Territorios Históricos a la Hacienda General del País Vasco se aprueba mediante Ley del Parlamento Vasco previo acuerdo del Consejo Vasco de Finanzas Públicas para períodos mínimos de tres ejercicios presupuestarios.

Por otra parte, las Haciendas Locales participan de la recaudación de los tributos concertados y no concertados. El artículo 3 de la Ley 27/1983 señala que la Comunidad Autónoma reconoce y garantiza la autonomía de los Municipios del País Vasco para la gestión de sus intereses privados y la administración de sus recursos. Así mismo, en su disposición adicional segunda determina que los Municipios tienen garantizado un nivel de recursos no inferior al que les correspondiere por aplicación de la legislación de régimen común, a la vez que se les dota presupuestariamente de los Planes Forales de Obras y Servicios.

Los Órganos Forales de los Territorios Históricos utilizan el criterio del riesgo compartido al establecer anualmente la participación de los Entes Locales en los ingresos concertados, destinando, a recomendación del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, a los Entes Locales de ellos dependientes, en concepto de participación en los tributos concertados, como mínimo el 50% de la recaudación una vez deducido el Cupo y las Aportaciones. La principal fuente de financiación de las Haciendas Locales es su participación en la recaudación de los tributos concertados, que supone casi la mitad del total de ingresos que obtienen.

En el Capítulo 2 se recoge una detallada exposición sobre los criterios de distribución institucional de los recursos derivados de la gestión del Concierto Económico.

7. EL ÓRGANO DE COORDINACIÓN TRIBUTARIA DE EUSKADI

La Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal, posteriormente modificada por la Ley

buruzkoak —gerora, 4/1998 Legeak zenbait aldaketa egin zizkion—, helburu hau zuen: lurralde historikoek zerga-eremuan jardutean erabili beharko dituzten irizpideak arautzea eta antolatzea.

Batetik, Autonomia Estatuaren 41.2.a) artikuluak arautzen du lurralde historikoetako erakunde eskumendunek zerga-araubidea mantendu, ezarri eta arautu ahal izan dutela beren lurraldean, Estatuko zerga-egitura orokorrari, koordinaziorako, zerga-harmonizaziorako eta Estatuarekiko lankidetzarako Ekonomia Itunak berak jasotako arauei jarraituz eta Eusko Legebiltzarrak arlo horretan eman ditzakeen arauak betez.

Ekonomia Ituneko 2. artikuluak arautzen du lurralde historikoen zerga-sistemaren oinarrizko printzipioetako bat izango dela lurralde historikoetako erakundeek beren jarduna koordinatzea, harmonizazio fiskala lortzea eta lankidetzan jardutea; betiere, Eusko Legebiltzarrak propio horretarako emandako arauak beteta.

Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoen Foruzko Jardute-erakundeen arteko Harremanei buruzko Legeak, Lurralde Historikoen Legea izenez ere ezagutzen denak, bere 14.3 artikuluan honako bi agindu hauek finkatzen ditu, gerora, sarri aipatuak. Batetik, foru-organo eskudunek, Ekonomia Itunak aitortzen dizkien ahalmen araugileak erabiltzean, modu uniformean arautu behar dituzte zergen funtsezko elementuak. Eta bestetik, Eusko Legebiltzarrak eman behar ditu lurralde historikoen arteko zerga-sistemaren harmonizazioa, koordinazioa eta lankidetza garatzeko arauak.

Administrazio zentralak toki-korporazioek —2. zenbakiko helburuko autonomia-erkidegoetakoek soilik— funtsetan parte hartzeko bidea zabaldu zuen 1995ean. Guztirako kopurua 80.000 milioi pezetakoa izan zen 1995-1999 aldian, eta 50.000 biztanletik gorako udalerriek soilik zuten laguntza lortzeko aukera, biztanleko 7.500 pezetakoa, hain zuzen ere.

1997. urtean autonomia-erkidegoentzako eta toki-korporazioentzako aurreikusitako konpromiso-kreditu guztiak konprometitu ziren, 120.000 milioi pezeta 1997-1999 aldikoak eta 80.000 milioi pezeta 1995-1999 aldikoak, hurrenez hurren.

Euskadik Kohesio Funtsetik 20.773,3 milioi pezeta jaso ditu 1993. eta 1999. urteen arteko programazio aldian. Autonomia-erkidegoei zegokien zatitik 10.397 milioi pezeta jaso ditu, honela banatuta: 5.375,6 milioi garraio-proiektuetarako eta 5.021,4 milioi ingurumen-alorreko proiektuetarako. Toki-korporazioei dagokien zatitik, 10.376,3 milioi pezeta jaso ditu ingurumen-alorreko proiektuetarako.

ambiente y el 52% para proyectos de infraestructura del transporte. Por primera vez en el funcionamiento del Fondo, la Administración del Estado posibilitó en ese año la participación de Comunidades Autónomas, destinándose desde entonces 40.000 millones de pesetas anuales, no estableciéndose cuotas por Comunidades Autónomas ni criterios de selección.

En 1995 y 1996 se reservó una cuarta parte de la dotación de las Comunidades Autónomas para proyectos de transporte, a la que podían optar solamente algunas de ellas, entre las cuales se encontraba el País Vasco, con competencias en la materia y redes transeuropeas en su territorio. En ejercicios posteriores la participación de la Comunidades Autónomas quedó limitada a proyectos de medio ambiente.

La Administración Central habilitó también una vía de participación de las Corporaciones Locales en 1995, restringida a aquellas ubicadas en Comunidades Autónomas objetivo nº 2, con un importe global de 80.000 millones de pesetas para el período 1995-1999, a la que pudieron optar los municipios con más de 50.000 habitantes y a razón de 7.500 pesetas por habitante.

En 1997 quedó comprometida la totalidad de los créditos de compromiso previstos para las Comunidades Autónomas y Corporaciones Locales, respectivamente 120.000 millones de pesetas del período 1997-1999 y 80.000 millones de pesetas del período 1995-1999.

La participación en el Fondo de Cohesión del País Vasco asciende a 20.773,3 millones de pesetas en la totalidad del período de programación 1993-1999. Del tramo correspondiente a las Comunidades Autónomas ha obtenido 10.397 millones de pesetas, distribuidos en 5.375,6 para proyectos de transporte y 5.021,4 en proyectos de medio ambiente. En el tramo de Corporaciones Locales la participación alcanza los 10.376,3 millones de pesetas destinados a proyectos de medio ambiente.

9.b. Egitura- eta Kohesio-politikaren erreforma, 2000-2006 aldirako

1999ko martxoan, Berlinen, Kontseilu Europarrak zenbait alderdi adostu zituen "Agenda 2000" izenekoari buruz. Europar Batasuna etorkizunean zabaldu egingo zela ikusita, zenbait gauza adostu ziren: zer finantza-esparru ezarriko zaien erkidegoko politikei 2000-2006 aldian, zer-nolako kontrola egingo zaien aurrekontuei (ezinbestekoa baita Ekonomia eta Moneta Batasuna lortzeko), eta zer betekizun bete behar diren munduko ingurumen ekonomiko globalizatuan arrakasta izateko.

Testuinguru horretan, eskualde-politika funtsezko negoziazio-gaietako bat izan zen, eta horri buruzko erabaki garrantzitsuak hartu ziren: zer aurrekontu izango zuen, nola ezarriko zen eta nola funtzionatuko zuen.

2000-2006 aldian, egiturako esku-hartzeetarako aurrekontua 213.000 milioi eurotan ezarri zen (1999ko prezioak): 195.000 egitura-funtsetarako ziren eta 18.000, Kohesio Funtserako.

Beste alde batetik, egitura-laguntzak gehiago kontzentratzea erabaki zen, funtsen finantza-kudeaketa hobetzea, eta funtsen kudeaketa sinplifikatzea, eraginkorragoak izan eta ekonomia- eta gizarte-kohesioa lortzeko, funtsen helburua lortzeko, alegia.

Horrenbestez egitura-politikaren helburuak murriztu eta hiru izango dira, eta funtsen laguntza izango duten populazioa ere murriztu egin da: Europar Batasunaren populazioaren % 51 zen 1994-1999 aldian, eta % 40, berriz, 2000-2006 aldian.

Aldi berri horretan, honela esleitu ziren funtsak helburuka:

- 1. helburua: Garapen txikiena duten eskualdeen garapena eta egitura-doikuntza sustatzea da, oraindik ere, helburua. Per capita errenta erkidegoko batez bestekoaren % 75etik beherakoa duten eskualdeak dira, eta, guztira, 50 eskualde inguru dira, erkidegoko

9.b. Reforma de la Política Estructural y de Cohesión para el período 2000-2006

En marzo de 1999, en Berlín, el Consejo Europeo acordó diferentes cuestiones a cerca de la denominada "Agenda 2000". Ante la perspectiva de la futura ampliación de la Unión Europea, se alcanzaron diferentes consensos respecto al marco financiero de las políticas comunitarias para el período 2000-2006, así como sobre el control presupuestario necesario para el éxito de la Unión Económica y Monetaria, y sobre las exigencias impuestas por un entorno económico mundial globalizado.

En este contexto, la política regional constituyó un elemento negociador importante, adoptándose decisiones relevantes respecto a su dotación presupuestaria, modalidades de aplicación y funcionamiento.

En el período 2000-2006, el presupuesto para las intervenciones estructurales se fijó en 213.000 millones de euros (precios 1999): 195.000 asignados a los fondos estructurales y 18.000 al Fondo de Cohesión.

Por otra parte, se acuerda una mayor concentración de la ayuda estructural, la mejora de la gestión financiera de los fondos y la simplificación de su gestión con el fin de incorporar mayor eficacia para alcanzar el objetivo de la cohesión económica y social.

De esta forma, los objetivos de la política estructural quedan reducidos a tres y se reduce la población asistida por los fondos, que pasa del 51% de la población de la Unión Europea en el período 1994-1999 a un máximo del 40% para los años 2000-2006.

En esta nueva etapa, la asignación de fondos por objetivos se fija del modo siguiente:

- Objetivo nº 1. Continúa siendo fomentar el desarrollo y el ajuste estructural de las regiones menos desarrolladas. Se trata de regiones cuyo PIB per cápita sea inferior al 75% de la media comunitaria, beneficiando en torno a 50 regiones que representan el 22% de la población

populazioaren % 22. Helburu honetan sartzen dira, hemendik aurrera, oso populazio-dentsitate txikiko eskualdeak eta eskualde ultraperiferikoak.

Baliabideen % 69,7 eskuratzen ditu helburu honek, 135.950 milioi euro, guztira.

- 2. helburua. Egitura-gabeziak dituzten eremuen ekonomia- eta gizarte-birmoldaketa laguntzen ditu. Industria-gainbeheran dauden eskualdeak ez ezik, beste hauek ere hartzen ditu: aurreko aldiko 5b helburuko landa-eremuak, zailtasunak dituzten hiri-eremuak, arrantzaren menpekoak izan eta krisian dauden eremuak, eta zerbitzuen oso menpekoak izan eta birmoldaketan dauden eremuak. Gehienez ere erkidegoko biztanleen % 18 har dezake barne: %10 industria-eremuetan, % 5 landa-eremuetan, % 2 hiri-eremuetan eta % 1 arrantzaren menpekoetan.

  Baliabideen % 11,5 eskuratzen ditu helburu honek, 22.450 milioi euro, guztira.

- 3. helburua. Helburu horizontala da, ez dio lurralde-parametroei begiratzen, eta hezkuntza, prestakuntza eta enpleguaren alorreko politikak eta sistemak egokitzeko eta modernizatzeko laguntzak ematen ditu. Lehengo 3. eta 4. helburuak hartzen ditu, eta lan-merkatuaren modernizaziorako laguntzak ematen ditu enpleguko urte anitzeko programei eta Amsterdamgo Itunaren enpleguari buruzko titulu berriari jarraiki. Europar Batasunaren lurralde osoa hartzen du, 1. helburuan dauden eskualdeak izan ezik.

  Baliabideen % 12,3 eskuratzen ditu helburu honek, 24.050 milioi euro, guztira.

Beste alde batetik, egitura-funtsen diru-kopuruaren % 0,5 ABFTari esleitzen zaio, 1. helburutik kanpoko arrantza-politika komunari laguntzeko ekintzetarako. 1.100 milioi euro dira. Horrez gain, NBBEF-Bermeak finantzatutako landa-garapeneko politikako baliabideak NPBaren aurrekontuari zorduntzen zaizkio. 30.373 milioi euro dira.

comunitaria. Se incorporan a en este objetivo las regiones con muy baja densidad de población y las regiones ultraperiféricas.

Su dotación alcanza el 69,7% de los recursos, un total de 135.950 millones de euros.

- Objetivo nº 2. Apoya la reconversión económica y social de las zonas con deficiencias estructurales. No sólo acoge a las regiones en declive industrial, sino, también, a las zonas rurales del objetivo 5b) del período anterior, a las zonas urbanas con dificultades, a las zonas en crisis dependientes de la pesca y a las zonas en reconversión muy dependientes de los servicios. La población cubierta queda reducida a un máximo del 18% de la población comunitaria: 10% para las zonas industriales, 5% para las rurales, 2% para las urbanas y 1% para las dependientes de la pesca.

  Su dotación alcanza el 11,5% de los recursos, un total de 22.450 millones de euros.

- Objetivo nº 3. De carácter horizontal, no atiende a parámetros territoriales, apoya la adaptación y la modernización de las políticas y sistemas de educación, formación y empleo. Incluye los anteriores objetivos 3 y 4, y apoya la modernización del mercado de trabajo de acuerdo con los planes plurianuales de empleo y el nuevo título sobre empleo del Tratado de Ámsterdam. Abarca todo el territorio de la Unión, salvo las regiones incluidas dentro el objetivo nº 1.

  Su dotación alcanza el 12,3% de los recursos, un total de 24.050 millones de euros.

Por otra parte, un 0,5% de la dotación de los fondos estructurales se asigna al IFOP para las acciones de acompañamiento de la política pesquera común fuera del objetivo nº 1, 1.100 millones de euros. Así mismo, los recursos de la política de desarrollo rural financiada por el FEOGA-Garantía se cargan al presupuesto de la PAC, 30.373 millones de euros.

Egitura-funtsen gain daude, gainera, Erkidegoaren Ekimenak eta berrikuntza-ekintzak. Berrikuntza-ekintzetarako, 1.000 milioi euro erabiltzen dira (funtsen diru-kopuruaren % 0,5), garapen-estrategiak hobetzen dituzten baina behar bezala ustiatu ez diren ekimenak laguntzeko, horiek esperimentazio-gune berria sor dezaten. Erkidegoaren Ekimenak lau dira 2000-2006 aldian eta funtsen % 5,35 biltzen dute:

- INTERREG: eskualdeen mugaz haraindiko lankidetza, 4.875 milioi euro.
- URBAN: krisian dauden hirien sozio-ekonomia biziberritzea, 700 milioi euro.
- LEADER: Garapen iraunkorreko tokiko estrategia berriak, 2.020 milioi euro.
- EQUAL: lan-merkatuaren alorreko diskriminazio- eta desberdintasun-modu guztien aurka egiteko bitarteko berriak sustatzea, nazioz gaindiko lankidetzako ekintzen bidez. 2.847 milioi euro.

Europako Batzordeak, 1999ko uztailaren 1eko Erabakian, helburu bakoitzerako finantzazioa estatu kideen artean nola banatuko zen ezarri zuen. Espainiak aurreko ekitaldiko partaidetzaren antzekoa du, % 23,5ekoa, eta jaso beharreko kopuruak handiagoak dira. 1. helburuan partaidetza handiagoa du, eta 2. helburuan, berriz, txikiagoa.

Baliabide horiez gain, Kohesio Funtsekoak daude. Ez dago aldaketa handirik aurreko aldiarekiko, eta Europako batez besteko per capita errentaren % 90 baino txikiagoa duten estatuetarako (Espainia, Portugal, Grezia eta Irlanda) ingurumen- eta garraio-alorretako proiektu handiak laguntzen ditu. Kohesio Funtsak 18.000 milioi euroko zuzkidura du.

9.c. Euskadiren partaidetza

Euskadik 2000-2006 aldian egitura-funtsetatik jaso duen laguntza hemendik

Los fondos estructurales, además, atienden a las Iniciativas Comunitarias y a acciones innovadoras. Estas últimas absorben 1.000 millones de euros, un 0,5% de la dotación de los fondos, para el apoyo a iniciativas insuficientemente explotadas que mejoren las estrategias de desarrollo, generando un espacio nuevo de experimentación. Las Iniciativas Comunitarias se reducen a cuatro en el período 2000-2006, con el 5,35% de la dotación de los fondos:

- INTERREG: cooperación regional transfronteriza, 4.875 millones de euros.
- URBAN: regeneración socioeconómica de ciudades en crisis, 700 millones de euros.
- LEADER: nuevas estrategias locales de desarrollo sostenido, 2.020 millones de euros.
- EQUAL: promoción, mediante actuaciones de cooperación transnacional, de nuevos medios para combatir todas las formas de discriminación y desigualdad en relación con el mercado de trabajo, 2.847 millones de euros.

La Comisión Europea, en su Decisión de 1 de julio de 1999, estableció el reparto de la financiación para cada objetivo entre los distintos Estados miembros. España mantiene la participación respecto al período anterior, 23,5%, y aumenta los importes a percibir, creciendo su participación en el objetivo nº 1, mientras desciende en el objetivo nº 2.

A estos recursos han de añadirse los provenientes del Fondo de Cohesión, que se mantiene prácticamente en los mismos términos que en el período anterior, favoreciendo los grandes proyectos de medio ambiente y transportes para los Estados que se sitúan en un PIB per cápita por debajo del 90% de la media comunitaria (España, Portugal, Grecia e Irlanda). La dotación del Fondo de Cohesión asciende a 18.000 millones de euros.

9.c. Participación del País Vasco

La participación en el período 2000-2006 del País Vasco en los fondos estructurales se

jaso du: 2. helburutik, 3. helburutik, ABFTtik, Landa Garapeneko Politikatik eta Kohesio Funtsetik.

2. helburua

Erkidegotik jasotzen dituen baliabideetatik gehienak helburu honetatik jaso izan ditu Euskadik. Helburu horretan aldaketa sakonak egin dira aldi berrirako, eta, horrenbestez, Espainiak duen partaidetza asko murriztu da, eta are gehiago Euskadik duena.

Batzordearen 1999ko uztailaren 1eko erabakiak 2.553 milioi euro (guztizkoaren % 12,9) esleitzen dizkio Espainiari (eta 98 milioi euroko aldi baterako laguntza), eta horietan bildutako biztanleria % 22ra murriztu da. Autonomia-erkidegoen arteko banaketa biztanleria-irizpideetan soilik oinarrituta egiten da, beste faktore batzuk kontuan izan gabe, alegia.

Euskadik aukeratua izan ahal izateko baldintzak lurralde osoan betetzen dituen arren, barne hartutako biztanleetan muga ezartzeak 184.000 biztanle kanpo uztea eragin du (aldi baterako laguntza jaso ahal izango dute). Horrela, bada, 532,8 milioi euro jasoko ditu, Espainiak jasotzen duenaren % 21,7 (eraginkortasuneko erreserbarako % 4 kendu ondoren), eta 11,4 milioi euro aldi baterako laguntza moduan. Euskadik izan duen galera, aurreko 5b helburua ere kontuan hartuta, % 25ekoa izan da aurreko aldian izandako baliabideekiko.

Euskadiri dagokion kopuruaren % 95 EGEFetik dator, eta gainerakoa, EGFtik. Aurreko aldian EGEFetik emandako laguntzaren % 45,2 kudeatu zuen zuzenean autonomia-erkidegoak, eta orain, berriz, ia guztia kudeatuko du. EGFko funtsak estatuko administrazioak kudeatuko ditu (lehen % 27,3 ziren). Dena dela, funtsak Euskadiko 2. helburuko Programazio Agiri Bakarrean sartuta daude, EGEFeko funts guztiekin batera, eta ez aurreko aldian bezala eskualde anitzeko programa independentetan.

produce a través del objetivo nº 2, el objetivo nº 3, el IFOP, la Política de Desarrollo Rural y el Fondo de Cohesión.

Objetivo nº 2

Este es el objetivo mediante el cual el País Vasco viene obteniendo tradicionalmente el grueso de los recursos comunitarios. Los profundos cambios introducidos en este objetivo para el nuevo período han supuesto una reducción significativa de la participación española, más relevante en el caso de la participación del País Vasco.

La Decisión de la Comisión de 1 de julio de 1999 atribuye a España 2.553 millones de euros, un 12,9% del total, más 98 millones de euros de ayuda transitoria, descendiendo al 22% la población acogida. La distribución entre Comunidades Autónomas se realiza exclusivamente según el criterio de población, sin tener en cuenta otros factores.

En el País Vasco, aún cumpliendo los requisitos de elegibilidad para la totalidad del territorio vasco, las limitaciones impuestas en cuanto al techo de población acogida han obligado a excluir 184.000 habitantes, que pasan a percibir ayuda transitoria. Así, recibirá 532,8 millones de euros, el 21,7% de la dotación española (tras descontar el 4% dedicado a la reserva de eficacia) y 11,4 millones de euros en concepto de ayuda transitoria. La pérdida, teniendo en cuenta también el anterior objetivo 5b, puede estimarse en torno al 25% de los recursos dispuestos en el período anterior.

La asignación del País Vasco proviene en un 95% de fondos FEDER y el resto del FSE. A diferencia del período anterior, en el que fue del 45,2%, ahora prácticamente la totalidad de la ayuda asignada del FEDER será gestionada por la Comunidad Autónoma. Respecto a los fondos del FSE, éstos serán gestionados por la Administración del Estado (anteriormente el 27,3%), sin embargo, quedan integrados en el Documento Único de Programación del Objetivo nº 2 del País Vasco, junto a la totalidad de los fondos FEDER, y no como en el período anterior incluidos en programas plurirregionales independientes.

Europako Batzordeak, 2001eko martxoaren 7an, Euskal Autonomia Erkidegoko 2. helburuko 2000-2006 aldiko Programazio Agiri Bakarra (DOCUP) onartu zuen. Hau ezartzen da agiri horretan: batetik, esleitutako erkidegoko funtsen programazioa, eta, bestetik, Europako Batzordearekin adostutako ekintzaren oinarri izango diren ardatzak, diagnostikatutako gabeziei eta defizitei aurre egiteko.

La Comisión Europea, el 7 de marzo de 2001, aprobó el DOCUP Objetivo nº 2 2000-2006 de la Comunidad Autónoma del País Vasco. En él se establece la programación de los fondos comunitarios asignados y los ejes de desarrollo en los que se desarrollará la acción concertada con la Comisión Europea para paliar las carencias y déficits diagnosticados.

Programazio-tresna horrek, guztira, 1.316 milioi euroko inbertsioa dakar (2001eko prezioak), honela banatuta: 332,2 milioi euro Eusko Jaurlaritzak jarriko ditu; 211,4, foru-aldundiek; 17,2, enpresa publikoek eta Bilbao Ría 2000 enpresa publikoak; 167,5, estatuko administrazioak; eta 587,6 milioi, erkidegoko egitura-funtsek (558,9 EGEFetik eta 28,8 EGFetik). Horrez gain, programari atxikitako inbertsio pribatua 1.570 milioi euro ingurukoa da.

Este instrumento de programación supone una inversión pública total de 1.316 millones de euros (precios 2001), repartidos en 332,2 del Gobierno Vasco, 211,4 de las Diputaciones Forales y Entidades Locales, 17,2 de empresas públicas y Bilbao Ría 2000, 167,5 de la Administración del Estado y 587,6 millones de euros de los fondos estructurales comunitarios (558,9 del FEDER y 28,8 del FSE). Así mismo, la inversión privada asociada al programa se estima en 1.570 millones de euros.

- 1. ardatza. Lehiakortasuna eta enplegua hobetzea eta ekoizpen-ehuna garatzea. Guztirako inbertsio publikoaren % 19 da, 248,8 milioi euro.
- 2. ardatza. Ingurumena, natura-ingurunea eta ur-baliabideak. 157,1 milioi euro dira, programaren % 12.
- 3. ardatza. Ezagutzaren gizartea, berrikuntza, I+G, informazioaren gizartea. Programako guztirako gastu publikoaren % 33, eta 433,6 milioi euro.
- 4. ardatza. Komunikazio-sareen eta energia-sareen garapena. Guztirako gastu publikoaren % 26, eta 341,1 milioi euro.
- 5. ardatza. Toki- eta hiri-garapena. Guztirako inbertsio publikoaren % 10 da, 129,5 milioi euro.
- 6. ardatza. Laguntza teknikoa. Inbertsio publikoaren % 0,5 da, 6 milioi euro.

- Eje 1. Mejora de la Competitividad y el Empleo y Desarrollo del Tejido Productivo. Representa el 19% de la inversión pública total, con 248,8 millones de euros.
- Eje 2. Medio Ambiente, entorno natural y recursos hídricos. Con 157,1 millones de euros, representa un 12% del programa.
- Eje 3. Sociedad del conocimiento, innovación, I+D, sociedad de la información. Un 33% del gasto público total del programa y 433,6 millones de euros.
- Eje 4. Desarrollo de Redes de Comunicación y Energía. Un 26% del gasto público total y 341,1 millones de euros.
- Eje 5. Desarrollo Local y Urbano. Representa el 10% de la inversión pública total, con 129,5 millones de euros.
- Eje 6. Asistencia técnica. Con un 0,5% de la inversión pública, supone 6 millones de euros.

3. helburua

Espainiako 3. helburuaren 2000-2006 aldirako Erkidegoko Laguntzako Esparruak, Europako Batzordearen 2000ko irailaren

Objetivo nº 3

El Marco Comunitario de Apoyo del Objetivo nº 3 de España para el período 2000-2006, aprobado por Decisión de la Comisión

29ko Erabakiaren bidez onartuak, 2.140 milioi euro (1999ko prezioak) esleitu zizkion Espainiari, helburu horretarako gordetako kopuruaren % 8,9.

Baliabideak estatuan banatzeko modua 1999ko abenduko Lan Gaietarako Arloko Batzarreko irizpideei jarraiki erabaki zen, eta 408,3 milioi euro (2000ko prezioak) esleitu zizkion Euskal Autonomia Erkidegoari, guztizkoaren % 18,4. Aurreko aldiko 3. eta 4. helburuekin alderatuta, partaidetza zertxobait handiagoa da, bai eta esleitutako diru-kopurua ere. Kopuru horretatik, Euskadik % 54,5 kudeatuko du zuzenean, eta gainerakoa eskualde anitzeko programazioari dagokio (estatuko administrazioak kudeatzen du).

Erkidegoko Laguntzako Esparrua 12 programa eragileren bidez ezarriko da. Horietako 7 eskualdekoak dira, 1. helburukotzat hartu ezin diren autonomia-erkidego bakoitzeko bat, eta beste 5 eskualde anitzeko programa eragileak dira (enpleguaren sustapena, enpresa ekimena eta etengabeko prestakuntza, diskriminazioaren aurkako borroka, lanbide-prestakuntzako sistemak, eta laguntza teknikoa).

Euskal Autonomia Erkidegoko 2000-2006 aldiko Programa Eragileak Euskadiko egoera sozio-ekonomikora egokitzen ditu jarduera-estrategiak eta jarduera-ardatz nagusiak, Euskadiko enplegu eta giza baliabideen politikari jarraituz eta Europako politikaren jarraibideetan oinarrituta. Hona hemen:

- Lehentasun handiagoa ematea enplegu-politika aktiboei politika pasiboei baino.
- Genero-ikuspegia sartzea jarduera-eremu guztietan, eta aukera-berdintasunaren irizpidea ezartzen da.
- Kontratu mugagabeak hedatu eta finkatzea.
- Egoera okerrenean dauden kolektiboen behar bereziei erantzutea.
- Tokiko ikuspegitik jardutea.
- Aukerak sortzen dituzten enplegu-sorgune berriak ustiatzea.

Europea de 29 de septiembre de 2000, atribuye a España 2.140 millones de euros (precios 1999), un 8,9% del total destinado a este objetivo.

La distribución interna de los recursos, decidida conforme a los criterios de la Conferencia Sectorial de Asuntos Laborales de diciembre de 1999, asigna a la Comunidad Autónoma del País Vasco un total 408,3 millones de euros (precios 2000), un 18,4%. Ello supone un ligero incremento de la participación y de la dotación asignada, respecto a los objetivos 3 y 4 del período anterior. De esta dotación, el País Vasco gestionará directamente un 54,5%, mientras el resto corresponderá a la programación plurirregional gestionada por la Administración del Estado.

Este Marco Comunitario de Apoyo se aplicará mediante 12 programas Operativos, 7 de ellos regionales, correspondientes a cada una de las Comunidades Autónomas no elegibles como Objetivo nº 1 y otros 5 Programas Operativos plurirregionales (fomento del empleo, iniciativa empresarial y formación continua, lucha contra la discriminación, sistemas de formación profesional y asistencia técnica).

El Programa Operativo de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2000-2006, conforme a la política de empleo y recursos humanos del País Vasco, y a partir de las orientaciones de la política europea, adapta a la realidad socioeconómica vasca las estrategias y ejes prioritarios de actuación.

- Priorización de las políticas activas de empleo frente a las pasivas.
- Introducción de la perspectiva de género en todos los ámbitos de actividad y aplicación del principio de igualdad de oportunidades.
- Extensión y consolidación de la contratación indefinida.
- Atención a las necesidades especiales de los colectivos más desfavorecidos.
- Actuación desde la perspectiva local.
- Explotación de los nuevos yacimientos de empleo generadores de

sorgune berriak ustiatzea.

- Berrikuntza metodologikoa eta programen kudeaketaren berrikuntza, enplegu-zerbitzuak hobetzeko bermea delako; eta kalitate osoaren filosofia sartzea, plangintza eta kudeaketa egiten duten erakundeetan.
- Instituzioen gizarte-elkarrizketan sakontzea.

Programaren baitan daude, halaber, Emakumeentzako Ekintza Positiboko Hirugarren Planeko helburuak, eta "Enplegurako Akordioa" hitzarmenaren helburu nagusiak (1999an sinatu zuten Euskadiko enpresaburuen elkarteek eta sindikatuek)

Programatutako ekintza guztiek kontuan dituzte izaera horizontaleko lehentasunak: gizonen eta emakumeen aukera-berdintasuna, informazioaren gizartea, eta tokiko garapena.

Aurreikusitako guztirako inbertsioa 508,2 milioi eurokoa da. Kopuru horretatik, EGFak 222,6 milioi euroko ekarpena egiten du; Euskadiko administrazioek, 277,5 milioikoa; eta sektore pribatuak, 8 milioikoa.

Euskadik kudeatuko dituen erkidegoko baliabideetatik, % 55 baino gehiago langabeak laneratzeko (inoiz lan egin ez duten langabeak eta lana galdu dutenak), enplegua egonkortzeko eta moldagarriago egiteko erabiliko dira. Beste alde batetik, diru-kopuruaren % 27 inguru biltzen dute emakumeen arazoa eta arazo bereziak dituzten pertsonak jomuga dituzten jarduerek, eta enpresa-ekimenak sustatzea eragin dezaketen jarduerek.

ABFT

Arrantza Bideratzeko Finantza Tresnaren (ABFT) bidez, Arrantza Politika Bateratuaren egiturazko neurriak batera finantzatzen dira. Lehen helburuko eskualdeetatik kanpo geratzen diren eskualdeetan, beste batzuekin loturarik ez dutela gauzatzen dira, estatu-esparruko Programazio Agiri Bakarra izenekoetan.

oportunidades.

- Innovación metodológica y de la gestión de los programas como garantía de mejora de los servicios de empleo y en la introducción de la filosofía de calidad total en los organismos planificadores y gestores.
- Profundización en el diálogo social institucional.

El Programa incorpora también los objetivos del Tercer Plan de Actuación Positiva para las Mujeres y los principales objetivos del "Acuerdo para el Empleo" suscritos en enero de 1999 entre las organizaciones empresariales y sindicales vascas.

Todas las actuaciones programadas tienen en cuenta las prioridades de carácter horizontal de igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres, sociedad de la información y desarrollo local.

El volumen total de inversión total prevista asciende a 508,2 millones de euros, contribuyendo el FSE con 222,6, las Administraciones vascas con 277,5 y el sector privado con 8 millones de euros.

Las actuaciones orientadas a la inserción y reinserción ocupacional de desempleados, la estabilidad en el empleo y la adaptabilidad superan el 55% de los recursos comunitarios asignados a la gestión propia del País Vasco. Por otra parte, las actuaciones dirigidas a la problemática de las mujeres, las personas con especiales dificultades y aquellas susceptibles de promover iniciativas empresariales absorben cerca del 27% de la dotación financiera.

IFOP

A través del Instrumento de Orientación de la Pesca, IFOP, se cofinancian medidas de acompañamiento de la Política Pesquera Común de carácter estructural, que en el caso de las regiones que quedan fuera del Objetivo nº 1 se instrumentan independientemente, mediante Documentos Únicos de Programación específicos de ámbito estatal.

Aldi berrian eutsi egin zaie ABFTen helburuei: arrantza-baliabideen eta horien ustiapenaren artean oreka iraunkorra lortzen saiatzea; arrantza-sektorean bideragarriak diren enpresen lehiakortasuna eta garapena sendotzea; arrantzako eta akuikulturako produktuen merkatuaren hornidura hobetu eta horien balio erantsia handitzea; eta horien menpeko eremuak biziberritzen laguntzea. Esku-hartzeko moduak eta baldintzak ere ez dira funtsean aldatzen.

En el nuevo período, se mantienen los objetivos del IFOP: contribuir a conseguir un equilibrio duradero entre recursos pesqueros y su explotación, reforzar la competitividad y el desarrollo de empresas viables en el sector pesquero, mejorar el abastecimiento del mercado y aumentar el valor añadido en la transformación de los productos de la pesca y la acuicultura, así como contribuir a revitalizar las zonas dependientes de las mismas. Las modalidades y condiciones de intervención tampoco varían de forma sustancial.

Arrantza-egiturak egokitzeko, ABFTak 3.773 milioi euro ditu (2000ko prezioak) 2000-2006 aldian. % 70 1. helburuko eskualdeetarako dira, eta gainerako % 30a, beste eskualdeetarako. Espainiari 1.761 milioi euro dagozkio (% 46,8), 1.557 milioi euro 1. helburuko eskualdeetarako (% 58,9), eta 204, gainerako eskualdeetarako (% 18,1).

Para la adaptación de las estructuras pesqueras el IFOP cuenta con 3.773 millones de euros (precios 2000) en el período 2000-2006. El 70% se destinan a regiones pertenecientes al Objetivo nº 1 y el 30% al resto de regiones. A España le corresponden 1.761 millones de euros (un 46,8%), 1.557 para las regiones Objetivo nº 1 (un 58,9%) y 204 para el resto (un 18,1%).

Euskadiri dagokion finantzazioa jaitsi egin da termino erlatibotan aurreko aldiarekiko (% 51,2ra, hain zuzen); baina igo egin da termino absolututan. Arrantza-sektorearen egitura egokitzeko, akuikulturako eta arrantzako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko 2000-2006 Planari jarraiki esleituko dira funtsak. Guztira, 438,4 milioi euroko inbertsioa egingo da arrantza-sektorean, honela banatuta: 106,2 ABFTetakoak, 104,0 Eusko Jaurlaritzakoak eta 228,1 milioi euro inbertsio pribatukoak. Lehentasuneko 5 ardatz hauen bidez egingo da:

Si bien la financiación asignada al País Vasco desciende en términos relativos respecto al período anterior al 51,2%, sin embargo, aumenta en términos absolutos. La programación de los fondos asignados, según el Plan de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la adaptación estructural del sector de la pesca, la acuicultura y la transformación y comercialización de los productos pesqueros 2000-2006, prevé una inversión total en el sector pesquero de 438,4 millones de euros, repartidos en 106,2 del IFOP, 104,0 del Gobierno Vasco y una inversión privada de 228,1 millones de euros, a través de los siguientes 5 ejes prioritarios.

- 1. ardatza. Arrantza-ontziak. Planeko inbertsioen % 68,7 da. Arrantza-ontziak berritzeko jarduerak nabarmentzen dira: 252,4 milioi euro daude horretarako.

- Eje 1. Flota. Representa el 68,7% de las inversiones del Plan. Destacan las actuaciones para la renovación de la flota pesquera, con 252,4 millones de euros.

- 2. ardatza. Arrantza-produktuen balorazioa. Inbertsioen % 23 da, eta horietatik, nabarmentzekoak dira arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzea eta merkaturatzea jomuga dutenak: 77 milioi euro erabiliko dira horretarako.

- Eje 2. Valoración de los productos pesqueros. Supone el 23% de las inversiones, destacando las dirigidas a la transformación y comercialización de los productos de la pesca y la acuicultura, con 77 millones de euros.

- 3. ardatza. Arrantza-baliabideen kudeaketa. Hainbat helburu ditu: uretako baliabideak babestu eta garatzea, artisau-arrantza, aldi baterako geldiarazteak, arrantza esperimentala eta prospekzioak, sektoreko profesionalen inplikazioa, eta sektorearen egitura eta barne-harremana hobetzea. 9,1 milioi euro daude, horretarako.

- 4. ardatza. Gizarte-alorreko eta prestakuntzako neurriak. Inbertsioen % 5,8 da, 23,9 milioi euro. Arrantza-sektorea berregituratzeko eta dibertsifikatzeko neurriak daude, bai eta arrantzan belaunaldi berriak sartzeko, prestakuntzarako eta lanbide-gaikuntzarako.

- 5. ardatza. Laguntza teknikoa eta berrikuntza-ekintzak. 1,4 milioi euro daude, plana jakinarazteko eta hedatzeko, haren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, laguntza teknikorako eta proiektu pilotuak egiteko.

Landa-eremuak garatzeko politika.

"Agenda 2000" egitasmoarekin, Nekazaritzako Politika Bateratuaren erreformari ekin zitzaion, Europako nekazaritza berbideratu eta sektore moldakorra, iraunkortasuna bermatua duena, lehiakorra bihurtzeko, natura-habitata gorde eta landa-eremua biziberritzeko gai izango dena; eta horretaz gain, gauza izango dena kontsumitzaileen zenbait arlotako eskakizunei erantzuteko, kalitatea, ingurumenaren babesa eta animalien zaintzari buruzkoak, esaterako.

Horren haritik, landa-garapeneko politikak garrantzi handia hartu du, lehen ez-bezalakoa, eta NBBEFk diruz lagundutako zenbait neurri hartu dira: akonpainamendu-laguntzak izenekoak (nekazaritza eta ingurumeneko neurriak, nekazaritza-jarduerari aldez aurretik uztea, baso-berritzea, konpentsazio-ordaina egoera txarrean dauden eremuetan edo ingurumen-alorreko mugak ezarrita dituztenetan); nekazaritza-ustiategietako inbertsioak; nekazari gazteak sartzea; prestakuntza; basogintza; nekazaritza-produktuen eraldaketa eta merkaturatzea; landa-eremuak doitu eta dibertsifikatzea.

- Eje 3. Gestión de recursos pesqueros. Atiende la protección y desarrollo de los recursos acuáticos, la pesca artesanal, las paralizaciones temporales, la pesca experimental y prospecciones, y la implicación de profesionales del sector, así como la mejora de la vertebración e interrelación interna del sector, con 9,1 millones de euros.

- Eje 4. Medidas sociales y formativas. Representa un 5,8% de las inversiones, con 23,9 millones de euros. Se contemplan medidas para la reestructuración del sector pesquero y su diversificación, renovación generacional, formación y cualificación profesional.

- Eje 5. Asistencia técnica y acciones innovadoras. Alcanzan un importe de 1,4 millones de euros para la información y difusión del Plan, el seguimiento y evaluación, el apoyo técnico y la realización de proyectos piloto.

Política de Desarrollo Rural

Con la "Agenda 2000" se acomete la reforma de la PAC, reorientando la agricultura del territorio europeo hacia un sector versátil, sostenible, competitivo, capaz de preservar el hábitat natural y revitalizar el entorno rural, además de responder a las exigencias de los consumidores en cuanto a calidad, protección del medio ambiente y cuidado de los animales.

En este sentido, la política de desarrollo rural toma una relevancia que antes no tenía, apoyando una serie de medidas subvencionadas por el FEOGA: las denominadas medidas de acompañamiento (medidas agroambientales, cese anticipado de la actividad agraria, forestación e indemnización compensatoria en zonas desfavorecidas o sujetas a limitaciones medioambientales) y las inversiones en explotaciones agrícolas, incorporación de jóvenes agricultores, formación, silvicultura, mejora de la transformación y comercialización de productos agrarios, ajuste y diversificación de las áreas rurales.

Landa-garapenerako 2000-2006 aldiko baliabideak, gutxi gorabehera, 30.373 milioi eurokoak dira (1999ko prezioak). Kopuru hori lehengo 5b helburuko landa-eremuen garapenerako zegoen kopurua baino askoz handiagoa da.

Los recursos del período 2000-2006 para la política de desarrollo rural, con carácter indicativo, ascienden a 30.373 millones de euros (precios 1999), cuantía muy superior a la asignada al desarrollo de zonas rurales del anterior Objetivo 5b.

Espainiaren partaidetzak bere horretan eutsi dio termino erlatibotan; termino absolututan, berriz, igoera handia izan du eta 3.213 milioi eurokoa da.

La participación española se mantiene en términos relativos respecto del período anterior, incrementándose de forma sustancial la dotación en términos ab solutos, hasta los 3.213 millones de euros.

Euskadik baliabide horien % 3,8 lortu du, 121,2 milioi euro. Horrek barne-banaketan pisu erlatiboari eustea dakar, baina lau aldiz handiagoak dira landa-garapenerako lortutako erkidegoko funtsak. Funts horiek NBBEF-Bermeak funtsetatik datoz eta Euskadik kudeatuko ditu osorik.

El País Vasco obtiene un 3,8% de estos recursos, 121,2 millones de euros, lo que significa mantener su peso relativo en el reparto interno, pero, sin embargo, cuadruplica los fondos comunitarios obtenidos para el desarrollo rural. Estos fondos provienen del FEOGA-Garantía y serán gestionados en su integridad por el País Vasco.

Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Planak, 2000ko irailean onartutakoak, lehentasun nagusi hau du: nekazaritza-jarduera finkatzea landako ehun sozioekonomikoan, eta horretarako, ekoizpenak merkatuaren eskaeretara egokitzea, eta natura-ingurunea errespetatzen duten nekazaritza-jarduerak sustatzea, jardueraren garapen iraunkorra lortu ahal izateko.

Las prioridades del Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma, aprobado en septiembre de 2000, se dirigen a consolidar la actividad agrícola en el tejido socioeconómico rural, orientando las producciones a la demanda del mercado y potenciando prácticas respetuosas con el entorno natural, que propicien un desarrollo sostenible de la actividad.

Zenbait neurriren bidez antolatzen da plana, eta guztira 500,4 milioi euroko inbertsioa aurreikusten da, honela banatuta: erkidegoko baliabideez gain, 42,9 milioi euro jarriko ditu Eusko Jaurlaritzak; 69,0, foru-aldundiek; 2,6, autonomia-erkidegoko beste iturri publiko batzuek; eta 264,6, inbertsio pribatuak.

El Plan se instrumenta a través de un conjunto de medidas con una inversión prevista total de 500,4 millones de euros, distribuidos, además de los recursos comunitarios, en 42,9 del Gobierno Vasco, 69,0 de las Diputaciones Forales, 2,6 de otras fuentes públicas de la Comunidad Autónoma y 264,6 millones de euros de inversión privada.

Planeko inbertsioek helburu dute sektoreko eragile aktiboek nekazaritzako elikagaien balio-katean parte-hartze handiagoa izan dezaten bultzatzea. Horretarako, ekoizleei lagunduko zaie eraldatze- eta merkaturatze-faseetan, ekoizpenak merkatuko joeretara bideratuko dira, kalitateko produktuak sustatuko dira, bai eta balio erantsi handiena sortzen duten ekimenak ere. Nabarmentzekoak dira, halaber, zenbait inbertsiori emandako laguntzak: ekoizpen-

Las inversiones del Plan se centran en incentivar la mayor participación de los agentes activos del sector en la cadena de valor agroalimentaria, apoyando a los productores en las fases de transformación y comercialización, orientando las producciones a las tendencias del mercado y fomentando los productos de calidad y las iniciativas generadoras de mayor valor añadido. Así mismo, destacan las ayudas a la inversión dirigidas a adecuar las

egiturak egokitzekoei, azalera berregokitzekoei, eta ustiategien eta nekazarien profesionalizaziorakoei.

Kohesio Funtsa

Kohesio Funtsak, 2000-2006 aldirako, 18.000 milioi euro ditu (1999ko prezioak), aurreko aldian baino 1.250 milioi euro gehiago. Onuradunak diren lau estatu kideen arteko baliabideen gutxi gorabeherako banaketak adierazten duenez, ikusten da Espainiako partaidetza handitu egin dela aurreko aldiarekiko (% 61-63,5); Greziak eta Portugalek aurreko mailen antzekoak dituzte (% 16-18) eta Irlandaren partaidetzak behera egin du (% 2-6).

Kohesio Funtsaren bidezko finantzazioa ez da lortzen eskualdeko parametroak edota urte anitzeko programazioak kontuan hartuta: Europako Batzordeak onartutako banakako proiektuei jarraiki lortzen da. Urtean estatu kide bakoitzari zer kopuru dagokion zehaztuta dagoela, Europako Batzordeari proiektuak aurkezten zaizkio, hark onar ditzan. Espainiako kasuan, laguntzen barne-banaketa maila instituzionalei jarraiki egiten da: estatuko administrazioa, autonomia-erkidegoak eta toki-erakundeak.

Horrenbestez, Euskadiri helduta, Europako Batzordeak autonomiei dagokien tartean —Eusko Jaurlaritzak zuzenean kudeatuko ditu— 2001, 2002 eta 2003. urteetan proiektu hauek onartu ditu, Erabakitan bilduta:

- Barakaldoko lur kutsatuak berreskuratu eta segurtasun-biltegia jartzearen gainkostua. 12.435 mila euro.

- Urondo-Erandio hodi biltzailea, Mutrikuko HUA eta Getariako HUA, uren saneamenduaren eta araztearen alorrean. 14.630 mila euro.

- Hodi biltzaileak eta araztegia Kadagua ibaiko goi-arroan, Txorierrin eta Arabako Errioxan. 21.965 mila euro.

estructuras productivas, redimensionamientos en superficie y profesionalización de las explotaciones y de los agricultores.

Fondo de Cohesión

Para el período 2000-2006 la dotación del Fondo de Cohesión es de 18.000 millones de euros (precios 1999), 1.250 millones de euros más que en el período anterior. La distribución indicativa de los recursos entre los cuatro Estados miembros beneficiarios supone un aumento de la participación de España (61-63,5%) respecto al año anterior, mientras Grecia y Portugal se mantienen en niveles similares (16-18%) e Irlanda desciende (2-6%).

La financiación por el Fondo de Cohesión no se obtiene según parámetros regionales ni programaciones plurianuales, sino conforme a proyectos individualizados que han de ser aprobados por la Comisión Europea. Una vez establecida la asignación anual de los recursos para cada Estado miembro, se presentan a la Comisión Europea los proyectos correspondientes para su aprobación. En el caso de España el reparto interno de las ayudas se hace por niveles institucionales: Administración del Estado, Comunidades Autónomas y Entidades Locales.

Así, en cuanto al País Vasco se refiere, los proyectos aprobados por la Comisión Europea en los años 2001, 2002 y 2003, dentro del tramo autonómico y, por tanto, gestionados por el Gobierno Vasco, agrupados por Decisiones, han sido los siguientes:

- Sobrecoste del proyecto de recuperación de suelos contaminados y celda de seguridad de Barakaldo, con una ayuda de 12.435 miles de euros.

- Interceptor Urondo-Erandio, EDAR de Mutriku y EDAR de Getaria, en materia de saneamiento y depuración de aguas, con una ayuda de 14.630 miles de euros.

- Colectores y depuradora en la cuenca alta del río Kadagua, Txorierri y Rioja Alavesa, con una ayuda de 21.965 miles de euros.

- Arriaga-Sangroitz (Asua) hodi biltzailea, Elgera erreka desbideratzeko tunela eta Amorebieta-Etxanoko saneamendua 24.705 mila euro.
- Debaren hodi biltzaileak, Maltzaga-Elgoibarko HUAren, Azitain-Maltzagaren eta Eibar-Azitainen zati batzuk. 21.068 mila euro.
- Euskal Autonomia Erkidegoan lur kutsatuak kudeatzeko zentro bat jartzeko azterketak. 240 mila euro.

Beste alde batetik, toki-erakundeei dagokien tartean —proiektuaren eraginpean dauden udalek zuzenean kudeatuko dituzte—, proiektu hauek onartu ditu erabakitan bilduta horiek ere:

- Saneamenduko eta arazteko lanak Donostian, Irunen eta Barakaldon. 19.514 mila euro.
- Artigako (Bilbao) zabortegia egokitzea, Portugaleten hiri-hondakin solidoak biltzeko eta pneumatikoki garraiatzeko planta, eta Getxoko hondakinen tratamenduari irtenbidea ematea. 19.157 mila euro.
- Hiri-hondakin solidoak tratatzeko planta Gasteizen eta Arabako lurralde historikoko hiri-hondakin solidoen konpostaje-planta. 13.459 mila euro.
- San Markoseko (Errenteria-Gipuzkoa) hiri-hondakin solidoen zabortegia ixtea. 4.000 mila euro.

10. BESTE FINANTZAZIO-ITURRI BATZUK

Hona hemen autonomia-erkidegoko administrazioen gainerako diru-sarrerak:

- Beste intsuldaketa batzuk, beste administrazio batzuetatik jasotako diru-sarrerak, hauek eragindakoak:

  a) Foru-aldundien eta udalen partaidetza zerga ez itunduetan.

- Interceptor Arriaga-Sangróniz (Asúa), túnel de desvío del Arroyo Elguera y saneamiento de Amorebieta, con una ayuda de 24.705 miles de euros.
- Interceptores del Deba, tramos de Maltzaga-EDAR de Elgoibar, Azitain-Maltzaga y Eibar-Azitain, con una ayuda de 21.068 miles de euros.
- Estudios para la instalación de un centro de gestión de suelos contaminados en Comunidad Autónoma del País Vasco, con una ayuda de 240 miles de euros.

Por otra parte, en el tramo correspondiente a las Entidades Locales, los proyectos aprobados, agrupados también por Decisiones, y cuya gestión corre a cargo de los municipios afectados han sido los siguientes:

- Obras de saneamiento y depuración en Donostia-San Sebastián, Irún y Barakaldo, con una ayuda de 19.514 miles de euros.
- Acondicionamiento del vertedero de Artigas (Bilbao), planta de recogida y transporte neumático de residuos sólidos urbanos en Portugalete y solución al tratamiento de residuos de Getxo, con una ayuda de 19.157 miles de euros.
- Planta de tratamiento de residuos urbanos en Vitoria-Gasteiz y planta de compostaje para residuos sólidos urbanos en el Territorio Histórico de Álava, con una ayuda de 13.459 miles de euros.
- Clausura del vertedero de residuos urbanos de San Marcos en Errenteria (Gipuzkoa), con una ayuda de 4.000 miles de euros.

10. OTRAS FUENTES DE FINANCIACIÓN

El resto de ingresos de las Administraciones de la Comunidad Autónoma son:

- Otras transferencias, los ingresos recibidos de otras administraciones por:

  a) Participación de las Diputaciones Forales y Ayuntamientos en tributos no concertados.

b) Kirol eta Ongintzako Elkarrekiko Apustuen eta Estatuko Loteria eta Apustuen Organismo Nazionalaren diru-bilketaren partaidetza.

c) Estatuko administrazioekin eta Euskadiko instituzioen artean finantzaziorako egindako akordioak eta hitzarmenak.

- Tasak eta ondasunak saltzeagatik eta zerbitzuak emateagatik lortutako diru-sarrerak, eta zenbait zergaren gaineko errekarguetatik eta isunetatik lortutakoak.

- Ondarezko diru-sarrerak: balore-tituluen interesak; dibidenduak; higiezinen, emakiden eta aprobetxamenduen errentak, eta, funtsean, gordailuen interesak.

- Finantza-aktiboen aldakuntza: tituluak besterentzea eta maileguak itzultzea.

- Zorpetzea: maileguak eta zor publikoko jaulkipenak, erakunde bakoitzari dagokion mugen barruan.

- Beste batzuk: inbertsioak besterentzea.

b) Participación en la recaudación de las Apuestas Mutuas Deportivo Benéficas y del Organismo Nacional de Loterías y Apuestas del Estado.

c) Acuerdos y Convenios de financiación establecidos con las Administraciones del Estado y entre las Instituciones del País Vasco.

- Tasas y otros ingresos derivados de la venta de bienes y prestación de servicios, así como los recargos sobre determinados tributos y las multas.

- Ingresos patrimoniales: intereses de títulos valores, dividendos, renta de inmuebles, concesiones y aprovechamientos y, fundamentalmente, los intereses de depósitos.

- Variación de activos financieros: enajenación de títulos y reintegros de préstamos.

- Endeudamiento: préstamos y emisiones de deuda pública, dentro de los límites legales que corresponden a cada institución.

- Otros: enajenación de inversiones.

B ATALA
Euskadiko Ogasunaren kudeaketa 2005eko ekitaldian

PARTE B

Gestión de la Hacienda Vasca en el ejercicio 2005

III. Kapitulua
Euskadiko Ogasun Orokorra

Capítulo III
Hacienda General del País Vasco

1. SARRERA

Lege eta arau hauek, 1. artikuluan, adierazten dute Euskadiko Ogasun Orokorra Autonomia Erkidegoak dituen izaera ekonomikoko eskubide eta betebeharrek osatzen dutela: Ekainaren 22ko 12/1983 Legeak, Euskadiko Ogasun Orokorraren Printzipio Arautzaileei buruzkoak; maiatzaren 17ko 1/1998 Dekretu Legegileak (12/1983 Legea indargabetu zuen); eta azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegileak, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzekoak (1/1998 Dekretu Legegilea indargabetu zuen).

Kapitulu honetan, Euskadiko Ogasun Orokorrak 2005eko ekitaldian egindako kudeaketa aztertzen da. Lehenik eta behin, urtean zehar onartutako xedapenen aipamen laburra egiten da, eta, ondoren, kudeaketa ekonomikoaren azterketa egiten da, bi alderdi bereizita: sarrerak eta gastuak.

Sarrerak kopuruan duten garrantzia eta instituzionalki duten garrantzia kontuan hartuta sailkatu ditugu. Euskadiko Ogasun Orokorraren finantzazio-iturri nagusia foru-aldundien ekarpenak dira, Ekonomia Itunaren baliabideak erakundeen artean banatzetik datozenak; eta horiek aztertuko

1. INTRODUCCIÓN

Tanto la Ley 12/1983, de 22 de junio, de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, como los posteriores Decretos Legislativos 1/1988, de 17 de mayo, y 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco que derogaron, respectivamente, la Ley 12/1983 y el Decreto Legislativo 1/1988, establecen en su artículo 1 que la Hacienda General del País Vasco, está constituida, por el conjunto de derechos y obligaciones, de naturaleza económica, de que sea titular la Comunidad Autónoma.

En este capítulo se analiza la gestión de la Hacienda General del País Vasco en 2005. Primeramente, se realiza una breve reseña sobre las disposiciones aprobadas a lo largo del año y luego se aborda la gestión económica desde la doble vertiente de ingresos y gastos.

Los ingresos se clasifican según su relevancia cuantitativa e institucional. Las Aportaciones de las Diputaciones Forales, provenientes de la distribución entre Instituciones de los recursos del Concierto Económico, constituyen la principal fuente de financiación de la Hacienda General del

dira lehenbizi. Ondoren, Estatuko administrazioaren eta Europar Batasunaren transferentziak aztertzen dira, bai eta zorpetzea eta gainerako sarrerak ere. Aurrerago, gastuaren kudeaketa ekonomikoari buruzko atal bat dago.

Horrezaz gain, izaera instituzionaleko zenbait finantza-fluxu aztertzen dira. Ez dute eraginik Euskadiko Ogasun Orokorraren aurrekontuan, baina horien finantza-kudeaketa egin behar du. Hona hemen:

- Estatuari ordaindu beharreko kupoa. Lurralde historiko bakoitzari dagokion kopurua Ogasun Orokorrak jasotzen du, eta, ondoren, Estatuari ordainketa bateratu batean ordaintzen zaio.
- BEZagatik bildutakoa doitzea. Estatutik datozen diru-kopuruak Ogasun Orokorrak jasotzen ditu eta horrek foru-aldundiei banatzen dizkie.
- Fabrikazioko Zerga Bereziengatik bildutakoaren doiketa. Horiek ere foru-aldundien artean banatzen dira.
- Fabrikazioko Zerga Bereziak ituntzeak eragindako finantza-konpentsazioak. Kupoaren finantza-fluxuarekin batera egiten dira.

2. ARAUGINTZA

2.a. Alderdi orokorrak

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	**2004.ko likidazioa** Liquidación 2004	**I. Hiruhilekoa** Trimestre I	**II. Hiruhilekoa** Trimestre II	**III. Hiruhilekoa** Trimestre III	**IV. Hiruhilekoa** Trimestre IV	**GUZTIRA** TOTAL
ALKOHOLA / ALCOHOL	5.384	10.565	14.436	11.180	8.989	50.554
GARAGARDOA / CERVEZA	3.344	2.141	3.751	3.573	3.186	15.995
HIDROKARBUROAK / HIDROC.	-16.142	-30.906	-62.242	-48.358	-31.676	-189.324
TABAKOA / TABACO	-1.135	1.134	38.995	35.300	-3.850	70.444
GUZTIRA / TOTAL	-8.549	-17.066	-5.060	1.695	-23.351	-52.331
ARABA / ÁLAVA (16,72%)	-1.429	-2.853	-846	283	-3.904	-8.750
BIZKAIA (50,34%)	-4.304	-8.591	-2.547	853	-11.755	-26.343
GIPUZKOA (32,94%)	-2.816	-5.622	-1.667	558	-7.692	-17.238

KOADROA / CUADRO III.22

1998-2005 ALDIKO FABRIKAZIOKO ZERGA BEREZIEN DOIKETA, KONTZEPTUKA
AJUSTES IMPUESTOS ESPECIALES DE FABRICACIÓN PERÍODO 1998-2005 SEGÚN CONCEPTOS

ooo€

URTEAK AÑOS	**ALKOHOLA** ALCOHOL	**GARAGARDOA** CERVEZA	**HIDROKARBUR.** HIDROCARBUROS	**TABAKOA** TABACO	**GUZTIRA** TOTAL
1998	39.312	9.959	-156.131	184.552	77.691
1999	38.729	8.948	-159.311	189.082	77.448
2000	49.273	9.988	-174.971	103.022	-12.687
2001	40.803	10.504	-163.317	32.280	-79.730
2002	48.166	12.516	-176.868	34.844	-81.342
2003	42.510	12.758	-182.015	37.871	-88.876
2004	44.606	13.350	-187.997	67.005	-63.036
2005	50.554	15.995	-189.324	70.444	-52.331

KOADROA / CUADRO III.23

DOIKETEN BILAKAERA 1998-2005 ALDIAN
EVOLUCIÓN DE LOS AJUSTES EN EL PERÍODO 1998-2005

ooo€



GRAFIKOA / GRÁFICO III.11

DOIKETAK 1998-2005 ALDIAN, LURRALDE HISTORIKOKA
AJUSTES EN EL PERÍODO 1998-2005 SEGÚN TERRITORIOS HISTÓRICOS

ooo€

URTEAK AÑOS	**ARABA** ÁLAVA	**BIZKAIA**	**GIPUZKOA**	**EAE** CAE
1998	12.174	40.384	25.133	77.691
1999	12.113	40.087	25.248	77.448
2000	-2.025	-6.511	-4.151	-12.687
2001	-13.076	-40.399	-26.255	-79.730
2002	-13.495	-40.834	-27.013	-81.342
2003	-14.878	-44.687	-29.311	-88.876
2004	-10.483	-31.739	-20.814	-63.036
2005	-8.750	-26.343	-17.238	-52.331

KOADROA / CUADRO III.24

3.c.4. Finantza-konpentsazioak

13/2002 Legeak, Euskadiko Kupoa 2002-2006 bosturtekorako zehazteko metodologia onartzekoak, lehen xedapen gehigarrian ezartzen du 2005eko ekitaldiko behin-behineko finantza-konpentsazioak 1997ko behin-behineko konpentsazioei aldaketa-indize bat aplikatuta zehaztuko direla. Aldaketa-indizea hau izango da: fabrikazioko zerga berezietan, zerga horiek ezartzen diren lurralde osoan, 2005eko ekitaldian

3.c.4. Las compensaciones financieras

Conforme a lo establecido en la Disposición Adicional Primera de la Ley 13/2002, por la que se aprueba la metodología de señalamiento del cupo del País Vasco para el quinquenio 2002-2006, las compensaciones financieras provisionales del ejercicio 2005 se determinaron por aplicación a las compensaciones provisionales de 1997 del índice de variación resultante del cociente entre la previsión de ingresos por Impuestos

biltzea aurreikusten den kopurua zati 1997ko oinarriko urtean zerga-kontzeptu horiengatik biltzea aurreikusten zen kopurua.

Guztira, 70.956,9 mila euro izan ziren Euskadiren alde.

Especiales de Fabricación en el conjunto del territorio de aplicación de dichos Impuestos para el ejercicio 2005 y los ingresos previstos por los mismos conceptos tributarios en el año base 1997.

El total de las mismas ascendió a 70.956,9 miles de euros a favor del País Vasco.

2005EKO BEHIN-BEHINEKO FINANTZA KONPENTSAZIOAK
COMPENSACIONES FINANCIERAS PROVISIONALES PARA 2005

°°°€

	Aurrek. 1997 Presup. 1997	**Indizea** Índice	**2005 b. behineko** Provisional 2005
Alcohola / Alcohol (*)	-6.382	1,2861947	-8.208
Garagardoa / Cerveza	-1.819	1,2517909	-2.276
Hidrokarburoak / Hidrocarburos	-26.800	1,3753871	-36.861
Tabako motak / Labores Tabaco	55.404	2,1352767	118.302
GUZTIRA / TOTAL	20.403		70.957

(*) Alcohola, edari deribatuak eta tarteko prod. / Alcohol, bebidas deriv. y prod. inter.
Zeinu negatiboa duten konpentsazioak Estatuaren aldekoak dira eta zeinu positiboa dutenak, berriz, EAEren aldekoak.
Las compensaciones de signo negativo son a favor del Estado y las de signo positivo a favor del País Vasco.

Horrez gain, 2005eko maiatzean 2004ko ekitaldirako behin betiko finantza-konpentsazioak kalkulatzeari ekin zitzaion. Horretarako, aldaketa-indizearen benetako balioa aplikatu zitzaion 1997ko oinarriko urteko behin betiko konpentsazioei.

Finantza-konpentsazioak, guztira, 63.596,68 mila eurokoak izan ziren, Estatuaren aldeko 2.465,89 mila euroko saldoa, alegia.

Asimismo, en el mes de mayo de 2005 se procedió al cálculo de las compensaciones financieras definitivas para 2004, por aplicación del valor real del índice de variación a las compensaciones definitivas del año base 1997.

El importe total de las compensaciones financieras ascendió a 63.596,68 miles de euros, que dio lugar a un saldo de 2.465,89 miles de euros favorable al Estado.

2004KO BEHIN BETIKO FINANTZA KONPENTSAZIOAK
COMPENSACIONES FINANCIERAS DEFINITIVAS PARA 2004

°°°€

	1997 b. betiko Definit. 1997	**Indizea** Índice	**2004 b. betiko Definit. 2004**	**Aurrek. 2004** Presup. 2004	**2004 likid.** Liquid 2004
Alcohola / Alcohol (*)	-5.829	1,3536913	-7.890	-8.083	193
Garagardoa / Cerveza	-1.551	1,4278411	-2.215	-2.179	-36
Hidrokarburoak / Hidrocarburos	-27.095	1,3111901	-35.527	-35.582	55
Tabako motak / Labores Tabaco	57.762	1,8909957	109.229	111.907	-2.678
GUZTIRA / TOTAL	23.287		63.597	66.063	-2.466

(1) Alcohola, edari deribatuak eta tarteko produktoak / Alcohol, bebidas derivadas y productos intermedios
Zeinu negatiboa duten konpentsazioak Estatuaren aldekoak dira eta zeinu positiboa dutenak, berriz, EAEren aldekoak
Las compensaciones de signo negativo son a favor del Estado y las de signo positivo a favor del País Vasco

2005erako behin-behineko finantza-konpentsazioen ordainketa eta diru-sarrerak —eta 2004ko likidazioa— 2005eko kupoa ordaintzeko maiatzeko, iraileko eta abenduko epeetan egin ziren (III. 25 koadroan jasota daude). Lurralde historikoka

Los pagos e ingresos de las compensaciones financieras provisionales para 2005, así como la liquidación para 2004, se hicieron efectivos en los plazos de pago del cupo para 2005, mayo, septiembre y diciembre, según se recoge en el Cuadro III.25.

nola banatu ziren adierazten du III.26 koadroak.

Asimismo, en el Cuadro III.26 se muestra su distribución por Territorios Históricos.

2005KO FINANTZA KONPENTSAZIOEN EPEAK
PLAZOS DE PAGO DE LAS COMPENSACIONES FINANCIERAS 2005

ooo€

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	**MAIATZA** MAYO	**IRAILA** SEPTIEMBRE	**ABENDUA** DICIEMBRE	**GUZTIRA** TOTAL
2005EKO BEHIN-BEHINEKO FINANTZA KONPENTSAZIOAK COMP. FINANCIERAS PROVISIONALES 2005	23.652,30	23.652,30	23.652,30	70.956,90
2004KO FINANTZA KONPENTSAZIOEN LIKIDAZIOA LIQUIDACIÓN COMP. FINANCIERAS 2004	-2.465,89			-2.465,89

KOADROA / CUADRO III.25

2005EKO FINANTZA KONPENTSAZIOAK. LURRALDE HISTORIKOAK
COMPENSACIONES FINANCIERAS 2005 POR TERRITORIOS HISTORICOS

ooo€

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	**ARABA** ÁLAVA	**BIZKAIA**	**GIPUZKOA**	**EAE** CAE
Koefiziente horizontalak Coeficientes horizontales	16,72%	50,34%	32,94%	100,00%
2005EKO BEHIN-BEHINEKO FINANTZA KONPENTSAZIOAK COMPENSACIONES FINANCIERAS PROVISIONALES 2005	11.863,99	35.719,70	23.373,20	70.956,90
2004KO FINANTZA KONPENTSAZIOEN LIKIDAZIOA LIQUIDACIÓN COMPENSACIONES FINANCIERAS 2004	-412,30	-1.241,33	-812,26	-2.465,89

KOADROA / CUADRO III.26

IV. Kapitulua
Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Ogasunak

Capítulo IV
Haciendas Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa

1. SARRERA

Lurralde historikoetako erakundeek zerga-alorrean dituzten eskumenak azaldu ditugu I. kapituluan, bai zerga-arauak emateko, bai zergen ordainarazpena egiteko. IV. kapitulu honetan, berriz, xeheki azalduko dugu nola erabili dituzten foru-ogasunek eskumen horiek.

Lehenik eta behin, arau-berrikuntzak azalduko ditugu, eta, ondoren, zerga nagusien kudeaketari buruzko estatistikak adieraziko dira. Horiekin batera, zerga-ikuskapenari eta agentzia exekutiboari buruzko datuak emango dira.

Aurrerago, foru-ogasunen kudeaketa ekonomikoa aztertzen da, batik bat, zergen bilketaren alorrean, eta, amaitzeko, Auzitegi Ekonomiko Administratiboen aipamen laburra egiten da.

2. ARAUGINTZA

Auzitegi Gorenak 2004ko abenduaren 9an

1. INTRODUCCIÓN

Una vez expuestas y comentadas en el Capítulo I las competencias de las Instituciones de los Territorios Históricos en materia tributaria, tanto desde el punto de vista normativo como exaccionador, en este Capítulo se trata de exponer la utilización de estas competencias por las Haciendas Forales.

De este modo, se exponen, primeramente, las principales novedades normativas incorporadas y, posteriormente, se detallan las estadísticas correspondientes a la gestión tributaria de los principales tributos. También se ofrecen datos sobre la actividad de la inspección de los tributos y de la agencia ejecutiva.

Más adelante, se analiza la gestión económica de las Haciendas Forales, con especial atención a los aspectos recaudatorios, para finalizar el Capítulo con una breve referencia a los Tribunales Económico-Administrativos.

2. ACTIVIDAD NORMATIVA

Durante el año 2005 y tras la Sentencia del

emandako epaiak baliogabe utzi zituen Sozietateen gaineko Zerga arautzen zuten zenbait foru-arau, eta, ondorioz, 2005ean, foru-erakundeen egiteko nagusia zerga horren arau-esparrua berregitea izan zen. Epaiaren berri izan ondoren, aurrena, zergadunen eskubideak eta bermeak babesteari ekin zioten foru-aldundiek. Horretarako, zerga-alorreko foru-arau orokorrak eman zituzten, epaiak atzeraeraginik izan ez zezan.

Tribunal Supremo de 9 de diciembre de 2004 que declara la nulidad de varios artículos de las normas forales reguladoras del Impuesto sobre Sociedades, el principal foco de atención en el ámbito normativo se centro en la reconstrucción del marco regulador del Impuesto. La primera reacción de las diputaciones forales para proteger los derechos y garantías de los contribuyentes consistió en garantizar la no retroacción de la Sentencia, lo que se instrumentó a través de las normas forales generales tributarias.

Gerora, foru-erakundeek zenbait arau eman dituzte, Sozietateen gaineko Zergaren araudian sortutako hutsunea betetzeko. Arau horien xedea izan da baliogabetutako arauak berridaztea eta arau horiek jada sortuta eta preskribatu gabe dauden zergaldietan izango duten eraginak finkatzea, harik eta Sozietateen gaineko Zergaren araudia berritzen den arte. Arau hauek eman dira: Araban, Zerga Araugintzako 2/2005 Premiazko Dekretua, Diputatuen Kontseiluak maiatzaren 24an emandakoa, 24/1996 Foru Araua (uztailaren 5ekoa, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa) aldatzen duena, eta 2/2005 baliozkotze-erabakiaren bidez baliozkotua izan zena; Bizkaian, 2005eko Foru Dekretu Arauemailea, onartzeko tramitean; eta, Gipuzkoan, 32/2005 Foru Dekretua, maiatzaren 24koa, 7/1996 Foru Arauaren (uztailaren 4koa, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa) hainbat xedapen aldatzen dituena.

En segundo lugar, para cubrir el vacío normativo originado por la anulación de los preceptos del Impuesto sobre Sociedades, las Instituciones Forales han aprobado sendas disposiciones (Álava: Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 2/2005, del Consejo de Diputados de 24 de mayo, que modifica la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, convalidado mediante Acuerdo de convalidación 2/2005. Bizkaia: Norma Foral de Medidas Tributarias en 2005, en trámite de aprobación. Gipuzkoa: Decreto Foral 32/2005, de 24 de mayo, por el que se modifican determinados preceptos de la Norma Foral 7/1996, de 4 de julio, del Impuesto sobre Sociedades) que, con carácter transitorio hasta tanto se acometa una reforma en más profundidad del Impuesto, redactan nuevamente los referidos preceptos anulados y señalan los efectos que conlleva la nueva regulación con respecto a periodos impositivos ya devengados y no prescritos.

2005eko martxoan argitaratu ziren lurralde historikoetako zergen foru-arau orokorrak, lurralde erkidean berritutako lege orokorra (58/2003 Legea, abenduaren 17koa) baino nahiko geroago: Araban, Arabako Lurralde Historikoko Zergen 6/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa; Bizkaian, martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa; eta, Gipuzkoan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua).

Durante el mes de marzo de 2005 vieron la luz, con notable retraso respecto de la reforma operada en territorio común por la Ley 58/2003, de 17 de diciembre, General Tributaria las respectivas Normas Forales Generales Tributarias de los Territorios Históricos de Álava (Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava), Bizkaia (Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia) y Gipuzkoa (Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa).

Arau horien bidez, zergak kudeatzeko modu berrietara egokitu zen foru-araudia, zergen egitura hobetzeko ahalegina egin, eta zerga-

Además de poner al día la normativa de acuerdo con una manera más actual de gestionar los tributos, las nuevas normas

zuzenbide orokorra sistematizatzeko urrats handia eman zen. Horrez gain, foru-araupenik ez zuten zenbait alderdi arautu ziren.

Foru-erakundeek, halaber, beste zerga-xedapen batzuk eman dituzte; esaterako, jokoaren gaineko zerga arautzeko foru-arauak, fakturatzeko obligazioak, jardueren zehaztapena eta mezenasgoko lehentasuneko programak arautzeko foru-dekretuak, eta foru-araudiak Estatuko Administrazioak onartutako xedapenetara egokitzeko arauak, lurralde historikoek arautu ezin dituzten zerga-alderdiei buruzkoak. Halaber, foru-erakundeek beste xedapen ugari eman dituzte, gehienak erregelamendu-mailakoak.

3. ZERGEN KUDEAKETA

3.a. Zerga zuzenen kudeaketa

3.a.1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.

a. Araudia

Abuztuaren 4ko 38/1997 Legeak zenbait aldaketa egin zizkion Ekonomia Itunari, eta foru-araudiak aldaketa horretara egokitu ondoren, lurralde historikoek PFEZa arautzeko gaitasun osoa lortu zuten; izan ere, aldaketa hori egin aurretik oso murriztua zuten hura kudeatzeko eta biltzeko gaitasuna.

Egoera berri hori arautzeko onartu ziren, 1998aren amaieran, PFEZari buruzko foru-arau berriak, eta, gerora, urtez urte argitaratu izan dira horien arauzko garapena egiteko foru-dekretuak. Horiek horrela, hauxe da PFEZaren oinarrizko foru-araudia:

Araba

- 35/1998 Foru Araua, abenduaren 16koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa.

tratan de mejorar su estructura y suponen un gran avance en la sistematización del derecho tributario general. Asimismo, regulan algunos aspectos que anteriormente carecían de regulación específica foral.

Otras disposiciones tributarias aprobadas por las instituciones forales son las Normas Forales por las que se regula el Tributo sobre el Juego, los Decretos Forales por los que se regulan las obligaciones de facturación, la determinación de actividades o programas prioritarios de mecenazgo o la adaptación de la normativa foral a determinadas disposiciones aprobadas en el ámbito de la Administración del Estado y que se refieren a aspectos tributarios sobre los que los territorios históricos carecen de capacidad normativa. Asimismo, la producción normativa foral se completa con una nutrida batería de disposiciones, la mayor parte de rango reglamentario.

3. GESTIÓN TRIBUTARIA

3.a. Gestión de Impuestos Directos

3.a.1. Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

a. Normativa

La adaptación de la normativa tributaria de los Territorios Históricos a la modificación del Concierto Económico, realizada por la Ley 38/1997, de 4 de agosto, hizo que las Diputaciones Forales, que hasta entonces gestionaban y recaudaban el Impuesto con una capacidad normativa muy limitada, pasaran a tener plena capacidad normativa.

Esta nueva situación se materializó en la aprobación de nuevas Normas Forales del Impuesto a finales del año 1998 y a lo largo de los años siguientes se fueron publicando en cada uno de los Territorios Históricos los diferentes Decretos Forales de desarrollo reglamentario. Así, la normativa foral básica de este Impuesto es la siguiente:

Álava

- Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

- 111/2001 FORU DEKRETUA, abenduaren 18ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Petsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiaren testu bateratua onetsi eta atxikipen eta moduluen taula aldatzen da.

Bizkaia

- 10/1998 Foru Araua, abenduaren 21ekoa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa.

- 132/2002 Foru Dekretua, uztailaren 29koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi duena.

Gipuzkoa

- Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari Buruzko Abenduaren 24ko 8/1998 Foru Araua.

- Abenduaren 18ko 68/2001 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena.

PFEZaren araudi berria egiteko, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak prestatutako "EAEn PFEZa aldatzeko proposamena" agiria hartu zen oinarritzat. Eragile ekonomikoek, gizarte-eragileek eta alderdi politikoek parte hartu zuten agiri horri buruzko eztabaidan. Prozesu horren ondoren, zerga harmonizatu bat arautzea lortu zen, alde txikiak zituena hiru lurralde historikoetan.

2000. urtearen amaieran, foru-aldundiek zenbait aldaketa onartu zituzten. Aldaketa horiek pisuzkoak eta eragin handikoak izan ziren zerga horren bilketan, eta, ondorioz, zergaren aldaketako bigarren fasetzat jotzen dira. Hauek dira 2001etik aurrera indarrean jarri ziren neurri aipagarrienak:

- 420,71 euroko igoera lineala aplikatu zitzaien laneko hobariei.

- Nabarmen handitu ziren zerga batera ordaintzeagatiko murrizketaren zenbatekoak eta ondorengoengatiko kenkarien zenbatekoak.

- Decreto Foral 111/2001, del Consejo de Diputados de 18 de diciembre, que aprueba el texto refundido del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y modifica la tabla de retenciones y módulos.

Bizkaia

- Norma Foral 10/1998, de 21 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

- Decreto Foral 132/2002, de 29 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Gipuzkoa

- Norma Foral 8/1998, de 24 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

- Decreto Foral 68/2001, de 18 de diciembre, por el que aprueba el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

La nueva regulación del IRPF se basó en el documento elaborado por el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi, "Propuesta de Reforma del IRPF en el País Vasco", que fue sometido a debate con los agentes económicos y sociales, además de las diferentes fuerzas políticas. De este modo se consiguió obtener un Impuesto armonizado, con mínimas diferencias entre los tres Territorios Históricos.

A finales de 2000, las Diputaciones Forales aprobaron un conjunto de modificaciones que, por su alcance e incidencia recaudatoria, se calificaron en su conjunto como una segunda fase en la reforma del Impuesto. A continuación se hace una reseña de las medidas más importantes vigentes a partir de 2001:

- Incremento lineal de 420,71 euros lineales de las bonificaciones al trabajo.

- Incrementos sustanciales en la reducción por tributación conjunta y las deducciones por descendientes.

- Alokairuan bizitzeagatiko eta ohiko etxebizitza eskuratzeagatiko kenkariak ehuneko 5 eta ehuneko 10 igo ziren, hurrenez hurren.

- Se elevó en 5 y 10 puntos porcentuales las deducciones por alquiler y adquisición de vivienda habitual, respectivamente.

- Zerga-tasen eskala berriak onartu ziren, eta % 3ko eguneratzea egin zen Araban eta Bizkaian, eta % 2koa Gipuzkoan. Horrela, zergaren tarifa harmonizatu zen hiru lurraldeetan.

- Se aprobó una nueva escala impositiva, actualización en un 3% en Álava y Bizkaia y en un 2% en Gipuzkoa, quedando armonizada la tarifa del Impuesto en los tres territorios.

Zerga-tasen eskalak, murriztapenak eta kenkariak eguneratuta, pentsio-planetara eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetara (BGAE) egindako murriztapenen zenbait muga kendu ziren 2002an. Etxebizitzak alokatzeagatik lortutako etekinen % 10eko kenkari berria aplikatu zen kuotan. Era berean, norberaren laneko etekinen gaineko atxikipen-taula berriak sortu ziren.

Además de las actualizaciones de la escala impositiva, las reducciones y las deducciones, en 2002, se suprimieron determinados límites a las reducciones por aportaciones a planes de pensiones y Entidades de Previsión Social Voluntaria (EPSVs). También, se creó una nueva deducción en cuota del 10% sobre los rendimientos obtenidos por arrendamientos de viviendas. Al mismo tiempo, se establecieron nuevas tablas de retenciones sobre los rendimientos del trabajo personal.

2003an, Eusko Legebiltzarrak onartutako 2/2003 Legearen bidez, ezkondutako bikoteen tratamendu fiskalari parekatu zen izatezko bikoteen zerga-tratamendua.

En 2003, mediante la Ley 2/2003 aprobada por el Parlamento Vasco, se produjo la equiparación en el tratamiento fiscal de las parejas de hecho respecto a las parejas unidas por matrimonio.

Urte horretan bertan jarri ziren indarrean, lurralde historikoetako zergadun guztientzat, arau-aldaketa hauek:

En ese mismo año, también entraron en vigor cambios normativos para todos los contribuyentes de los Territorios Históricos:

Tarifa berri bat arautu zen, eta, ondorioz, tasa-tarteetako tasa marjinalak bi puntu jaitsi ziren; horrela, gutxieneko tasa marjinala % 15ean finkatu zen (lehen, % 17koa zen) eta gehieneko tasa % 48an (lehen, % 50ekoa zen).

Una nueva tarifa en la que todos los tipos marginales de los distintos tramos cayeron dos puntos, pasando al 15% el tipo marginal mínimo (antes 17%) y al 48% el tipo marginal máximo (antes 50%).

Handitu egin ziren laneko etekinen hobariak (325,00 euro gehiago), zero tarifako errenta-tartea eta zerga batera ordaintzeagatiko murriztapena. Halaber, igo egin ziren kuotako kenkarien zenbatekoa ondorengoengatik, ezintasunak dituzten pertsonak kargupean izateagatik eta ohiko bizilekua alokairukoa izateagatik, eta, gainera, kide ugariko familiengatiko kenkaria sortu zen.

Se incrementaron las bonificaciones de los rendimientos del trabajo (en 325,00 euros), el tramo a tipo cero de la tarifa y la reducción por tributación conjunta, así como las deducciones en cuota por descendientes, discapacitados y alquiler de vivienda habitual o introduciendo el supuesto de familias numerosas.

Kenkari berriak sortu ziren; hala nola, nazioarteko adopzioengatik (600,00 euro), 65 urte eta 75 urte baino gehiago

También se introdujeron nuevas deducciones en cuota: por adopción internacional (600,00 euros), por

izateagatik (200,00 eta 400,00 euro, hurrenez hurren) eta jarduera ekonomikoei ekiteko gordailuak egiteagatik (gordailatutako zenbatekoen % 10ekoa).

contribuyente mayor de 65 años y 75 años de edad (200,00 y 400,00 euros respectivamente) y por depósitos para el inicio de actividad económica (10% de las cantidades depositadas).

Halaber, % 15era jaitsi zen urtebetetik gora sortutako ondare-irabaziei aplikatu beharreko tasa berezia eta kapital higikorreko errendimenduen atxikipena, eta kendu egin zen inbertsio-funtsen partaidetzak eskualdatu eta horiek berriro inbertitzeagatik ordaindu beharreko ordainsari fiskala.

Por otra parte, se redujo al 15% el tipo especial aplicable a las ganancias patrimoniales generadas en más de un año y a las retenciones sobre los rendimientos de capital mobiliario, se suprimió el peaje fiscal en la transmisión y posterior reinversión de participaciones en fondos de inversión.

Hauek izan dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araubideak 2004an izan zituen aldaketa nagusiak:

Los principales cambios normativos que han afectado a la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del ejercicio 2004 han sido las siguientes:

Zerga ordaintzetik salbuesten dira jaiotzagatiko, erditze anitzengatiko, adopzioengatiko, amatasunagatiko eta kargupeko seme-alabengatiko laguntzak eta ikasketetarako beken zenbatekoak.

Se declaran exentas las ayudas públicas por nacimiento, parto múltiple, adopción, maternidad e hijo al cargo; así como las becas para cursar estudios.

Ez dira gauzazko ordainsaritzat jotzen baimendutako hezkuntza-zentroek langileen seme-alabei emandako hezkuntza-zerbitzuak.

No se considerarán retribución en especie la prestación por centros educativos autorizados de los servicios de educación a hijos de los trabajadores.

Atxikipenak eta konturako ordainketak egitetik salbuesten dira atzerriko herrialdeek Espainian dituzten misio diplomatikoak eta kontsul-bulegoak.

Se exime de la práctica de retención e ingreso a cuenta a las misiones diplomáticas u oficinas consulares extranjeras en España.

Aurrezki-kutxetako partaidetza-kuotetara zabaltzen da sozietateen akzio eta partaidetzetarako araudia.

La normativa dispuesta para las acciones y participaciones en sociedades se extiende a las cuotas participativas en Cajas de Ahorros.

Kenkari pertsonalak eta familiarrak aplikatzeko aintzat hartu behar diren gertakarien baloraziotik kendu egiten da, oro har, gertakari horiek gertatu direneko urte naturaleko egunari erreparatuta egiten zen hainbanaketa; hau da, kendu egin zen kenkarien hainbanaketa. Horrenbestez, zergadunek kenkaria izateko eskubidea duten ala ez finkatzeko, zerga ordaintzeko betebeharra sortu zen eguneko egoera pertsonalei erreparatzen zaie.

Con carácter general, se suprime, en la determinación de las circunstancias personales y familiares que deben tenerse en cuenta a efectos de la aplicación de las deducciones personales y familiares, la regla del cálculo proporcional al número de días del año natural en que se hubiesen dado las circunstancias exigidas para la aplicación de la deducción, denominada prorrateo de las deducciones, para establecerse que el derecho a la deducción se realizará atendiendo a la situación existente en la fecha de devengo del impuesto.

Izatezko bikoteen zerga-tratamendua egokitzeaz gain, jarduera ekonomikoei ekiteko kreditu-erakundeetan egindako gordailuengatiko kenkari bat sortu zen, eta gauzazko ordainketen zerrendatik atera zen hezkuntza-zentroetako langileen seme-alabei emandako haur-hezkuntzako zerbitzua.

Irabazi-asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako pizgarrien erregimen fiskalari buruzko foru-arauak onartuta, handitu egin ziren horiek PFEZan zituzten kenkari-ehunekoak:

Mezenasgorako dohaintzen eta lehentasunezko jardueren kenkariak % 20tik % 30era igo ziren.

Zenbatespen zuzeneko erregimenpeko zergadunek lehentasunezko jardueretarako egindako ekarpenen kenkaria % 15etik % 18ra igo zen.

b. Aitorpen-kopurua

Zergadunek, 2005. urtean, 1.030.619 aitorpen egin zituzten, 2004 zerga-ekitaldiko sarrerak aitortzeko; beraz, aurreko ekitaldian baino 14.135 aitorpen gehiago egin zirenez, aitorpenen kopurua % 1,4 igo zen.

Igoera horrek eutsi egiten dio azken urteetan hautematen den goranzko joerari, alde batera utzita 1999ko ekitaldiko salbuespen nabarmena (ekitaldi horretan % 6,9 jaitsi zen aitorpenen kopurua).

Además de la adecuación del tratamiento de las parejas de hecho, se desarrolla la deducción por depósitos en entidades de crédito para la inversión en el inicio de una actividad económica, y la no consideración como retribución en especie de las cantidades destinadas al servicio de la educación infantil a hijos de trabajadores.

Tras la aprobación de las Normas Forales sobre el régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, a efectos del IRPF se aumentan los porcentajes de deducción:

Donaciones al mecenazgo y actividades prioritarias, suben del 20% al 30%.

Cantidades aportadas a actividades prioritarias por contribuyentes en estimación directa, suben del 15% al 18%.

b. Número de declaraciones

En el año 2005 se presentaron 1.030.619 declaraciones referidas al ejercicio impositivo 2004. Esto significó un aumento del 1,4% respecto a las presentadas en el ejercicio anterior, es decir, 14.135 declaraciones más.

Este aumento supone confirmar la tendencia de incrementos quebrada en 1999, cuando se produjo un descenso del 6,9%.

PFEZ. EUSKAL AE / IRPF. C.A. DE EUSKADI

AITORPEN-KOPURUAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOKA

EVOLUCIÓN DEL Nº DE DECLARACIONES POR TERRITORIOS HISTÓRICOS

	ARABA ÁLAVA	**BIZKAIA**	**GIPUZKOA**	**EUSKAL AE** C.A. DE EUSKADI
1999	137.022	486.382	291.218	914.622
2000	141.415	490.241	304.398	936.054
2001	145.049	507.977	316.156	969.182
2002	147.726	517.341	328.735	993.802
2003	151.155	528.907	336.422	1.016.484
2004	154.589	533.022	343.008	1.030.619
% 00/99	3,2	0,8	4,5	2,3
% 01/00	2,6	3,6	3,9	3,5
% 02/01	1,8	1,8	4,0	2,5
% 03/02	2,3	2,2	2,3	2,3
% 04/03	2,3	0,8	2,0	1,4

KOADROA / CUADRO IV.1

Aitorpenen % 51,7 Bizkaian egin ziren, % 33,3 Gipuzkoan eta % 15 Araban. Ehuneko horiek ez zuten alde handirik erakutsi aurreko ekitaldietakoekiko, baina agerian utzi zuten ehunekoak gora egin duela Gipuzkoan, Bizkaiaren aldean.

EAEko zergadun gehienek banakako aitorpenak egin dituzte, eta aitorpen-mota horren joera, aurreko ekitaldiekiko, goranzkoa da. Hala, aitorpenen % 29 soilik dira baterakoak.

Del total de declaraciones presentadas, el 51,7% correspondieron a Bizkaia, el 33,3% a Gipuzkoa y el 15% a Álava, valores muy similares a los de ejercicios anteriores, pero que, sin embargo, pusieron de manifiesto que Bizkaia pierde peso en favor de Gipuzkoa.

La opción de tributación individual es la mayoritaria entre los contribuyentes de la Comunidad Autónoma con una tendencia creciente, generada en ejercicios anteriores, y que va en detrimento de la declaración conjunta que queda relegada al 29% de las declaraciones.

EUSKAL AE. PFEZ / 2004 / IRPF. C.A. DE EUSKADI

AITORPEN-KOPURUAREN BILAKAERA

EVOLUCIÓN DEL NÚMERO DE DECLARACIONES



GRAFIKOA / GRÁFICO IV.1

Familia-unitate bateko kide izanda, baterako aitorpena egitea hautatu zuten zergadunek 297.749 aitorpen aurkeztu zituzten hiru lurraldeetan; hau da, 2003 ekitaldian baino % 0,6 gutxiago.

Los contribuyentes que perteneciendo a una unidad familiar optan por la modalidad de tributación conjunta presentaron 297.749 declaraciones en los tres Territorios Históricos, un 0,6% menos que en el ejercicio 2003.

Hain justu, 2003 ekitaldian jarri zen indarrean izatezko bikoteen zerga-tratamenduari buruzko arauak, eta lehen aldiz eman zitzaien bikote horiei baterako aitorpenak egiteko aukera. Ekitaldi horretan, % 2 igo zen, aurreko ekitaldiarekiko, baterako aitorpenen kopurua EAEn; hala ere, nabarmentzekoa da igoera hori % 5,5ekoa izan zela Gipuzkoan. Aukera berri hori indarrean jarrita, baterako aitorpenen kopuruak behera egin zuen ekitaldi horretatik aurrera.

Precisamente, en el ejercicio 2003 entró en vigor la regulación fiscal de las parejas de hecho permitiendo la opción de declaración conjunta a las mismas por primera vez. Esta modalidad de tributación incremento el número de declaraciones ese ejercicio con respecto al anterior, en un 2% en el conjunto del País Vasco, destacando por territorios Gipuzkoa con un crecimiento superior al 5,5 %. Una vez establecida la nueva opción, el número de declaraciones conjunta empieza a disminuir de nuevo.

PFEZ / 2004 / IRPF
AITROPEN-KOPURUAREN BANAKETA PORTZENTUALA LURRALDE HISTORIKOKA
DISTRIBUCIÓN PORCENTUAL DEL Nº DE DECLARACIONES POR TERRITORIOS HISTÓRICOS

%



GRAFIKOA / GRÁFICO IV.2

Aitorpenen % 71 dira banakakoak, eta banakako aitorpenak aurkeztutako zergadunen % 32,5 dira familia-unitateren bateko kide.

El 71% de las declaraciones optan por la tributación individual. De éstas, el 32,5% corresponden a contribuyentes incluidos en una unidad familiar.

PFEZ / 2004 / IRPF

AITORPEN-KOPURUA LURRALDE HISTORIKO, EMAITZA ETA MOTAREN ARABERA

Nº DE DECLARACIONES POR TERRITORIOS HISTÓRICOS, RESULTADOS Y TIPO

	ARABA ÁLAVA		**BIZKAIA**		**GIPUZKOA**		**EUSKAL AE** C.A. DE EUSKADI		
	KOP. / Nº	%	KOP. / Nº	%	KOP. / Nº	%	KOP. / Nº	%	
Familia unitatean sartu gabeko zergadunak	65.709	42,5	194.954	36,6	136.934	39,9	397.597	38,6	Contribuy. no incluidos en una unidad familiar
Familia unitatean sartutako zergadunak	88.880	57,5	338.068	63,4	206.074	60,1	633.022	61,4	Contribuyentes incluidos en una unidad familiar
- Batera	40.490	26,2	162.215	30,4	95.044	27,7	297.749	28,9	- Conjunta
- Banaka	48.390	31,3	175.853	33,0	111.030	32,4	335.273	32,5	- Individual
Aitorpenak guztira	154.589	100,0	533.022	100,0	343.008	100,0	1.030.619	100,0	**Total declaraciones**
Positiboak	30.967	20,0	112.227	21,1	76.280	22,2	219.474	21,3	Positivas
Negatiboak	980	0,6	1.686	0,3	1.470	0,4	4.136	0,4	Negativas
Itzultzekoak	122.642	79,3	419.109	78,6	265.258	77,3	807.009	78,3	A devolver

KOADROA / CUADRO IV.2

IV.3 koadroan ikus daiteke aitorpen-kopuruak 1999tik 2004ra izandako bilakaera, aitorpen-motei erreparatuta.

Bilakaera-datuek argi adierazten dute banakako aitorpenen kopuruek gora egin dutela, baterako aitorpenen kaltetan. Aitorpenak banaka egiteko joera dute familia-unitateetako kide diren zergadunek, eta 2003 ekitaldian soilik igo zen aitorpen-mota hori hautatu zuten zergadunen kopurua hiru lurralde historikoetan, ekitaldi horretan eman baitzitzaien baterako aitorpenak egiteko aukera izatezko bikoteek osatutako familia-unitateei.

En el Cuadro IV.3, se recoge la evolución, según tipos de tributación, del número de declaraciones entre 1999 y 2004.

Los datos de la serie muestran una clara tendencia al aumento de la opción de tributación individual en detrimento de la tributación conjunta. Los contribuyentes incluidos en una unidad familiar tienden a tributar de forma individual y solo en el ejercicio 2003, cuando se abre la opción de tributación conjunta a las nuevas unidades familiares formadas por parejas de hecho, el número de declaraciones de esta modalidad ve incrementado su número en los tres Territorios Históricos.

PFEZ. EUSKAL AE / IRPF. C.A. DE EUSKADI

AITORPEN-KOPURUAREN BILAKAERA MOTA ETA LURRALDE HISTORIKOKA

EVOLUCIÓN DEL NÚMERO DE DECLARACIONES POR TIPO Y TERRITORIOS HISTÓRICOS

	ARABA ÁLAVA		**BIZKAIA**		**GIPUZKOA**		**EUSKAL AE C.A. DE EUSKADI**	
	BKA./INDIV.	BRA./CONJ.	BKA./INDIV.	BRA./CONJ.	BKA./INDIV.	BRA./CONJ.	BKA./INDIV.	BRA./CONJ.
1999	94.075	42.947	313.139	173.243	197.497	93.721	604.711	309.911
2000	99.168	42.247	320.627	169.614	211.922	92.476	631.717	304.337
2001	103.696	41.353	350.049	157.928	225.014	91.142	678.759	290.423
2002	107.185	40.541	354.354	162.987	238.655	90.080	700.194	293.608
2003	110.337	40.818	365.317	163.590	241.305	95.117	716.959	299.525
2004	114.099	40.490	370.807	162.215	247.964	95.044	732.870	297.749
% 00/99	5,4	-1,6	2,4	-2,1	7,3	-1,3	4,5	-1,8
% 01/00	4,6	-2,1	9,2	-6,9	6,2	-1,4	7,4	-4,6
% 02/01	3,4	-2,0	1,2	3,2	6,1	-1,2	3,2	1,1
% 03/02	2,9	0,7	3,1	0,4	1,1	5,6	2,4	2,0
% 04/03	3,4	-0,8	1,5	-0,8	2,8	-0,1	2,2	-0,6

KOADROA / CUADRO IV.3

EUSKAL AE. PFEZ / 2004 / IRPF. C.A. DE EUSKADI

AITORPEN-KOPURUAREN EGITURAREN BILAKAERA MOTAKA

EVOLUCIÓN DE LA ESTRUCTURA DEL NÚMERO DE DECLARACIONES POR TIPO



GRAFIKOA / GRÁFICO IV.3

c. Likidazio-oinarriaren, kuota osoaren eta kuota likidoaren banaketa

Likidazio-oinarri orokorra eta berezia batuta lortzen da likidazio-oinarria. Likidazio-oinarri orokorra kalkulatzeko, murriztapen hauek egin behar zaizkio zerga-oinarri orokorrari, azaldutako ordenari jarraituz (zergadunaren errenta osoa da zerga-oinarria, urtebetetik gora sortutako ondarezko irabaziak eta galerak aintzat hartu gabe):

- ezkontideari ordaindutako konpentsazio-pentsioak eta urtero mantenurako emandako zenbatekoak, denak ere epaileen erabakiz finkatuak (ez dira aintzat hartzen zergadunaren seme-alaben aldekoak),

- mutualitateei, pentsio-planei eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei (BGAE) egindako ekarpenak, eta

- baterako aitorpeneko murriztapena.

Murriztapen horiek aplikatuta, konpentsazio-pentsioen eta mantenurako zenbatekoen kasuan izan ezik, ezin da zerga-oinarri negatiborik lortu edo hura handitu, eta, negatiboa izatekotan, hurrengo lau urteetan konpentsatzeko aukera izango da.

c. Distribución de la base liquidable, cuota íntegra y cuota líquida

La base liquidable resulta de la suma de las base liquidables general y especial. La base liquidable general se obtiene al descontar de la base imponible general, formada por la totalidad de la renta del contribuyente (salvo las ganancias y pérdidas patrimoniales generadas en más de un año), las siguientes reducciones y en este orden:

- por abono de pensiones compensatorias a favor del cónyuge y anualidades por alimentos satisfechas por decisión judicial (excepto las fijadas a favor de los hijos del contribuyente),

- por aportaciones a mutualidades, planes de pensiones y Entidades de Previsión Social Voluntaria (EPSVs), y

- por tributación conjunta.

La aplicación de estas reducciones, a excepción de la relativa a pensiones compensatorias y anualidades por alimentos, no puede originar una base liquidable negativa ni tampoco su incremento, pudiéndose compensar, caso de ser negativa, en los cuatro años siguientes.

Bestalde, likidazio-oinarri bereziaren zenbatekoa bat dator zerga-oinarri bereziaren zenbatekoarekin; hau da, urtebetetik gorako epean sortutako ondarezko galerek eta irabaziek osatzen dute; hala ere, kasu honetan aukera dago aurreko ekitaldietako likidazio-oinarri berezi negatiboak konpentsatzeko, horiek sortu ondorengo lau urteetan.

Por otro lado, la base liquidable especial es coincidente con la base imponible especial, formada por las ganancias y pérdidas patrimoniales generadas en más de un año, si bien también pueden compensarse las bases liquidables especiales negativas de ejercicios anteriores en los cuatro años siguientes a su obtención.

LIKIDAZIO-OINARRIAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOKA
EVOLUCIÓN DE LA BASE LIQUIDABLE POR TERRITORIOS HISTÓRICOS

ººº €

	ARABA ÁLAVA	**BIZKAIA**	**GIPUZKOA**	**EUSKAL AE** C.A.EUSKADI
1999	1.897.191	6.993.664	4.246.403	13.137.259
2000	2.140.088	7.663.047	4.820.510	14.623.646
2001	2.295.936	8.227.053	5.235.857	15.758.846
2002	2.430.737	8.641.616	5.535.925	16.608.278
2003	2.571.649	9.139.663	5.864.870	17.576.182
2004	2.778.936	9.632.173	6.276.660	18.687.769
% 00/99	12,8	9,6	13,5	11,3
% 01/00	7,3	7,4	8,6	7,8
% 02/01	5,9	5,0	5,7	5,4
% 03/02	5,8	5,8	5,9	5,8
% 04/03	8,1	5,4	7,0	6,3

KOADROA / CUADRO IV.4

2004ko likidazio-oinarria 18.600 milioi eurotik gorakoa izan zen; hau da, 2003koa baino % 6,3 handiagoa. Zenbatekoak gora egiten ari dira hiru lurraldeetan, baina nabarmentzekoak dira Gipuzkoako eta Arabako igoerak, % 7koa eta % 8tik gorakoa izan baitira, hurrenez hurren.

La base liquidable de 2004 superó los 18.600 millones de euros, aumentando un 6,3% respecto a 2003 y manteniendo su tendencia ascendente en los tres territorios históricos, especialmente en los Territorios Históricos de Gipuzkoa y Álava con porcentajes del 7% y superior al 8% respectivamente.

PFEZ-AREN LIKIDAZIO-OINARRIAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOKA
EVOLUCIÓN DE LA BASE LIQUIDABLE DEL IRPF POR TERRITORIOS HISTÓRICOS



GRAFIKOA / GRÁFICO IV. 4

Batez besteko likidazio-oinarria % 4,9 igo zen, 18.100 eurotik gorako batez besteko zenbatekoak adieraziz. Puntu hau aztertzeko, kontuan hartu behar dira, likidazio-oinarriaren bolumen osoaz gain, aurkeztutako aitorpenen kopurua eta ekonomiaren eboluzioarekin lotutako aldagaiak.

Por otro lado, la base liquidable media experimentó un aumento del 4,9%, superando los 18.100 euros. En este punto ha de tenerse en cuenta, además del volumen total de la base liquidable, el número de declaraciones presentadas, variables interrelacionadas con la evolución económica.

BATEZ BESTEKO LIKIDAZIO-OINARRIEN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOKA
EVOLUCIÓN DE LA BASE LIQUIDABLE MEDIA POR TERRITORIOS HISTÓRICOS

€

	ARABA ÁLAVA	**BIZKAIA**	**GIPUZKOA**	**EUSKAL AE** C.A.EUSKADI
1999	13.845,89	14.378,95	14.581,53	14.363,59
2000	15.133,39	15.631,18	15.836,21	15.622,65
2001	15.828,69	16.195,72	16.560,99	16.259,94
2002	16.454,36	16.703,91	16.840,08	16.711,86
2003	17.013,32	17.280,28	17.433,08	17.291,15
2004	17.976,28	18.070,87	18.298,87	18.132,57
% 00/99	9,3	8,7	8,6	8,8
% 01/00	4,6	3,6	4,6	4,1
% 02/01	4,0	3,1	1,7	2,8
% 03/02	3,4	3,5	3,5	3,5
% 04/03	5,7	4,6	5,0	4,9

KOADROA / CUADRO IV.5

BATEZ BATEKO LIKIDAZIO-OINARRIEN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOKA
EVOLUCIÓN DE LAS BASES LIQUIDABLES MEDIAS POR TERRITORIOS HISTÓRICOS



GRAFIKOA / GRÁFICO IV.5

Euskal Autonomia Erkidego osoko 2004ko datuak adierazten ditu IV.6 koadroak. Hala, errenta-maila bakoitzaren zenbatekoak eta aitorpen-kopuruen ehuneko erlatiboak eta metatuak adierazten dira, likidazio-oinarri orokorrari eta bereziari dagozkionak eta kuota osoari eta likidoari dagozkionak. (Lurralde Historikoei dagozkien datuak II.1 eranskineko A1, B1, G1 koadroetan)

El Cuadro IV.6 presenta para el ejercicio 2004 la distribución por tramos de renta de los importes y sus porcentajes relativos y acumulados del número de declaraciones, de las bases liquidables general y especial y de las cuotas íntegra y líquida declaradas en el conjunto de la Comunidad Autónoma de Euskadi (la información correspondiente a los territorios históricos en el Anexo II.1 cuadros A1, B1 y G1).

Aitortzaileen banaketari erreparatuta, argi ikusten da gehienak hasierako errenta-mailetan biltzen direla. Aitorpenetan, 10 aitortzaileetatik 6k baino gehiagok (% 62,1) aitortu zuen 18.000 euro baino gutxiago irabazten zituela; hala, errenta-tarte horretatik ateratzen da likidazio-oinarri orokorraren % 32,2, likidazio-oinarri bereziaren % 4, kuota osoaren % 19,7 eta kuota likidoaren % 15,6. Aitortzaile gutxien biltzen dituen errenta-tartea, berriz, 54.000 eurotik gorakoa da. Errenta-tarte horretako aitortzaileek aitorpenen % 3 egin dute, eta haiei dagokie likidazio-oinarri orokorraren % 14, oinarri bereziaren % 77, kuota osoaren % 25,6 eta kuota likidoaren % 27,2.

La distribución de los declarantes muestra una fuerte concentración en los primeros tramos. Más de 6 de cada 10 declarantes (62,1%) declaró tener una renta inferior a 18.000 euros, y concentran el 32,2% de la base liquidable general, el 4% de la base liquidable especial, el 19,7% de la cuota íntegra y el 15,6% de la cuota líquida. En el otro extremo, se sitúan aquellos que declararon rentas superiores a los 54.000 euros. Este grupo representa el 3% del número de declaraciones, el 14% de la base liquidable general y el 77% de la especial, el 25,6% de la cuota íntegra y el 27,2% de la cuota líquida.

18.000 eta 54.000 euro bitarteko errenta-tartean daude gainerako zergadunak; hau da, aitortzaileen % 34,9. Horiei dagokie likidazio-oinarri orokorraren % 53,4 eta bereziaren % 18,8. Halaber, haiei dagokie kuota osoaren % 54,7 eta kuota likidoaren % 57.

El resto de los contribuyentes situados en niveles de renta entre 18.000 y 54.000 euros, representaron el 34,9% del total de declarantes, el 53,4% de la base liquidable general y el 18,8% de la especial. Por último, representan el 54,7% de la cuota íntegra, aportando el 57% de la cuota líquida.

LIKIDAZIO-OINARRI ETA ZAMATUTAKO KUOTEN BANAKETA ERRENTA-MAILEN ARABERA
DISTRIBUCIÓN DE BASES LIQUIDABLES Y CUOTAS GRAVADAS SEGÚN NIVELES DE RENTA

000 €

ERRENTA-MAILAK (Likidazio-Oinarria) NIVELES DE RENTA (Base Liquidable) (€)	AITORPENAK DECLARACIONES			LIKIDAZIO-OINARRI OROKORRA BASE LIQUIDABLE GENERAL			LIKIDAZIO-OINARRI BEREZIA BASE LIQUIDABLE ESPECIAL			KUOTA OSOA CUOTA ÍNTEGRA			KUOTA LIKIDOA CUOTA LÍQUIDA		
	Kopurua Número	%	% Metat. % Acum.	Zenbatekoa Número	%	% Metat. % Acum.	Zenbatekoa Número	%	% Metat. % Acum.	Zenbatekoa Número	%	% Metat. % Acum.	Zenbatekoa Número	%	% Metatua % Acum.
Negatiboak / negativas	3.095	0,3	0,3	-16.134	-0,1	-0,1	49	0,0	0,0	-4	0,0	0,0	-8	0,0	0,0
0 - 2.400	93.529	9,1	9,4	67.631	0,4	0,3	1.171	0,2	0,2	591	0,0	0,0	302	0,0	0,0
2.400 - 3.600	31.473	3,1	12,4	93.447	0,5	0,8	987	0,1	0,3	149	0,0	0,0	46	0,0	0,0
3.600 - 4.800	33.801	3,3	15,7	141.186	0,8	1,6	1.126	0,2	0,5	3.207	0,1	0,1	932	0,0	0,0
4.800 - 6.000	36.153	3,5	19,2	194.121	1,1	2,7	1.346	0,2	0,7	9.858	0,2	0,3	2.792	0,1	0,1
6.000 - 8.400	78.812	7,6	26,9	565.357	3,1	5,8	3.046	0,4	1,1	47.032	1,2	1,5	17.020	0,6	0,7
8.400 - 10.800	89.293	8,7	35,5	854.927	4,8	10,6	3.638	0,5	1,6	101.495	2,6	4,1	48.582	1,6	2,3
10.800 - 13.200	95.770	9,3	44,8	1.146.436	6,4	16,9	4.839	0,7	2,3	161.158	4,1	8,2	93.758	3,0	5,3
13.200 - 15.600	93.561	9,1	53,9	1.339.784	7,4	24,4	6.214	0,9	3,2	211.749	5,3	13,5	140.064	4,5	9,8
15.600 - 18.000	84.548	8,2	62,1	1.412.510	7,9	32,2	6.884	1,0	4,2	247.975	6,2	19,7	179.345	5,8	15,6
18.000 - 20.400	72.179	7,0	69,1	1.376.140	7,6	39,9	7.214	1,0	5,3	260.127	6,6	26,3	195.822	6,3	22,0
20.400 - 22.800	61.355	6,0	75,1	1.315.062	7,3	47,2	8.421	1,2	6,5	262.270	6,6	32,9	202.621	6,6	28,5
22.800 - 25.200	53.253	5,2	80,2	1.268.303	7,0	54,2	8.045	1,2	7,6	263.256	6,6	39,5	208.886	6,8	35,3
25.200 - 27.600	43.803	4,3	84,5	1.146.854	6,4	60,6	8.365	1,2	8,8	245.963	6,2	45,7	200.108	6,5	41,8
27.600 - 30.000	30.963	3,0	87,5	880.129	4,9	65,5	8.639	1,2	10,1	197.277	5,0	50,7	163.408	5,3	47,1
30.000 - 32.400	22.575	2,2	89,7	692.844	3,9	69,4	9.208	1,3	11,4	162.297	4,1	54,8	135.515	4,4	51,5
32.400 - 34.800	16.474	1,6	91,3	542.311	3,0	72,4	8.301	1,2	12,6	131.663	3,3	58,1	109.988	3,6	55,0
34.800 - 37.200	12.864	1,2	92,5	450.923	2,5	74,9	10.043	1,4	14,0	113.049	2,8	60,9	94.589	3,1	58,1
37.200 - 39.600	9.998	1,0	93,5	372.477	2,1	76,9	9.512	1,4	15,4	95.883	2,4	63,4	80.271	2,6	60,7
39.600 - 42.000	8.533	0,8	94,3	337.643	1,9	78,8	9.418	1,4	16,8	88.985	2,2	65,6	74.893	2,4	63,1
42.000 - 44.400	7.071	0,7	95,0	296.673	1,6	80,5	8.656	1,2	18,0	80.594	2,0	67,6	67.978	2,2	65,3
44.400 - 46.800	6.007	0,6	95,6	264.735	1,5	81,9	8.981	1,3	19,3	74.170	1,9	69,5	62.863	2,0	67,4
46.800 - 49.200	5.337	0,5	96,1	245.832	1,4	83,3	8.835	1,3	20,6	70.684	1,8	71,3	59.984	1,9	69,3
49.200 - 51.600	4.479	0,4	96,5	216.692	1,2	84,5	8.651	1,2	21,8	63.736	1,6	72,9	54.909	1,8	71,1
51.600 - 54.000	3.986	0,4	96,9	201.724	1,1	85,6	8.474	1,2	23,0	60.605	1,5	74,4	52.088	1,7	72,8
54.000 - 66.000	13.109	1,3	98,2	736.608	4,1	89,7	38.249	5,5	28,5	232.538	5,9	80,3	198.449	6,4	79,2
66.000 - 78.000	6.456	0,6	98,8	427.625	2,4	92,1	32.408	4,7	33,2	147.392	3,7	84,0	124.722	4,0	83,2
78.000 - 90.000	3.598	0,3	99,2	269.573	1,5	93,6	29.921	4,3	37,5	99.493	2,5	86,5	82.810	2,7	85,9
> 90.000	8.544	0,8	100,0	1.151.313	6,4	100,0	434.404	62,5	100,0	535.911	13,5	100,0	435.134	14,1	100,0
GUZTIRA / TOTAL	**1.030.619**	100,0		**17.992.725**	100,0		**695.044**	100,0		**3.969.101**	100,0		**3.087.870**	100,0	
< 6.000	198.051	19,2	19,2	480.251	2,7	2,7	4.679	0,7	0,7	13.801	0,3	0,3	4.064	0,1	0,1
6.000 - 18.000	441.984	42,9	62,1	5.319.013	29,6	32,2	24.622	3,5	4,2	769.408	19,4	19,7	478.769	15,5	15,6
18.000 - 30.000	261.553	25,4	87,5	5.986.488	33,3	65,5	40.684	5,9	10,1	1.228.893	31,0	50,7	970.844	31,4	47,1
30.000 - 42.000	70.444	6,8	94,3	2.396.198	13,3	78,8	46.482	6,7	16,8	591.877	14,9	65,6	495.256	16,0	63,1
42.000 - 54.000	26.880	2,6	96,9	1.225.656	6,8	85,6	43.596	6,3	23,0	349.788	8,8	74,4	297.823	9,6	72,8
54.000 - 66.000	13.109	1,3	98,2	736.608	4,1	89,7	38.249	5,5	28,5	232.538	5,9	80,3	198.449	6,4	79,2
> 66.000	18.598	1,8	100,0	1.848.510	10,3	100,0	496.734	71,5	100,0	782.796	19,7	100,0	642.666	20,8	100,0

KOADROA / CUADRO IV.6

IV.7tik IV.10era bitarteko koadroetan ikus daitezke kuota osoek eta likidoek 1999-2004 aldian izan duten bilakaera, bai eta horiek lurralde historikoetan eta EAE osoan izandako batez bestekoak ere.

En los Cuadros IV.7 al IV.10 se recogen datos sobre la evolución de las cuotas íntegras y líquidas 1999-2004, así como sus medias, tanto por Territorios Históricos, como para el conjunto de la Comunidad Autónoma.

PFEZ / IRPF

KUOTA OSOAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOKA

EVOLUCIÓN DE LA CUOTA ÍNTEGRA POR TERRITORIOS HISTÓRICOS

°°° €

	ARABA ÁLAVA	**BIZKAIA**	**GIPUZKOA**	**EUSKAL AE** C.A.EUSKADI
1999	390.338	1.502.915	883.440	2.776.692
2000	442.336	1.664.040	1.007.207	3.113.582
2001	477.567	1.802.004	1.106.037	3.385.607
2002	507.214	1.900.553	1.176.600	3.584.368
2003	524.179	1.959.523	1.218.150	3.701.852
2004	576.063	2.077.281	1.315.757	3.969.101
% 00/99	13,3	10,7	14,0	12,1
% 01/00	8,0	8,3	9,8	8,7
% 02/01	6,2	5,5	6,4	5,9
% 03/02	3,3	3,1	3,5	3,3
% 04/03	9,9	6,0	8,0	7,2

KOADROA / CUADRO IV.7

Ia 4.000 milioiko zenbatekoa batu zuten hiru lurralde historikoetan aitortutako kuota osoek 2004an; hau da, 2003an baino % 7,2 gehiago. Igoera handiena Arabakoa izan zen, % 9,9koa izan baitzen.

La suma de las cuotas íntegras declaradas en los tres Territorios Históricos alcanzó, casi, los 4.000 millones de euros, aumentando un 7,2% respecto a 2003 y teniendo en el Territorio Histórico de Álava su mayor incremento, el 9,9%.

PFEZ / IRPF

BATEZ BESTEKO KUOTA OSOAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOKA

EVOLUCIÓN DE LA CUOTA ÍNTEGRA MEDIA POR TERRITORIOS HISTÓRICOS

€

	ARABA ÁLAVA	**BIZKAIA**	**GIPUZKOA**	**EUSKAL AE** C.A.EUSKADI
1999	2.848,72	3.089,99	3.033,60	3.035,89
2000	3.127,93	3.394,33	3.308,85	3.326,28
2001	3.292,45	3.547,41	3.498,39	3.493,26
2002	3.433,48	3.673,69	3.579,18	3.606,72
2003	3.467,82	3.704,85	3.620,90	3.641,82
2004	3.726,42	3.897,18	3.835,94	3.851,18
% 00/99	9,8	9,8	9,1	9,6
% 01/00	5,3	4,5	5,7	5,0
% 02/01	4,3	3,6	2,3	3,2
% 03/02	1,0	0,8	1,2	1,0
% 04/03	7,5	5,2	5,9	5,7

KOADROA / CUADRO IV.8

Aurkeztutako aitorpenen batez besteko kuota osoa 3.851,18 eurokoa izan zen; aurreko ekitaldikoa baino % 5,7 handiagoa, hain zuzen. Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekotik gorako zenbatekoa adierazi zuen Bizkaian, hura 3.897,18 eurokoa izan baitzen. Gipuzkoa eta Araba, berriz, batez bestekotik beherako datuak izan zituzten; 3.835,94 eta 3.726,42 eurokoak, hurrenez hurren.

La cuota íntegra media por declaración presentada fue de 3.851,18 euros, con un incremento del 5,7% en comparación con el ejercicio anterior. Por encima de la media de la Comunidad Autónoma de Euskadi se situó Bizkaia con 3.897,18 euros, mientras que Gipuzkoa y Álava se encontraron por debajo de la media, con 3.835,94 euros y 3.726,42 euros, respectivamente.

PFEZ / IRPF

KUOTA LIKIDOAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOKA

ITUNDUTAKO ZERGAK, GUZTIRA TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS	11.265.456	13,7	9.906.870	7,6	9.205.311	6,1	8.673.778	5,0	8.260.712	2,7	8.040.417

Lurralde Historikoei dagozkien datuak III.1 eranskineko A1, B1, G1 koadroetan / Información correspondiente a los Territorios Históricos en los cuadros A1, B1, G1 del anexo III.1.

KOADROA / CUADRO IV.63

DIRU-BILKETA LIKIDOAREN PORTZENTAJEZKO EGITURA. EUSKAL AE 2000-2005
ESTRUCTURA PORCENTUAL DE LA RECAUDACIÓN LÍQUIDA. C.A. DE EUSKADI 2000-2005

	2005	2004	2003	2002	2001	2000
Lanaren eta lanbide-jardueren etekien atxikipenak Retenciones Rdto. Trabajo y Act. Prof.	30,7	32,2	33,4	33,3	32,7	31,2
Kapital higigarrien etekinen atxikipenak Retenciones Rdto. Capital Mobiliario	1,2	1,1	1,3	1,6	1,6	1,5
Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak Retenciones Rdto. Capital Inmobiliario	0,3	0,3	0,3	0,3	0,3	0,3
Ondare-irabazien atxikipenak Retenciones Ganancias Patrimoniales	0,1	0,1	0,1	0,2	0,3	0,6
Profesional eta enpresarien ordainketa zatikatuak Pagos frac. Profes. y Empresariales	1,5	1,6	1,7	1,8	1,9	1,9
Kuota diferentzial garbia /Cuota diferencial neta	-3,5	-4,6	-4,0	-4,1	-3,5	-3,8
PFEZ Guztira / Total IRPF	30,2	30,8	32,8	33,1	33,2	31,6
Kapital higigarrien etekinen atxikipenak Retenciones Rdto. Capital Mobiliario	1,2	1,1	1,3	1,6	1,6	1,5
Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak Retenciones Rdto. Capital Inmobiliario	0,3	0,3	0,3	0,3	0,3	0,3
Ondare-irabazien atxikipenak Retenciones Ganancias Patrimoniales	0,1	0,1	0,1	0,2	0,3	0,6
Kuota diferentzial garbia /Cuota diferencial neta	11,2	10,0	9,6	9,9	9,5	8,9
Sozietateen gaineko zergak, guztira Total Impuesto s/ Sociedades	12,8	11,5	11,3	12,0	11,7	11,3
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga Impuesto s/ Renta No Residentes	0,4	0,3	0,2	0,3	0,6	1,0
Onordetza eta dohaintzen gaineko zerga Impuesto s/ Sucesiones y Donaciones	0,7	0,5	0,6	0,5	0,4	0,6
Ondarearen gaineko zerga / Impuesto s/ Patrimonio	0,9	0,9	1,0	1,3	1,4	1,5
Zerga iraungiak / Impuestos extinguidos		0,0		0,0	0,0	
Bestelako zuzeneko zergak guztira Total otros Impuestos Directos	2,1	1,7	1,7	2,1	2,5	3,0
ZUZENEKO ZERGAK, GUZTIRA TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS	45,1	44,0	45,8	47,2	47,4	45,9
BEZ (berezko kudeaketa) IVA (Gestión propia)	26,4	24,3	22,7	21,8	22,7	21,8
Ondare-eskualdaketen gaineko zerga Impuesto s/ Transmisiones Patrimoniales	2,7	2,8	2,5	2,3	2,3	2,8
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga Impuesto s/ Actos Jurídicos Documentados	1,0	1,1	1,2	1,2	1,0	1,1
Zenbait Garraiobideren gaineko zerga berezia I. Especial s/ Determ. Medios de Transporte	0,6	0,6	0,6	0,6	0,7	0,7
Fabrikazio zerga bereziak (berezko kudeaketa) I. Especiales Fabricación (Gestión propia)	11,9	13,1	13,2	13,4	13,1	13,2
. **Alkoh. Erat.k eta Bitartekoak /** Alc., Deriv. e Interm.	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2
. **Hidrokarburoak** / Hidrocarburos	8,7	9,7	9,8	10,1	10,1	10,5
. **Tabako-motak** / Labores del Tabaco	2,5	2,6	2,6	2,6	2,2	1,9
. **Garagardoa** / Cerveza	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
. **Elektrizitatea** / Electricidad	0,5	0,6	0,5	0,5	0,6	0,5
Zenbait Hidrokarb.ren txikizkako salmenten g/ zerga I. s/ Ventas Minoristas determinados Hidrocarburos	0,4	0,5	0,5	0,4		
Aseguru-sarien gaineko zerga I. s/ las Primas de Seguros	0,6	0,7	0,7	0,7	0,6	0,6
Zerga iraungiak / Impuestos extinguidos	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
ZEHARKAKO ZERGAK, GUZTIRA TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS	43,7	43,0	41,3	40,4	40,4	40,2
Jokoaren tasa guztira / Total Tasa de Juego	0,6	0,7	0,8	0,8	0,8	0,8
Bestelako sarrerak guztira / Total otros Ingresos	0,3	0,3	0,4	0,4	0,3	0,3
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK, GUZTIRA TOTAL TASAS Y OTROS INGRESOS	0,9	1,0	1,2	1,2	1,1	1,1
BEREZKO KUDEAKETA ZERGAK, GUZTIRA TOTAL TRIB. CON. GESTIÓN PROPIA	89,7	88,1	88,3	88,7	88,9	87,2
Aduanak/ Aduanas	6,5	8,4	8,6	8,4	8,7	9,0
Barne eragiketak/ Operaciones interiores	4,3	4,1	4,0	3,8	3,4	3,9
BEZari doitzea, guztira /Total Ajuste IVA	10,8	12,5	12,6	12,2	12,0	12,9
. **Alkoh. Erat.k eta Bitartekoak /** Alc., Deriv. e Interm.	0,4	0,5	0,5	0,6	0,5	0,6
. **Hidrokarburoak** / Hidrocarburos	-1,7	-1,9	-2,0	-2,0	-2,0	-2,2
. **Tabako-motak** / Labores del Tabaco	0,6	0,7	0,4	0,4	0,4	1,3
. **Garagardoa** / Cerveza	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1
Zerga Bereziari doitzea, guztira Total Ajuste Impuestos Especiales	-0,5	-0,6	-1,0	-0,9	-1,0	-0,2
ITUNDUTAKO ZERGAK, GUZTIRA TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

KOADROA / CUADRO IV.64

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

Lurralde historikoetako foru-aldundiek, 2005 ekitaldian, 3.404 milioi euro bildu dituzte Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergagatik. Zenbateko horrek adierazten digu bildutako kopuruaren igoera, urtetik urtera, nahiko handia izan dela; hau da, % 11,5ekoa. Laneko errenten atxikipenaren bilakaera positiboari eta kuota diferentzial garbiaren hobekuntzari esker gertatu da igora hori. Zerga horrek bildu zituen zerga zuzenek bildutako zenbatekoaren % 67,1 eta zerga guztiek bildutako zenbatekoaren % 30,2, hurrenez hurren.

Ekitaldiaren erdia igarota, laneko errentengatiko atxikipenengatik izandako diru-bilketaren igoera % 8tik gorakoa izan da; gainera, zergaren gainerako elementuen bilakaera positiboa izan dute, kontzeptu horren eragina osatuz. Horiek horrela, zergak berak, oro har, oso emaitza ona lortu du 2005 ekitaldian, azken hamar urteetako onena.

Laneko errentei eta jarduera profesionalei egindako atxikipenengatik 3.455 milioi euro bildu ditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak, enpresa txikiek lau hiruhilekotan eta enpresa handien hamabi hiletan egindako autolikidazioak kontabilizatu ondoren.

Norberak egindako lanagatik edo lan pertsonagatik eskuratutako errentei egindako atxikipenak biltzen ditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako kontzeptu horrek, eta kontzeptu hori da, hain justu, zenbateko handiena erakusten duen kontzeptua, zerga guztiak aintzat hartuta. Izan ere, kontzeptu horri dagozkio kudeaketa autonomoko zergengatik bildutako diruaren % 34,2.

Hiru foru-aldundietan izan du bilakaera positiboa laneko errentei egindako atxikipenengatik bildutako diru-zenbatekoak; hala, urtetik urterako tasa bateratua, urte amaieran, % 8,2koa izan da. Araban, ehuneko hori 1,7 puntu txikiagoa da, Gizarte Segurantzako afiliazioen kopurua ez baita gainerako lurraldeetan bezain beste igo Araban, eta, ondorioz, atxikipenen xede

1. Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas

Las Diputaciones Forales han contabilizado durante el ejercicio de 2005 por este impuesto 3.404 millones de euros. Esto supone un notable incremento interanual del 11,5%, incidido por la firme evolución de las retenciones de trabajo y la mejora de la cuota diferencial neta. Su recaudación representó el 67,1% y el 30,2% de los Impuestos directos y de la recaudación total, respectivamente.

A partir del ecuador del ejercicio el aumento recaudatorio de las retenciones por Rendimientos del Trabajo se ha mantenido por encima del 8%, lo que se ha visto complementado por la evolución positiva del resto de los componentes del impuesto, lo que arroja para el conjunto del mismo un notable resultado, el mejor de los últimos diez años.

Por retenciones sobre Rendimientos del Trabajo y Actividades profesionales se han recaudado 3.455 millones de euros, una vez contabilizadas las autoliquidaciones de cuatro trimestres de pequeñas empresas y de doce meses de grandes empresas.

Este componente del IRPF, que recoge las retenciones practicadas sobre todas las contraprestaciones derivadas del trabajo personal, continúa siendo el apartado de mayor cuantía dentro del panel de tributos, ya que, él solo, representa el 34,2% de la recaudación por tributos concertados en gestión propia.

Las tres Diputaciones Forales han visto como evoluciona favorablemente la recaudación de las retenciones sobre los rendimientos del trabajo, cuya tasa interanual consolidada cierra el año con un 8,2%, que en el caso de Álava es 1,7 puntos inferior, reflejo del menor incremento de afiliaciones a la Seguridad Social en el territorio alavés y, en consecuencia, el más moderado avance de la

den errenta-masaren igoera txikiagoa izan baita.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak enpleguaren alorrean izan duen hazkunde handiari lotuta dago, zuzen-zuzenean, laneko errenten atxikipenek izandako igoera handi hori; izan ere, langabeziaren murrizketak errekor historiko bat erdietsi du 2005 ekitaldian, eta horixe bera egin dute okupazio-datuek ere. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuko soldaten batez bestekoek gora egin zuten, eta horren guztiaren ondorioz, diru-bilketaren handitzea nabarmena izan da 2005 ekitaldian; nahiz eta, foru-aldundiek, 2004. urtearen amaieran, 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera atxikipen-taula berri bat aplikatuko zela onartu zuten, zergaren tarifan onartutako % 2ko deflaktazioari egokitzeko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren atxikipen-taula.

Kapital higikorreko etekinekiko atxikipenengatik egindako diru-bilketa % 17,3 igo zen urtetik urtera. Datu horrek hautsi egin zuen kontzeptu horren azken urteetan izan duen beheranzko joera.

2005 ekitaldian, diru-bilketaren bilakaera positiboa izan da hiru lurralde historikoetan; hala ere, alde handiak izan dira lurraldetik lurraldera: Araban % 1,9 igo da, azarora arte zenbaki gorriak erakutsi ondoren; Gipuzkoan, ordea, igoera % 34,7koa izan da, eragiketa jakin batzuengatik ezohizko kopuru handiak bildu baititu.

Kapital higikorreko errentei egindako atxikipenak 1998an ezarri ziren, hiri-lurreko ondasun higiezinen errentamendutik edo azpi-errentamendutik lortutako etekinei aplikatzeko, eta, geroztik, kontzeptu horregatik bildutako diru-kopuruak gora egin du etengabe. Balio Erantsiaren gaineko Zergagatik ordaindutako zenbatekoak alde batera utzita, % 15eko atxikipena egiten zaie errentatzaileari ordaintzen zaizkion kontzeptu guztiei.

2005 ekitaldia amaituta, bildutako diruaren bilakaera positiboa izan da, lurralde historikoen artean aldeak izan badira ere. Hala, 60 milioi euro baino gehiago bildu dira,

masa salarial sujeta a retenciones.

Esto no es sino un reflejo del vigoroso ritmo de crecimiento de empleo que ha mantenido la economía vasca a lo largo de 2005, hasta llegar a una reducción del paro a un mínimo histórico y alcanzar una cifra récord de ocupación. Si a esto se añade el incremento medio de los salarios en el mercado laboral vasco, el resultado es de un más que aceptable incremento recaudatorio a pesar de la aplicación de la nueva tabla de retenciones, aprobada por las Diputaciones Forales a finales de 2004 que, con vigencia desde el 1 de enero de 2005, suponía una adecuación de la tabla anterior a la deflactación del 2% aprobado para la tarifa del impuesto.

La recaudación obtenida por las retenciones sobre los Rendimientos del Capital Mobiliario se incrementa interanualmente en un 17,3%, rompiendo así la trayectoria descendente seguida por este apartado en los últimos años.

En los tres Territorios Históricos la recaudación de este apartado ha evolucionado positivamente en 2005, si bien con grandes diferencias, que van desde el 1,9% de Álava, que hasta el mes de noviembre se ha estado anotando números rojos, al 34,7% de Gipuzkoa, que ha ingresado operaciones muy concretas atípicamente elevadas.

Desde su implantación en 1998, las retenciones sobre los Rendimientos del Capital Inmobiliario, que se aplican a los rendimientos procedentes del arrendamiento o subarrendamiento de inmuebles urbanos, están incrementando ininterrumpidamente su recaudación. La retención a practicar es el resultado de aplicar el porcentaje del 15% sobre todos los conceptos que se satisfagan al arrendador, excluido el IVA.

Al cierre de 2005, después de una evolución positiva en los tres Territorios Históricos, si bien con algunas diferencias entre ellos, se han recaudado más de 60 millones de euros,

erdia Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta beste erdia Sozietateen gaineko zergan. Aintzat hartuta atxikipen-tasa 2000. urtearen erdialdean aldatu zela, adierazgarria da aurreko ekitaldiarekiko igoera, kontzeptu horretan, % 5,5ekoa izan dela.

que se contabilizan a mitades entre el IRPF y el Impuesto Sociedades, y que representan un incremento del 5,5% respecto al año anterior, en un apartado cuyo tipo de retención no ha variado desde mediados de 2000.

Urtebete geroago, 1999an, ondarezko irabazien gaineko atxikipenak sortu ziren, inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioak edo partaidetzak eskualdatzean sortutako irabaziak zergapetu eta aurrezki-moduen arteko neutraltasun fiskala hobetzeko.

Un año después, en 1999, entraban en vigor las retenciones sobre las Ganancias Patrimoniales, con el fin de gravar las ganancias generadas en la transmisión de acciones o participaciones de las Instituciones de Inversión Colectiva, y así buscar una mayor neutralidad fiscal entre los diferentes tipos de ahorro.

Atxikipen horiek konturako sarrerak dira, PFEZari, Sozietateen gaineko Zergari eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari dagozkionak. Hala ere, atxikipen horiek egiteko aitorpen-eredu bakarra dagoenez, foru-aldundiek erdibana hari dira banatzen bildutako dirua (31 milioi euro 2005 ekitaldian), Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren artean.

Si bien estas retenciones suponen un ingreso a cuenta por cualquiera de estos impuestos: IRPF, I. Sociedades e I. s/Renta No Residentes, dado que el modelo de declaración para la práctica de estas retenciones es único, las Diputaciones Forales están distribuyendo el importe recaudado, 31 millones de euros en 2005, al cincuenta por ciento entre el IRPF y el Impuesto sobre Sociedades.

Errenta aldakorraren bidez etekinak izateko aurreikuspenek behera egin ondoren eta inbertsio-fondoen errentagarritasuna moderazio-dinamika batean sartuta, atal honetan bildutako diru-zenbatekoek behera egin dute azken lau urteetan. 2003an egin ziren arau-aldaketek ere eragina izan dute kontzeptu horretan bildutako diru-zenbatekoetan:

En los cuatro años anteriores ha decrecido ininterrumpidamente la recaudación de este apartado, incidido por la pérdida de atractivo de la renta variable y la moderación de los resultados que arrojan los fondos de inversión, además de por la entrada en vigor en 2003 de cambios normativos que reinciden en el retroceso recaudatorio:

- Atxikipen-tasa % 18tik % 15era murriztu da, atxikipenak aplikatzekoak dituzten inbertsio kolektiboko erakundeen partaidetza edo akzioen itzulketa edo eskualdaketentzat.
- Kendu egin da inbertsio-funtsen partaidetzak eskualdatu eta horiek berriro inbertitzeagatik ordaindu beharreko ordainsari fiskala.

- Reducción del tipo de retención aplicable, del 18 al 15%, a aquellas ganancias patrimoniales derivadas del reembolso o transmisión de participaciones o acciones en instituciones de inversión colectiva sujetas a retención.
- Supresión del peaje fiscal en la transmisión y reinversión de participaciones en fondos de inversión.

Enpresa-jarduerei eta jarduera profesionalei dagokien ordainketa zatikatuen atalean, jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan egin behar dituzten konturako sarreren kopurua adierazten da.

En el apartado de Pagos fraccionados por actividades empresariales y profesionales se recoge la recaudación procedente de los ingresos a cuenta del IRPF que deben efectuar los contribuyentes que ejercen actividades económicas.

Kontzeptu horretan bildutako zenbatekoek ez dute aldaketa handirik izan azken ekitaldietan; alabaina joera, arina bada ere, goranzkoa izan da.

Kuota diferentzial garbia, 2005 ekitaldiaren amaieran, % 12,9 igo da aurreko ekitaldiarekiko, Euskal Autonomia Erkidegoko diru-bilketa bateratuari erreparatuta. Aurreko ekitaldian baino diru-bilketa handiagoa izan da hiru lurralde historikoetan, eta, halaber, Gipuzkoan izan ezik, itzulketen zenbatekoa jaitsi egin da. Gipuzkoan itzulketa horien zenbatekoa igo egin bada ere, aurreko ekitaldian baino emaitza hobeak lortu ditu atal horretan, diru-bilketa osoa asko igo baita.

La recaudación de este apartado se ha mantenido sin apenas variaciones en los últimos ejercicios, si bien con una ligera tendencia al alza.

En cuanto a la Cuota diferencial neta, al cierre del ejercicio la recaudación consolidada para el conjunto de la CA de Euskadi refleja un notable incremento del 12,9%. En los tres Territorios Históricos se ha ingresado más y se ha devuelto menos que en el ejercicio precedente, con la excepción de Gipuzkoa, cuyas devoluciones sí han aumentado, pero que aún así consigue el mejor resultado en este apartado gracias al fuerte incremento de la recaudación íntegra.

	2004KO ERRENTA / RENTA 2004				2003
	ARABA ÁLAVA	**BIZKAIA**	**GIPUZKOA**	**EUSKAL AE** C.A. EUSKADI	**EUSKAL AE** C.A. EUSKADI
Sarrerak / Ingresos	44.000	182.000	120.500	346.500	290.400
Itzulketak / Devoluciones	-120.300	-389.500	-261.000	-770.800	-770.000
GUZTIRA / TOTAL	-76.300	-207.500	-140.500	-424.300	-479.600

KOADROA / CUADRO IV.65

2004ko errenta-kanpainako azken emaitza negatiboa izan da, aurreko ekitaldiko saldo garbia baino kopuru txikiagoa bildu baita; izan ere, ez da ia aldaketarik izan itzulitako zenbatekoetan eta zergadunen sarrerak 2004koak baino % 19 handiagoak izan dira.

El resultado final de la campaña de la Renta-04 ha sido un importe negativo claramente inferior al saldo neto de la campaña anterior, como consecuencia de que las devoluciones apenas varían, mientras que los ingresos de los contribuyentes superan en torno a un 19% a los recibidos en 2004.

2. Sozietateen gaineko Zerga

Foru-aldundiek 1.440 milioi euro bildu dituzte Sozietateen gaineko Zergagatik ekitaldiaren amaieran; hau da, aurreko urtean baino 301 milioi euro gehiago bildu dituzte. Horrek esan nahi du urtetik urterako igoera % 26,4koa izan dela, itundutako zergek izan duten igoera handienetako bat.

Zerga horren bilakaera aztertzeko ezinbestekoa da haren elementu nagusiaren bilakaerari erreparatzea; hau da, kuota diferentzial garbiak zer aldaketa izan duen hiru lurraldeetan. Hala, kontzeptu horri

2. Impuesto sobre Sociedades

Las Diputaciones Forales han formalizado por el I. Sociedades al cierre del ejercicio una recaudación de 1.440 millones de euros, lo que supone 301 millones de euros más que en el año anterior, esto es, un incremento interanual del 26,4%, una de las tasas más elevadas dentro del panel de tributos concertados.

Lógicamente, la evolución de este impuesto está condicionada por el favorable comportamiento del más importante de sus componentes, la Cuota diferencial neta, que evoluciona muy positivamente en los tres

erreparatuta, argi ikusten da bilakaera oso positiboa izan dela hiru lurralde historikoetan.

Territorios Históricos.

Hala ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan gertatzen den moduan, Sozietateen gaineko Zergan ere gainerako kontzeptuen bilakaerak eragina du zerga horrek bildutako diru-kopuru osoaren bilakaeran, eta horregatik izan da, hain justu, Sozietateen gainekoa 2005 zerga-ekitaldiko izarretako bat, aspaldian lortu gabeko igoera-tasa bat erdietsi baitu.

Pero, además, al igual que sucede en el IRPF, la recaudación total del Impuesto Sociedades se ve también impulsada por la evolución favorable del resto de sus componentes, lo que convierte a este impuesto en uno de los protagonistas de ejercicio tributario de 2005, que recupera una tasa de crecimiento que parecía ya olvidada.

Sozietateen gaineko Zergaren kuota diferentzial garbiaren bilakaera bikaina izan dela esan daiteke, azken urteetan etengabe ari baitira igotzen kontzeptu horretan bildutako diru-zenbatekoak.

De excelente puede considerarse el avance recaudatorio que presenta la Cuota diferencial neta, que en los últimos años está viendo incrementarse de modo ininterrumpido su recaudación.

SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA / IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES

	Diru Bilketa Recaudación ᵒᵒᵒ€	**Gehikuntza** Incremento
1995	349.222	4,2%
1996	465.557	33,3%
1997	554.634	19,1%
1998	743.856	34,1%
1999	828.245	11,3%
2000	905.240	9,3%
2001	965.244	6,6%
2002	1.037.943	7,5%
2003	1.039.213	0,1%
2004	1.139.509	9,7%
2005	1.440.377	26,4%

KOADROA / CUADRO IV.66



GRAFIKOA / GRÁFICO IV.28

Itzulketena baino zenbait puntu gehiagokoa izan da sarreren bilketak izan duen gorakada, eta, zehazki, urtetik urtera, kuota diferentzial garbiak egindako diru-bilketaren igoera % 27,8koa izan da. Horrek agerian uzten du enpresek emaitza onak izan zituztela 2004 ekitaldian, eta, konturako ordainketen bilakaera ikusita, emaitza horiek jarraipena izan dezakete 2005 ekitaldiaren amaieran.

Los ingresos se incrementan varios puntos por encima de cómo lo han hecho las devoluciones, arrojando un aumento interanual recaudatorio en la Cuota diferencial neta del 27,8%, lo que es una muestra de los buenos resultados empresariales del ejercicio de 2004 que, a la vista de los pagos a cuenta, pudieran haberse repetido al cierre de 2005.

Diru-bilketak, atal honetan, zergaren bilketa osoaren % 88 biltzen du, eta lurralde historiko bakoitzean zenbait nabardura

La evolución de este apartado, cuya recaudación supone el 88% de la recaudación total del impuesto, presenta algunas

adierazten baditu ere, haren bilakaera positiboa da lurralde guztietan.

particularidades para cada uno de los Territorios Históricos, si bien en todos ellos evoluciona positivamente.

DIRU-BILKETAREN BILAKAERA / EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN

ººº €

	2005	2004	% 05/04
Diru-bilketa osoa eta hondakinak Recaudación íntegra y residuos	1.391.285	1.096.343	26,9
Itzulketak / devoluciones	-130.240	-109.427	19,0
Diru-bilketa likidoa / Recaudación líquida	1.261.045	986.916	27,8

KOADROA / CUADRO IV.67

Arabak izan du emaitzarik onena, lurralde hori izan baita aurreko ekitaldian baino diru gutxiago itzuli duen bakarra kontzeptu horregatik. Hain zuzen, aurreko ekitaldian itzulitakoaren ia erdia itzuli du, eta diru-sarreren kopurua, berriz, nabarmen igo da. Hala, urtetik urtera, lurralde horrek urtetik urtera izan duen diru-bilketa garbiaren igoera bikaina izan da, % 36,0koa.

El mejor resultado lo registra Álava, único Territorio Histórico que ha devuelto por este concepto menos que en el ejercicio precedente, apenas la mitad, a lo que hay que añadir una notable expansión de los ingresos, arrojando, en consecuencia, una excelente tasa interanual del 36,0% en su recaudación neta.

Bi puntu txikiagoa izan da soilik Bizkaiko diru-bilketa garbia, nahiz eta, 2005 ekitaldian zehar, aurreko ekitaldian baino nabarmen diru gehiago itzuli duen; harik eta, ekitaldiaren amaiera, aurrean baino % 61,5 gehiago itzuli duen arte. Alabaina, diru-sarreren igoera handiak aise gainditu du itzulitako diruaren igoera hori; izan ere, sarreren zenbatekoa, urtetik urtera, % 35,4 igo da lurralde historiko horretan.

Sólo dos puntos por debajo evoluciona la recaudación neta en Bizkaia y es que si bien este Territorio Histórico ha estado devolviendo a lo largo de 2005 más que en el año anterior, hasta llegar al cierre del ejercicio con un incremento del 61,5%, esto se ha visto con creces compensado por la excelente expansión de los ingresos, que aumentan interanualmente en un 35,4%.

Gipuzkoa izanda, hiru lurralde historikoen artean, goranzko bilakaera apalena izan duena, baina, hala ere, igoera nahiko ona izan da, % 13,4koa. Izan ere, Gipuzkoan egindako diru-bilketa garbiaren igoera aurreko urtekoaren antzekoa izan da, baina itzulketak 2004 ekitaldikoak baino nabarmen handiagoak izan dira.

Finalmente, es en Gipuzkoa donde este apartado evoluciona de modo más discreto, si bien con un más que aceptable incremento del 13,4%, al que se llega después de un aumento similar de la recaudación íntegra y unas devoluciones muy superiores a las de 2004.

Horiek horrela, Sozietateen gaineko Zergak, oro har, % 26,4ko igoera izan du ekitalditik ekitaldira, eta nabarmen gainditu du 2004 ekitaldiaren amaieran izan zen % 9,7ko igoera-tasa. Hala, bildutako diru-kopuruaren hazkunde-joera bat bizi du zerga honek, 1995/2005 aldian laukoiztu egin baititu ekitaldi amaieran erakutsi dituen emaitzak

En definitiva, el total del I. Sociedades se anota un incremento interanual del 26,4%, que supera ampliamente el 9,7% del cierre de 2004 y se reaviva de nuevo la fuerte escalada recaudatoria de este impuesto, que en el período 1995/2005 ha visto cuadruplicado su resultado final, registrando tasas superiores al 2% del PIB nominal vasco.

(Euskal Autonomia Erkidegoko barne-produktu gordin nominalaren % 2tik gorako igoera-tasak izan ditu).

Sozietateen gaineko Zergaren bilakaera-ibilbide positibo hori 1996. urtean hasi zen, urte horretan bertan jarri baitzen indarrean zerga horren indarreko foru-araudia. Araudi horrek errotik aldatu zuen zergaren araupena, Europar Batasuneko zerga-araudietara egokitzeko eta Europar Batasunaren barruan kapitalen mugimendurako askatasunak ireki zuen egoera berrira moldatzeko.

En efecto, esta buena marcha recaudatoria del Impuesto sobre Sociedades arranca en 1996, año en el que precisamente entró en vigor la actual normativa foral del impuesto, que provocó una profunda transformación del mismo, a fin de adaptarlo a la nueva realidad económica que suponía la libertad de movimiento de capitales en la Unión Europea y a los ordenamientos tributarios comunitarios.

Horrez gain, zenbait neurri fiskal hartu ziren, enplegua sortzeko eta enpresa-jarduerak hobetzeko: zergaren zerga-tasa orokorra jaitsi egin zen, ehuneko 35etik ehuneko 32,5era; aktibo jakin batzuk amortizatzeko askatasuna eman zen; erreserbetarako hornidurak egiteagatiko kenkari berriak sortu ziren; ikerketa eta garapeneko jarduerak egiteko eta iraupenen mugagabeko enpleguak sortzeko pizgarriak sortu ziren, etab.

Pero, además, con la vista puesta en la creación de empleo y mejora de la actividad empresarial, se aprobaron medidas tales como rebaja del tipo general de 35 al 32,5 por cien, libertad de amortización para determinados activos, nuevas deducciones por dotaciones a reservas, incentivación de actividades de investigación y desarrollo, creación de empleo indefinido...

Gerora, 2002 ekitaldian, foru-aldundiek beste neurri batzuk onartu zituzten, enpresen fiskalitate-erregimena hobetzeko: zerga ordaintzetik salbuetsi ziren, zerga-tasaren % 100 bitartean, plusbalio jakin batzuk berriro inbertitzeagatiko jarduerak; enpresek pentsio-planei, mutualitateei eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei egindako ekarpenen % 10eko kenkaria onartu zen; kenkari berriak sortu ziren, ikerketa eta garapeneko jarduerak eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik; etab.

De nuevo en el ejercicio 2002 las Diputaciones Forales aprobaban varias medidas que, entre otros efectos, suponen una mejora de la fiscalidad empresarial, en puntos tales como exenciones por reinversión de hasta el 100% de determinadas plusvalías, deducciones del 10% de las contribuciones empresariales a planes de pensiones, mutualidades y entidades de previsión social voluntaria, ampliación de los límites y nuevos supuestos de deducciones por actividades de investigación y desarrollo, e innovación tecnológica...

Arau-aldaketa horiek 2002 zerga-ekitaldian izan zuten eragina, eta adierazi behar da zerga-ekitaldi hori izan zela, hain justu, enpresa handiek etekinen kopuruak behera egin zuen bigarren zerga-ekitaldi jarraitua. Hala, galdu egin ziren aurreko urte oparoetan (1994. urtetik 2000. urterako aldian) pilatu ziren irabazien zati bat.

A la incidencia tributaria de estos cambios normativos, se añadía el hecho de que el 31/12/2002 las grandes empresas cerraban el segundo año consecutivo en el que caía el nivel de beneficios, esfumándose así parte de las ganancias acumuladas en la etapa de muy buenos resultados comprendida entre 1994 y 2000.

Atzerakada horren arrazoia, krisi ekonomikoaz gain, sozietateek ekindako saneamendu-politika zorrotza izan zela nabarmendu behar da. Hego Amerikan ezarrita zeuden enpresak izan ziren saneamendu-politika horren aitzindariak,

La causa de este retroceso radicaba no sólo en la crisis económica, sino también en la agresiva política de saneamiento adoptada por las compañías, en especial las instaladas en Sudamérica, que aprovechaban este año de modestos resultados para hacer limpieza

emaitza apaleko urte hori baliatu baitzuten balantzeak zuzentzeko.

en sus balances.

2003. urteko azken hiletan, aurreikuspenek hobera egin zuten, munduko ekonomiaren gorakada-prozesuaren baitan. Ameriketako Estatu Batuak izan ziren, beste behin, Alemaniak eta Frantziak ekindako inbertsioekin batera, gorakada horren bultzatzaileak, hazkunde ekonomikoa beren mugen barruan sustatzearen alde egin baitzuten. Europako bi herrialde horien kasuan, adierazi behar da, sustatze-jarduera horien baitan, azpiegitura-proiektu berriak egitean, ez zitzaiola erreparatu haiek Europar Batasunaren Egonkortasun Paktuaren sinesgarritasunean izan zezaketen eraginari.

En los últimos meses de 2003 las empresas empezaban a atisbar una mejora de expectativas, basada en la recuperación de la economía mundial, una vez más de la mano de Estados Unidos y de las iniciativas inversoras emprendidas por Alemania y Francia, que siguen apostando por estimular el crecimiento en sus respectivos países, aún cuando los nuevos proyectos de infraestructuras pongan en tela de juicio la credibilidad del Pacto de Estabilidad de la Unión Europea.

Ekonomiaren pizkunde horrek jarraipena izan du 2004an eta 2005ean, urte onak izan baitira enpresentzat. Hala, enpresa ikurrek emaitza bikainak izan dituzte, aurreko ekitaldietan lortutakoak gaindituz.

Esta reactivación ha tenido su continuidad a lo largo de 2004 y 2005, que han sido dos buenos años para el sector empresarial, cuyos representantes más emblemáticos han alcanzado unos excelentes resultados, superando las cotas registradas anteriormente.

Enpresa handiak dira bilakaera on horren buru egiten dutenak, emaitzak hobetu baitituzte 2005 ekitaldiaren amaieran, besteak beste, faktore hauek bultzatuta: negozio-zifraren igoera handia, ekonomiaren hazkunde-dinamikak sortutako giro egokiaren abaroan gertatua; ibilgetuen salmenta atipikoek sortutako plusbalioak; eta amortizazioak eta hornidurak egiteko premia lasaitu izana.

A la cabeza de esta favorable evolución se sitúan las grandes empresas, que de nuevo han visto mejorados sus resultados al cierre de 2005 y es que al fuerte aumento de la cifra de negocios, sustentado por el favorable entorno de crecimiento económico, se añaden las plusvalías provenientes de las ventas atípicas de inmovilizados y la menor necesidad de amortizaciones y provisiones.

Euskal enpresak ere baliatzen ari dira nazioarteko ekonomiak bizi duen egoera ona, baina ez dute alde batera utzi inbertsio-prozesu etengabekoaren dinamika, ezinbestekoa baitute lehiakortasunik ez galtzeko, haien jarduera-eremu aldagarrian.

También las empresas vascas están participando del buen momento económico que atraviesa la economía internacional, sin olvidarse del continuo proceso de inversión al que se ven obligadas para no perder competitividad en el cambiante escenario en el que desarrollan su actividad.

Zerbitzuen sektorean jarduten duten enpresek bizkortu egin dute haien hazkunde-prozesua 2005. urtean, eta badirudi eraikuntza-enpresek eutsi egin diotela azken urteetako dinamika biziari, ahultasunaren edo dinamika-aldaketaren zantzurik erakutsi gabe. Aitzitik, industria-ekoizpeneko sektoreak ez du halako joerarik erakutsi, eta badirudi sektore horretako enpresen hazkunde-tasak geldialdi bat bizi duela.

A lo largo de 2005 han intensificado su crecimiento las empresas de servicios, aceleración que no se ha dado en la producción industrial que parece haberse estancado en su tasa de crecimiento, mientras que las empresas constructoras mantienen el dinamismo de los últimos años sin dar muestras de debilidad.

3. Balio Erantsiaren gaineko Zerga

Balio Erantsiaren gaineko Zerga 1986. urtean ezarri zen, eta, unean uneko aldaketak alde batera utzita, funtsezko aldaketa bakarra izan du. Izan ere, 1992an sortu zen Europar Batasuneko barne-merkatua eta egun indarrean dagoen araudia onartu zen. Hala, egitate zergagarri berri bat gehitu zitzaion zergari, Europar Batasunaren barruan egindako ondasun-erosketak.

Zerga horrek kontsumoa zergapetzen du, hiru eragiketa hauen bidez: ondasun-entregak eta zerbitzu-emateak, Europar Batasunaren barruan egindako ondasun-erosketak eta ondasunen inportazioak.

Aldaketa horren harian, nabarmena da Balio Erantsiaren gaineko Zergak bilduko duen dirua zuzenean lotuta dagoela jarduera ekonomikoen bilakaerarekin, bilakaera horrek erabakiko baitu BEZak diru gehiago ala gutxiago bilduko duen.

Aipatu behar da zerga horrek bildutako diruaren banaketan eragina izan duela 2005ean apiriletik aurrera indarrean jarri den arau-aldaketak, inportazioarekin parekatutako eragiketen kuoten likidazio-prozedura aldatu baita.

Aldaketa horren ondorioz, jaitsi egin da Balio Erantsiaren gaineko Zergak aduanetan bildutako dirua eta igo egin da barne-eragiketengatik bildutakoa; horrenbestez, foru-aldundiek diru gehiago bildu dute zergaren kudeaketa autonomoagatik, eta, horren ordain logikoan, murriztu egin da Estatuko Administrazioarekiko egiten den doiketaren zenbatekoa.

Horiek horrela, 2005 zerga-ekitaldian, Balio Erantsiaren gaineko Zerga izan da, berriro, foru-ogasunei diru gehien ekarri dien zerga. Balio Erantsiaren gaineko Zerga, 2005 ekitaldian, 4.186 milioi euro bildu ditu, guztira. Hau adierazten digu zenbateko horrek:

- BEZaren diru-bilketa, urtetik urtera, % 14,8 igo dela.
- Aurrekontu-aurreikuspenen gauzatze-maila % 110,7koa izan dela.

3. Impuesto sobre el Valor Añadido

Desde su implantación en 1986, al margen de modificaciones puntuales, el IVA solamente ha experimentado un cambio importante. En 1992, año en el que crea el mercado interior y se aprueba la normativa actualmente en vigor, se introduce un nuevo hecho imponible, la adquisición intracomunitaria de bienes.

Este impuesto grava el consumo a través de tres tipos de operaciones: las entregas de bienes y prestaciones de servicios, las adquisiciones intracomunitarias de bienes y las importaciones de bienes.

Esto supone que la trayectoria recaudatoria del IVA viene determinada básicamente por la evolución de la actividad económica, a la que es especialmente sensible este impuesto.

Sí se ha visto incidida la distribución de la recaudación de 2005 por la modificación reglamentaria a partir del mes de abril del procedimiento de liquidación de las cuotas correspondientes a las Operaciones Asimiladas a la Importación.

Esto ha provocado un descenso de los ingresos por IVA en Aduanas y un aumento del IVA Operaciones interiores, lo que se ha traducido en una mayor recaudación por gestión propia de las Diputaciones Forales y un menor importe en el Ajuste practicado con la Administración del Estado.

Así las cosas, de nuevo en 2005 el IVA continúa siendo el tributo de mayor aportación económica a las arcas forales. El total recaudado por IVA en este ejercicio asciende a 4.186 millones de euros, lo que significa:

- Un incremento interanual del 14,8% para el conjunto del impuesto.
- Un grado de ejecución del Presupuesto del 110,7%.

- Zeharkako zergek bildutako diruaren % 68,8 eta zerga itundu guztiek bildutako kopuru osoaren % 37,2 bildu duela, hurrenez hurren.

Balio Erantsiaren gaineko Zergak, 2005 ekitaldian, lau hamarren igo zuen, ekitalditik ekitaldira, bildutako diru-kopuru osoaren igoera-ehunekoa, eta emaitza horrek hobekuntza nabarmena adierazten du, aintzat hartuta aurreko bi ekitaldietan igoera-tasak ere onak izan zirela. Hala, zerga horren diru-bilketak aise gainditua du 2001/2002 biurtekoan izan zuen motelaldia.

- El 68,8% y el 37,2% de los Impuestos Indirectos y de la recaudación total por Tributos Concertados, respectivamente.

La evolución interanual de la recaudación total por IVA contabilizada en el ejercicio 2005, supone una notable mejoría de cuatro décimas respecto al resultado ya bueno obtenido en los dos años anteriores, muy por encima del bache recaudatorio en el que estuvo inmerso este impuesto en el bienio 2001/2002.

BALIO ERANTSIAREN ZERGA / IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO

	Diru Bilketa Recaudación ººº€	**Gehikuntza** Incremento
1995	1.667.007	1,9%
1996	1.882.453	12,9%
1997	1.989.494	5,7%
1998	2.216.300	11,4%
1999	2.503.211	12,9%
2000	2.791.382	11,5%
2001	2.866.762	2,7%
2002	2.948.845	2,9%
2003	3.252.417	10,3%
2004	3.646.033	12,1%
2005	4.186.342	14,8%

KOADROA / CUADRO IV.68



GRAFIKOA / GRÁFICO IV.29

2005 ekitaldirako aurreikuspenak egitean, aintzat hartu zen zergaren araudian ez zela aldaketa adierazgarririk egin eta nazioarteko ekonomia-adierazleen susperraldia sendotzen ari zela, joera hori motelagoa izan arren eurogunean. Hala, foru-aldundiek aurreikusi zuten Balio Erantsiaren gaineko Zergak aurreko ekitaldiaren itxieran bildutakoa baino % 4,2 gehiago bilduko zuela.

Aurreikuspen hori egin arren, diru-bilketako datuek abenduaren 31n adierazten zuten foru-aldundiek 2.973.596 m€ bildu zituztela 2005 ekitaldi osoan. Zenbateko hori aurreko ekitaldian bildutakoa baino % 23,7 handiagoa da hirukoiztu egin du Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak 2005ean

Al elaborar el presupuesto para el ejercicio de 2005, ante un panorama de ausencia de cambios normativos significativos y en un contexto de consolidación de la recuperación económica internacional, aunque la zona euro parecía presentar una recuperación más lenta, se preveía que las Diputaciones Forales aumentaran su recaudación por IVA en torno a un 4,2% sobre el cierre previsto para el ejercicio precedente.

Pues bien, al 31 de diciembre la recaudación por IVA-Gestión propia de las Diputaciones Forales, incidida por la bonanza de la actividad económica y el traslado de los ingresos provenientes de las Operaciones Asimiladas a la Importación, alcanza los 2.973.596 m€, lo que supone un excelente

zehar izan duen hazkunde nominala. Jarduera ekonomikoaren ongialdia eta inportazioari parekatutako eragiketetatik bildutako zenbatekoak erabakigarriak izan dira emaitza horiek lortzeko.

23,7% más que en el año anterior, esto es, triplicar el crecimiento en términos nominales seguido por la economía vasca a lo largo del ejercicio de 2005.

Alde handiak izan dira diru-bilketaren erritmoan, baina, hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren barne-produktu gordinaren hazkunde nominaleko tasatik nabarmen gorako igoerak izan dituzte hiru foru-aldundiek egindako diru-bilketek.

Se han producido diferencias evidentes en el ritmo recaudatorio, si bien las tres Diputaciones Forales han visto incrementarse su recaudación muy por encima de cómo lo ha hecho el PIB nominal vasco.

Ekitaldiaren hasieran azaldutako joerari jarraituz, Bizkaiak lortu du, ekitaldi amaieran, urtetik urterako igoera-tasarik handiena, diru-sarreren igoera handiak bultzatuta. Igoera horren arrazoi nagusia ekonomiaren ongialdia izan den arren, energia-sektoreak lurralde horretan abiatu dituen inbertsio-proiektuek ere zerikusi zuzena izan dute igoera handi horretan. Faktore horiez gain, aipatu behar da itzulketen igoera ehunekoa nahiko apala izan dela, ozta-ozta igaro baitu ehuneko bia. Faktore horiek guztiek azaltzen dute, beraz, zergatik izan den diru-bilketaren igoera % 32,8koa lurralde horretan.

Tal y como viene sucediendo desde comienzos del ejercicio, es en Bizkaia donde se alcanza la tasa interanual más elevada, gracias a la fuerte expansión de los ingresos, debido no sólo a la bonanza de la actividad económica en general, sino también a la puesta en marcha de importantes proyectos de inversión en el sector energético. Si a esto se añade un ritmo contenido de las devoluciones, que antes del ajuste interno apenas sobrepasan en dos puntos porcentuales a los del ejercicio precedente, el resultado es un excelente incremento recaudatorio del 32,8%.

Diru-bilketaren igoera-ehunekoa neurritsuagoa izan da Gipuzkoan, zergaren diru-bilketa likidoaren igoera % 16,4koa izan baita, aurreko ekitaldian bildutakoarekiko. Lurralde horretako datuek adierazten dute, aurrez aipatutako doiketa egin ostean, bikoiztu egin duela sarreren erritmoa, baina ez da ahaztu behar itzulketen zenbatekoa ere aurreko ekitaldikoa baino nabarmen handiagoa izan dela.

A un aumento recaudatorio más moderado se llega en Gipuzkoa que, una vez practicado el ajuste antes citado, duplica su ritmo de ingresos y a pesar de que las devoluciones superan ampliamente a las del año anterior, consigue un incremento del 16,4% en su recaudación líquida.

Araban, itzulketak % 10,6 igo dira, diru-sarreren bilakaera-ehunekoa baino zenbait puntu gehiago. Hala ere, diru-sarreren igoera apal hori bikoiztu egin da, BEZagatiko lurraldeen arteko doiketa egin ondoren. Horrenbestez, diru-bilketa likidoaren igoera-tasa, urtetik urtera, % 13,7koa izan da.

También en Álava se incrementan las devoluciones, el 10,6%, varios puntos por encima de la evolución de los ingresos, cuya moderada expansión se ve también duplicada con la incorporación del ajuste interterritorial por IVA, resultando para la recaudación líquida una tasa interanual del 13,7%.

Datu bateratuek adierazten digute, 2005eko abenduaren 31n, zerga horrek Euskal Autonomia Erkidego osoan izan dituen diru-sarrerak % 18,3 igo direla, aurreko ekitaldiarekiko. Ehuneko horrek hirukoiztu egiten du itzulketen igoera-ehunekoa, eta, ondorioz, diru-bilketa likidoaren igoera, urtetik urtera, % 23,7koa izan da. Emaitza

Así las cosas, el resultado consolidado para la C.A. de Euskadi a 31 de diciembre de 2005 registra unos ingresos que están aumentando en una tasa del 18,3%, lo que triplica el ritmo expansivo de las devoluciones y lleva a la recaudación neta a un excelente incremento interanual del 23,7%, uno de los mejores resultados contabilizados dentro del panel de

hori, argi dago, bikaina da, zerga itunduek lortutako onenetarikoa baita.

Hirugarren urtea da Balio Erantsiaren gaineko Zerga dela zerga-bilketako egituraren elementu dinamikoetako bat, eta, jokabide hori izanda, bat egiten du zeharkako zergek bizi duten handitze-joerarekin. Diru-bilketa osoak gorazko joera du, eta itzulketak sorrarazten dituzten faktoreek, berriz, galdu egin dute aurreko urteetan izandako pisua. Izan ere, nazioarteko herrialde nagusietako ekonomien kanpo-eskari apalaren ondorioak pairatzen ari dira euskal enpresen esportazio jarduerak, eta horri gehitu egin behar zaio euroak izandako balio-irabazte handia eta inflazioak Europako beste herrialde batzuekiko erakusten duen alde diferentzial negatiboa.

tributos concertados.

Por tercer año consecutivo el IVA está actuando como uno de los componentes más dinámicos de los ingresos tributarios, uniéndose así a la expansión general que está experimentado la imposición indirecta. La recaudación íntegra se expande, mientras que los factores determinantes de las devoluciones han perdido un poco el vigor de años anteriores, con unas exportaciones vascas afectadas por un entorno exterior de débil dinamismo de las demandas externas de las principales economías, una fuerte apreciación del euro y unos desfavorables diferenciales de inflación respecto a las economías europeas.

BALIO ERANTSIAREN ZERGA/ IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO
DIRU-BILKETAREN BILAKAERA / EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN

ººº €

	2005	2004	% 05/04
Diru-bilketa osoa eta hondakinak Recaudación íntegra y residuos	4.166.710	3.523.662	18,2
Itzulketak / devoluciones	-1.193.114	-1.118.929	6,6
Diru-bilketa likidoa / Recaudación líquida	2.973.596	2.404.733	23,7

KOADROA / CUADRO IV.69

Handitu egin da zerga horren diru-bilketaren igoeraren eta barne-produktu gordinaren igoeraren arteko alde diferentziala; izan ere, foru-aldundiek itxitako azken zerga-ekitaldietan, euskal ekonomiak izan duen batez besteko bilakaera nominala baino 2,9 ehuneko-puntu handiagoa izan da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kudeaketa autonomoagatik bildutako diruaren batez besteko igoera.

Se amplia el diferencial de crecimiento entre la recaudación por este impuesto y el PIB nominal, de tal modo que en los diez últimos ejercicios tributarios cerrados por las Diputaciones Forales, el incremento medio de la recaudación por IVA-Gestión propia supera en 2,9 puntos porcentuales la evolución media de la economía vasca en términos nominales.

	Diru Bilketa Recaudación ººº€	**Gehikuntza** Incremento	**% BPG nominala** PIB nominal
1996	1.311.595	1,9%	6,7%
1997	1.313.153	0,1%	7,1%
1998	1.505.785	14,7%	9,1%
1999	1.675.545	11,3%	8,0%
2000	1.750.892	4,5%	8,0%
2001	1.871.897	6,9%	5,5%
2002	1.891.457	1,0%	5,2%
2003	2.088.922	10,4%	6,5%
2004	2.404.733	15,1%	7,6%
2005	2.973.596	23,7%	7,8%

KOADROA / CUADRO IV.70

Apirilean, uztailean, urrian eta abenduan egin da, Kupoaren Batzorde Mistoak onartutako prozedurari jarraituta, BEZaren doiketa Estatuko Administrazioarekin. Ondorengo koadroan ikus daiteke zein izan den doiketaren emaitza.

De acuerdo con el procedimiento aprobado por la Comisión Mixta de Cupo, durante los meses de abril, julio, octubre y diciembre, se ha practicado con la Administración del Estado el Ajuste IVA, con el resultado siguiente.

ººº €

	Inportazioak Importaciones	**Berne eragiketak** Op. Interiores	**Guztira** Total
2004ko Likidazioa / Liquidación 2004	73.746	408	74.154
2005ko urtarrila-martxoa / Enero-marzo	176.085	134.994	311.079
2005ko apirila-ekaina / Abril-junio	200.835	114.652	315.487
2005ko uztaila-iraila / Julio-septiembre	153.141	96.584	249.725
2005ko urria-abendua / Octubre-diciembre	124.379	137.922	262.301
GUZTIRA / TOTAL	728.186	484.560	1.212.746

KOADROA / CUADRO IV.71

2004 zerga-ekitaldiko doiketari dagokion likidazioaren emaitza 2003 ekitaldikoa baino nabarmen handiagoa izan da; hala ere, zenbatekoak, diru-bilketari erreparatuta, ez dira munta handikoak.

La liquidación del Ajuste-04 arroja un resultado muy superior a la liquidación-03, si bien se trata de cifras de poca entidad recaudatoria.

Doiketak 2005 ekitaldian izan duen zenbatekoaren nondik norakoak ulertzeko, Estatuko diru-bilketaren bilakaerari erreparatu behar zaio, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren doiketako elementuek urte horretako azaroan adierazitako zenbakiak aintzat hartuta. Hala, diru-bilketa aurreko

El importe del ajuste del ejercicio 2005 es consecuencia directa de la evolución de la recaudación estatal contabilizada por los conceptos componentes del Ajuste IVA al mes de noviembre del citado año, en el que el IVA total ha incrementado su recaudación en torno al 11%, muy por debajo de cómo lo han

ekitaldikoa baino % 11 handiagoa izan da, gainerako zerga nagusiek (Sozietateen gainekoa eta Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa) izandakoa baino igoera apalagoa adieraziz.

hecho otros grandes tributos como el Impuesto sobre Sociedades y el IRPF.

Balio Erantsiaren gaineko Zergak inportazioen atalean bildutako diruak % 21,2 egin du behera, autolikidazioan Parekatutako Eragiketengatiko kuoten kengarritasuna aplikatzeko aukera indarrean jarri ondoren ekainetik aurrera. Hala ere, diru-bilketa formalizatuta, 2004ko azaroan bildutakoa baino lau puntu handiagoa da bildutako zenbatekoa, eta 2004ko likidazioak zenbateko handiagoa adierazi zuela aintzat hartuta, doiketaren murrizketa edo balio-galera % 12,7koa izan da.

La recaudación realizada por el IVA-Importaciones, afectada a partir de junio por la deducibilidad de las cuotas por Operaciones Asimiladas en la misma autoliquidación, decrece un 21,2%. No obstante, la formalización de la recaudación supera en cuatro puntos a la de noviembre-04, lo que unido al mayor importe de la liquidación-04, reduce al 12,7% el decremento del ajuste resultante.

Oso bestelakoa izan da Balio Erantsiaren gaineko Zergak barne-eragiketen atalean izan duen bilakaera, aurreko ekitaldian baino % 23,1 gehiago bildu baita, enpresa handien eta esportatzaileen ekarpena handia izan baita. Zergaren atal horren goranzko bilakaera enpresa txiki eta ertainek ordaindutako BEZarena baino zenbait puntu handiagoa izan da.

Muy distinta es la evolución del IVA-Operaciones interiores, que ve incrementar su recaudación realizada en un 23,1%, con una notable aportación de las grandes empresas y exportadores, cuyo ritmo recaudatorio supera en varios puntos al seguido por el IVA proveniente de las PYMEs.

Logikoa denez, Estatuko diru-bilketa osatzen duten tasa horiek ez dira homogeneoak, eragin handia baitu horiengan Parekatutako Eragiketengatiko diru-sarrerak kontabilizatzeko moduaren aldaketak; izan ere, lehen, BEZaren inportazioen atalean jasotzen ziren, eta orain, berriz, BEZaren barne-eragiketen atalean.

Lógicamente, ninguna de estas tasas que presenta la recaudación estatal es homogénea, pues están fuertemente afectadas por el traslado de los ingresos de las Operaciones Asimiladas que antes se contabilizaban en el IVA-Importaciones y que ahora figuran en el IVA-Operaciones interiores.

4. Fabrikazioko Zerga Bereziak

4. Impuestos especiales de fabricación

Fabrikazioko zerga berezi guztiek bildu dute, 2005 ekitaldian, aurreko zerga-ekitaldian baino diru gehiago. Foru-aldundiek 1.285 milioi euro bildu dituzte alkohola, hidrokarburoak, garagardoa eta tabakoa zergapetzen duten zergetatik; hau da, aurreko urtean baino 45 milioi gehiago. Beraz, fabrikazioko zerga berezi guztiek aurreko urtean baino % 3,6 gehiago bildu dute, nahiz eta zerga bakoitzaren bilakaerak alde handiak erakutsi.

En el ejercicio 2005 todos los Impuestos Especiales de Fabricación han recaudado más que en 2004. Las Diputaciones Forales han ingresado por Alcohol, Hidrocarburos, Cerveza y Tabaco un total de 1.285 millones de euros, esto es, casi 45 millones, por encima de la recaudación contabilizada en el año anterior, lo que representa un aumento del 3,6% para el conjunto de estos impuestos, que siguen trayectorias muy diferentes.

Zenbateko apalenak biltzen dituzten zergak (alkoholaren gainekoa eta garagardoaren gainekoa) izan dira bilakaera hoberena izan dutenak. Zerga-tasen igoerak zerikusi

Esta norma establece, en su Disposición Adicional Segunda, que el conjunto de los Municipios tiene garantizado un nivel de recursos no inferior al que le pudiera corresponder por aplicación de la legislación de régimen común, así como la dotación presupuestaria de los oportunos Planes Forales de Obras y Servicios, cuya redacción y aprobación es competencia exclusiva de los Órganos Forales de los Territorios Históricos, artículo 7.a).5, para atender a las necesidades de inversión y equipamiento local.

En coherencia con este modelo de asignación económica y de tutela financiera que corresponde a las Diputaciones Forales, en clara sintonía con lo establecido en el artículo 48 del Concierto Económico, y a los efectos de conseguir una plena articulación de la Hacienda General del País Vasco con las Haciendas de los Órganos Forales y de los Entes Locales, se establece que éstos deberán aplicar, en la forma que determine el Consejo Vasco de Finanzas (órgano creado por la propia Ley 27/1983), criterios homogéneos a los utilizados por las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma en materia de procedimiento presupuestario y contabilidad pública (Disposición Adicional Segunda 3.1).

Así mismo, las operaciones a crédito superior a un año que deseen concertar los Entes Locales, se coordinarán y armonizarán con las de los Territorios Históricos y con la política de endeudamiento de la Comunidad Autónoma en el seno del Consejo Vasco de Finanzas (Disposición Adicional Segunda 3.2).

Lejos de concebir un sistema financiero estrictamente local, la norma ha extendido al ámbito municipal los criterios generales de financiación entre las distintas Instituciones Comunes y Forales, que han de determinarse en el Consejo Vasco de Finanzas.

Urriaren 4ko 6/2002 Legearen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko foru-aldundiek 2002-2006 aldian egingo dituzten ekarpenak zehazterakoan erabiliko den metodologia onartu zen; honako hau ezartzen du laugarren xedapen gehigarriaren 1. atalean: Lurralde historikoetako foru-erakundeak, Ekonomia Itunean eta azaroaren 25eko 27/1983 Legean onartuta dituzten eskumenak ere baztertu gabe, arrisku partekatuaren irizpideaz baliatuko dira lurralde historikoei dagozkien zerga itunduetan toki-erakundeen parte-hartzea urtero ezartzeko garaian.

Horrez gain, Dirubideen Euskal Kontseiluak, laugarren xedapen gehigarriko 2. atalean, gomendioa egiten die lurralde historikoetako foru-organoei, ondoren zehaztuko den adierazpenaren emaitzaren % 53 erabil dezaten, gutxienez, beren menpeko toki-erakundeentzat; hona hemen adierazpena:

$$\mathbf{RD_i - DF_i}$$

hor:

RD_i lurralde historikoaren baliabide erabilgarriak dira, honela zehaztuta:

$$RD_i = (R_i - D_i - P_i - AG_i - T_i \pm FS_i)$$

Azpi-indizeak i: Lurralde Historiko.

R_i: Ekonomia Itunaren kudeaketatik sortu eta banaketa-gai diren diru-sarrerak dira:

- Zerga itunduak direla- eta egindako diru-bilketa.
- Zerga itunduak direla-eta sortutako interes likidoak.

D_i: Kupoaren metodologiatik sortutako egokitzapenak dira:

- Estatuari ordaintzeko kupo likidoa.
- Kupoaren metodologiaren konpentsazioak.
- Ertzaintza handitzea.

La Ley 6/2002, de 4 de octubre, por la que se aprueba la metodología de determinación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable al período 2002-2006, establece en el apartado 1 de la Disposición Adicional Cuarta que los Órganos Forales de los Territorios Históricos, y sin perjuicio de sus facultades reconocidas en el Concierto Económico y la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, utilizarán el criterio de riesgo compartido al establecer anualmente la participación de los Entes Locales en los ingresos concertados correspondientes a los Territorios Históricos.

Además, el Consejo Vasco de Finanzas, apartado 2 de la Disposición Adicional Cuarta, recomienda a los Órganos Forales que destinen a los Entes Locales de ellos dependientes, en concepto de participación en la recaudación por tributos concertados, como mínimo el 53% del resultado de la siguiente expresión:

$$\mathbf{RD_i - DF_i}$$

siendo:

RD_i los recursos disponibles del territorio histórico, definidos por:

$$RD_i = (R_i - D_i - P_i - AG_i - T_i \pm FS_i)$$

Subíndice i: Territorio Histórico.

R_i: son los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico sujetos a reparto:

- Recaudación por tributos concertados.
- Intereses líquidos por razón de tributos concertados.

D_i: son los ajustes procedentes de la metodología del Cupo:

- Cupo líquido al Estado.
- Compensaciones de la metodología de Cupo.
- Ampliaciones de la Policía Autónoma.

- Euskadiri eskumen berriak eskualdatzea.

P_i: Kenkari bereziak.

AG_i: Erakunde erkideentzako ekarpen orokorra.

T_i: erakunde erkideek foru-organoei egin eta metodología honetako 10. artikuluan aipatutako eskualdaketa berrien balioespena.

FS_i: Elkartasun-Funts garbia.

DF_i: Ondorengo kenkarien batuketa:

- Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileei lotutako eskualdaketak finantzatzeko kenkaria, eskumen hori baliatzea foru-erakundeei dagokienean.
- Joan zen 1997-2001 bosturtekoan foru-organoei eskualdatutako eskumenak finantzatzeko kenkaria.
- BEZarekin ordezkatu diren diru-sarreren konpentsazioko kenkaria.
- Kenkari horiek ekitaldi bakoitzerako eguneratuko dira eguneratzeko indizea aplikatuta: RD^t_i/RD^0_i. Hor, RD^t_i t ekitaldian i lurraldeko baliabide erabilgarriak dira, eta RD^0_i 2002 oinarriko urtean.

2.c. Lurralde historiko bakoitzeko toki-finantzaketa

2.c.1. Arabako Lurralde Historikoa

Arabako Lurralde Historikoko ekonomia- eta aurrekontu-araubideari buruz abenduaren 18an emandako 53/1992 Foru Arauaren 87. artikuluak dioenaren arabera, ekitaldia hasitakoan, ekitaldi horri dagozkion Aurrekontuak indarrean sartuta ez badaude, aurreko ekitaldiko aurrekontuak luzatuko dira. Ildo beretik, 74/2004 Foru Dekretuak aurrekontu-luzapenari buruzko 62/2003 Foru Dekretua eguneratu du (3/2004 eta 28/2004 Foru Dekretuek aldatu zuten gerora), indarrean jarraitzen baitu aurrekontu-luzapenak.

- Traspaso de nuevas competencias al País Vasco.

P_i: Deducciones especiales.

AG_i: Aportación General a las instituciones comunes.

T_i: valoración de los nuevos traspasos desde las instituciones comunes a los órganos forales a los que se refiere el artículo 10 de la presente metodología.

FS_i: Fondo de Solidaridad neto.

DF_i: Suma de las siguientes deducciones:

- Deducción para financiar los traspasos asociados a las entidades gestoras de la Seguridad Social, cuando el ejercicio de la competencia corresponde a las instituciones forales.
- Deducción para financiar los traspasos de competencias a los órganos forales efectuados en el quinquenio 1997-2001.
- Deducción por la compensación por ingresos sustituidos por el IVA.
- Estas deducciones se actualizarán para cada ejercicio por aplicación del siguiente índice de actualización: RD^t_i/RD^0_i. Donde, RD^t_i son los recursos disponibles del territorio i en el ejercicio t, y RD^0_i en el año base 2002.

2.c. Financiación local en cada Territorio Histórico

2.c.1. Territorio Histórico de Álava

De acuerdo con las previsiones del artículo 87 de la Norma Foral 53/1992, de 18 de diciembre, de Régimen Económico y Presupuestario del Territorio Histórico de Álava, si los Presupuestos correspondientes a un ejercicio no hubiesen entrado en vigor al iniciarse éste, se considerarán prorrogados los del ejercicio anterior. El Decreto Foral 74/2004 actualiza el Decreto Foral 62/2003 de prórroga presupuestaria (modificado por Decretos Forales 3/2004 y 28/2004) al continuar vigente la prórroga presupuestaria.

Indarrean dagoen araudiari eta aurreikusitako diru-sarrerei jarraiki, toki-erakundeen finantzaketarako foru-funtsa 156.822 mila eurokoa da. Udalak itundu gabeko zergetan duen partaidetza nola ordaindu zehazteko orduan (2002ko Ekonomia Itunaren 51. artikulua), Estatuko Administrazioak ezarri zituen kopuru eta epe berberak finkatu dira. Indarreko araudiaren eta aurreikusitako diru-sarreren arabera, Obra eta Zerbitzuen Foru Planak 11.587,4 mila euroko aurrekontua du.

El Fondo Foral de Financiación para las Entidades Locales se fija en 156.822 miles de euros, conforme a la normativa vigente y los ingresos previstos. El abono de las participaciones municipales en los tributos no concertados (artículo 51 del Concierto Económico de 2002) se ordenó por los mismos importes y periodicidad con que se libró por la Administración del Estado. El Plan Foral de Obras y Servicios se presupuesta en 11.587,4 miles de euros, de acuerdo con la normativa vigente y los ingresos previstos.

Ekainaren 30eko 19/1997 Foru Arauak arautzen du itundutako diru-sarreran toki-erakundeek (koadrilak, udalak eta kontzejuak) zein eratako partaidetza duten. Foru-arau horren III. tituluan zehazten da toki-erakundeen finantzaketarako foru-funtsaren zenbatekoa nola banandu behar den urtero. Ekitaldi bakoitzerako funts-hornidura lurralde historikoaren baliabide erabilgarrien % 50 izan behar da, gutxienez. Toki-erakundeek funts horretatik jasotzen dituzten ekarpenak aurrekontuko zenbatekoaren kargura egiten dira. Kopuru horiek beren ogasunen baliabide arruntak dira, erabilera librekoak eta baldintzarik gabekoak, toki-araubideko araudiaren arabera toki-erakundeek eskaini beharreko zerbitzu guztiei eutsi ahal izateko.

La Norma Foral 19/1997, de 30 de junio, recoge la participación de las Entidades Locales (Cuadrillas, Ayuntamientos y Concejos) en la imposición concertada. Su Título III está dedicado a la distribución anual del importe de la dotación del Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales, dotado para cada ejercicio con al menos el 50% de los recursos disponibles del Territorio Histórico. Las aportaciones que reciben del Fondo las Entidades Locales, con cargo a la cantidad presupuestada, constituyen un recurso ordinario de sus respectivas Haciendas, de libre disposición y no condicionado para el sostenimiento de todos los servicios que deben prestar conforme a la legislación de régimen local.

Lau partaidetza-mota hauek daude:

Se distinguen cuatro tipos de participaciones:

a) Zerbitzuak eskaintzeagatik ematen zaien partaidetza, baldin eta zerbitzu horiek Arabako Foru-aldunditik Arabako toki-erakundeetara pasatakoak badira.

a) Participación por la prestación de servicios, que, en su caso, se traspasen desde la Diputación Foral de Álava a las Entidades Locales alavesas.

b) Koadrila bakoitzari ematen zaion partaidetza-kopuru finkoa, 67.613,86 eurokoa, eta gastu konkretuetarako koadrilei emandako beste diru-hornidura batzuk.

b) Participación fija de 67.613,86 euros a cada Cuadrilla y otras dotaciones a las Cuadrillas, afectadas a la financiación de gastos concretos.

c) Kontzejuen, Udalen eta Koadrilen oinarrizko partaidetza: Aurreko bi partaidetzak kenduta daudela, FOFELaren % 27. Populazio-gune bakoitzak ematen dituen oinarrizko toki-zerbitzu publikoen arabera kalkulatzen da. Honela banatzen

c) Participación básica de Concejos, Ayuntamientos y Cuadrillas: 27% del FOFEL una vez deducidas las dos participaciones anteriores. Se calcula en función de la prestación de los servicios públicos locales básicos de cada núcleo de población. La

da zerbitzu bakoitzari esleitutako zenbatekoa: % 70, gune bakoitzaren biztanle-indizeari erreparatuta, eta, gainerako % 30, zerbitzu-eremuaren sakabanatze-indizeari begiratuta. Zerbitzu bakoitzari dagokion zenbatekoa zehaztu ondoren, zerbitzua emango duen toki-erakundeari ematen zaio.

cantidad resultante para cada servicio se distribuye un 70% en función del índice de población de cada núcleo y un 30% en función del índice de dispersión de cada núcleo en que el servicio es prestado. Determinada la cantidad correspondiente a cada servicio, se destina a la Entidad Local que efectivamente preste el servicio de que se trate.

d) Udalek partaidetza osagarria izango dute bakoitzak bere tamainaren arabera eman beharreko udal-zerbitzuen garrantzia aintzakotzat hartuta: Aurreko a) eta b) partaidetzak kenduta daudela, FOFELaren % 73. Udal bakoitzari dagokion partaidetza osagarria honako hauen arabera erabakiko da:

1) 21.035,42 euro finko udal bakoitzari.

2) Gainerakoa:

- % 59, Udalerri bakoitzaren zuzenbidezko biztanle-kopuruaren arabera.
- % 5, Udalerri bakoitzaren per capita ahalegin fiskalaren arabera, zuzenbidezko biztanleriaz haztatuta.
- % 12,25 banatuko da, zuzenbidezko biztanleei erreparatuta, 1.000 biztanletik gorako udalen artean.
- % 9,5 banatuko da, zuzenbidezko biztanleei erreparatuta, 5.000 biztanletik gorako udalen artean.
- % 9,25 banatuko da, zuzenbidezko biztanleei erreparatuta, 15.000 biztanletik gorako udalen artean.
- % 5eko partaidetza izango dute 50.000 biztanletik gorako udalek.

d) Participación complementaria de los Ayuntamientos en función de los servicios de carácter municipal que según su tamaño deben prestar: 73% del FOFEL una vez deducidas las participaciones a) y b) anteriores. La asignación correspondiente a cada ayuntamiento con cargo a la participación complementaria se determina de la siguiente manera:

1) 21.035,42 euros fijos a cada Ayuntamiento.

2) El resto:

- 59% en proporción a la población de derecho de cada Municipio.
- 5% según esfuerzo fiscal per cápita de cada Municipio, ponderado por su población de derecho.
- 12,25% entre Ayuntamientos de más de 1.000 habitantes, según su población de derecho.
- 9,5% entre Ayuntamientos de más de 5.000 habitantes, en proporción a su población de derecho.
- 9,25% entre Ayuntamientos de 15.000 o más habitantes, según su población de derecho.
- 5% a los Ayuntamientos de más de 50.000 habitantes.

Udal eta koadrila bakoitzari hiru hilean behin ematen zaie dagokien zenbatekoa, urte bakoitzeko urtarrileko, apirileko, uztaileko eta urriko azken egunean; zenbatekoa berdina izango da guztietan. Kontzejuari zenbatekoa sei hilean behin ematea onartu da, urte bakoitzeko urtarrileko eta uztaileko azken egunean; zenbatekoa berdina izango da guztietan. Toki-erakundeek diru-aurrerapenak eska diezazkiekete foru-aldundiei. Diru hori

El importe correspondiente a cada Ayuntamiento y Cuadrilla se libra trimestralmente, a partes iguales, el último día hábil de los meses de enero, abril, julio y octubre de cada año; el abono de la asignación aprobada para cada Concejo, se librará semestralmente, a partes iguales, el último día hábil de los meses de enero y julio de cada año. Las Entidades Locales podrán solicitar anticipos de tesorería a la Diputación Foral, a cuenta de los recursos

Finantzaketarako Foru Funtsak toki-erakundeei ematen dien partaidetzari esker eskuratzeko dituzten baliabideetatik lor dezakete. Aipatu aurrerakinak ezarrita duten mugaeguna iristerako ordaindu beharko dira, eta, gehienez ere, dirua eman eta hurrengo hiruhilekoan erregularizatuko dira.

Obra eta Zerbitzuen Foru Plana, azken batean, lan-tresna da, Arabako Foru Aldundiak toki-erakundeen inbertsio-planetan nola kooperatu behar duen arautzeko; 8/1993 Foru Arauak ez bezala, 19/1997 Foru Arauak ez dio plan horri inongo erreferentziarik egiten, beste Foru Arau batean dagoelako aparte araututa, diru-hornidurak ezartzeko; hau da, lurralde historikoak dituen baliabide erabilgarrien % 3,70 gutxienez. Obra eta Zerbitzuen Foru Plana apirilaren 14ko 14/1997 Foru Araua dago araututa, eta foru-arau horren bidez araututako lankidetza-tresnetan ezarritako laguntzak hartu ahal izango dituzte Arabako Lurralde Historikoko kontzejuek, udalek (Gasteizkoak izan ezik) zerbitzu-ermandadeek eta koadrilek.

2.c.2. Bizkaiko Lurralde Historikoa

Udalerriek partaidetzak izango dituzte zerga itunduetako diru-sarreretan; eta partaidetza horiek Udalkutxa - Udalen Finantzaketarako Foru Funtsa osatuko dute. Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2005erako aurrekontu orokorrei buruzkoa da abenduaren 30eko 3/2004 Foru Araua; hor finkatuta dagoenez, 520.470,7 mila euroko kreditua emango zaio aipatu funtsari, honako irizpide hauen arabera banatuta:

1) Bilboko Udala finantzatzera zuzenduko den aurrekontu-kreditua 197.047,7 mila eurokoa izango da.

2) Ustekabeko gastuak eta Udalerrien Elkarteak finantzatzeko erabiliko diren aurrekontu-kredituak 3.903,5 eta 780,7 mila eurokoak dira, hurrenez hurren.

3) Bilbo kanpoan utzita, gainerako udalerrien finantzaketarako 318.738,7 mila euroko aurrekontu-kreditua erabiliko

que hayan de percibir correspondientes a su participación en el Fondo Foral de Financiación para las Entidades Locales. Estos anticipos deberán ser reembolsados a su vencimiento y en todo caso quedarán regularizados con el pago a cuenta del trimestre siguiente al de su concesión.

Al contrario de la Norma Foral 8/1993, en la Norma Foral 19/1997 no se incluye referencia alguna al Plan Foral de Obras y Servicios, instrumento regulador de la cooperación de la Diputación Foral de Álava a los planes de inversión de las Entidades Locales, que es objeto de regulación separada en otra Norma Foral, y cuya dotación se establece en al menos el 3,70% de los recursos disponibles del Territorio Histórico. La Norma Foral 14/1997, de 14 de abril, regula el Plan Foral de Obras y Servicios, pudiendo acogerse a las ayudas establecidas en los instrumentos de cooperación regulados en la Norma Foral los Concejos, Ayuntamientos, excluido el de Vitoria-Gasteiz, Hermandades de Servicios y Cuadrillas del Territorio Histórico de Álava.

2.c.2. Territorio Histórico de Bizkaia

Las participaciones de los Municipios en los ingresos por tributos concertados constituyen el Fondo Foral de Financiación Municipal-Udalkutxa. En la Norma Foral 3/2004, de 30 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para 2005 se fija el crédito presupuestario destinado a dicho fondo en 520.470,7 miles de euros, distribuido con los siguientes criterios:

1) El crédito presupuestario destinado a la financiación del ayuntamiento de Bilbao se cifra en 197.047,7 miles de euros.

2) Los créditos presupuestarios destinados a la financiación de imprevistos y a la Asociación de Municipios se cifran respectivamente en 3.903,5 y en 780,7 miles de euros.

3) El crédito presupuestario destinado a la financiación del resto de Municipios, excluido Bilbao, se cifra en 318.738,7 miles de euros.

da. Honako hauek dira banaketa-irizpideak:

a) Udalerri bakoitzari 81.137 euro emango zaizkio.

b) Gainerakoa honako aldagai eta ehunekoen arabera banatuko da:

Zenbatekoaren % 80 banatuko da, udalerri bakoitzeko zuzenbidezko biztanleei erreparatuz.

% 13 banatuko da, udalerri bakoitzeko zuzenbidezko biztanleei erreparatuta, ahalegin fiskalaren arabera haztatua.

Gainerako % 7 honako portzentaje eta aldagaien arabera banatuko da:

- Haur-hezkuntza, lehen hezkuntza eta hezkuntza berezia aintzat hartuta, % 60, ikastetxe publikoetan dauden unitate-kopuruen arabera.
- % 18, langabeziaren arabera.
- beste % 18, sakabanaketa-mailaren arabera.
- Gainerako % 4a, hondartzen arabera.

Aurreko zenbakian aipatutako banaketa-irizpideak aplikatuta Udalerri bakoitzerako eta Udalerri Elkarterako esleitu behar den aurrekontu-kreditutik, dagokion ordainketa egingo zaio bakoitzari, konturako ordainketa gisa; era horretara, beraz, kreditu horren hamabirena emango zaio bakoitzari hilero. Hileko lehen hogei egunetan ordainduko zaie.

2.c.3. Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrak onartzeko eman zen abenduaren 23an 9/2004 Foru Araua; horren bitartez, Udalen Finantzaketarako Foru Funtsari (UFFF) 332.738,6 mila euro esleitu zaizkio 2005ean, Ekonomia Itunaren baliabideetan parte hartzeko. Hori horrela egin da, 1995eko eta hurrengo ekitaldietarako UFFF arautzen duen 15/1994 Foru-arauaren 2. artikuluak araututakoa betetzeko.

Los criterios de distribución son los siguientes:

a) Cada municipio percibirá una asignación de 81.137 euros.

b) El resto se distribuirá de acuerdo a las variables y porcentajes siguientes:

El 80% en función del número de habitantes de derecho de cada municipio.

El 13% en función del número de habitantes de derecho de cada municipio, ponderado por su esfuerzo fiscal.

El 7% restante en función de los siguientes porcentajes y variables:

- El 60% en función del número de unidades escolares de educación infantil, primaria y especial existentes en centros públicos.
- El 18% en función del paro.
- El 18% en función de la dispersión.
- El 4% restante en función de las playas.

Con cargo al crédito presupuestario resultante para cada municipio y para la Asociación de Municipios de la aplicación de los criterios de distribución contenidos en el número anterior, se efectuará un pago a cuenta mensual a cada uno de ellos, por importe de la doceava parte de dicho crédito. El pago se efectuará en los primeros veinte días de cada mes.

2.c.3. Territorio Histórico de Gipuzkoa

La Norma Foral 9/2004, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa fija la dotación del Fondo Foral de Financiación Municipal, FFFM, para 2005 en la cantidad de 332.738,6 miles de euros, en concepto de participación en los recursos del Concierto Económico de acuerdo a lo previsto en el artículo 2 de la Norma Foral 15/1994, reguladora del FFFM para el ejercicio 1995 y siguientes.

15/1994 Foru Arauak xedatutakoaren arabera, honela banatuko da Udalen Finantzaketarako Foru Funtsaren zenbateko osoa:

1. Gipuzkoako udalerrien artean banatuko da % 99,85. Hauek dira banaketa-irizpideak:

- 1.100 biztanletik beherako udalerriei % 1,2, zenbateko finko hauek emango zaizkie:

  200 biztanle artekoei.....84.141,69 €
  201 eta 400 artekoei.....72.121,45 €
  401 eta 600 artekoei.....60.101,21 €
  601 eta 1.000 artekoei..... 36.060,73 €
  1.001 eta 1.100 artekoei..24.040,48 €

- % 90 banatzen da, udalerrien zuzenbidezko biztanleen proportzio zuzenari erreparatuta.
- % 2,15 Donostiari esleituko zaio, hiriburua den aldetik.
- % 3, Udalerri bakoitzaren errentaren alderantzizko proportzioan, zuzenbidezko biztanleen kopuruaren arabera haztatuta.
- % 3,5, Udalerri bakoitzeko ahalegin fiskalaren proportzio zuzenean, zuzenbidezko biztanleen kopuruaren arabera haztatuta.

2. Funtseko zenbatekoaren gainerako % 0,15 EUDEL, Euskal Herriko Udalen Elkartea finantzatzera bideratzen da berariaz.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru hilean behin, hau da, otsailean, maiatzean, abuztuan eta azaroan emango dizkie udalerriei hasieran finkatutako zenbatekoen laurdena, gerora likidazioa egin beharko dela jakinda.

Ekonomia Ituneko 51. artikuluak araututakoa betez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako toki-erakundeen artean banatu behar ditu itundu gabeko zergen zeharkako ekarpenetatik izan dituen diru-sarrerak.

Según lo dispuesto en la Norma Foral 15/1994, la cuantía total del Fondo Foral de Financiación Municipal se distribuirá del siguiente modo:

1. El 99,85% entre los Municipios de Gipuzkoa según los criterios siguientes:

- 1,2% entre Municipios de hasta 1.100 habitantes, con los importes fijos:

  Hasta 200.....84.141,69 €
  De 201 a 400.....72.121,45 €
  De 401 a 600.....60.101,21 €
  De 601 a 1.000.....36.060,73 €
  De 1.001 a 1.100.....24.040,48 €

- 90% en proporción directa a los habitantes de derecho de los Municipios.
- 2,15% se asignará a Donostia-San Sebastián, por razón de capitalidad.
- 3% en proporción inversa a la renta de cada Municipio ponderada por el número de sus habitantes de derecho.
- 3,5% en proporción directa al esfuerzo fiscal de cada Municipio ponderado por el número de sus habitantes de derecho.

2. El 0,15% restante del total de la cuantía del Fondo se destina a la financiación específica de la Asociación de Municipios Vascos, EUDEL.

Trimestralmente, en los meses de febrero, mayo, agosto y noviembre, la Diputación Foral hará efectivo el pago a favor de los Municipios de la cuarta parte de las cantidades inicialmente previstas, sin perjuicio de la liquidación.

La aportación indirecta mediante participación en tributos no concertados se distribuirá por la Diputación Foral entre los Municipios de Gipuzkoa, de acuerdo a lo previsto en el Concierto Económico (artículo 51).

2.d. Lurralde Erkideko Udalerrien Finantzaketa

Udalerriek Estatuko zergetan izango duten partaidetza abenduaren 27ko 51/2002 Legearen arabera erabaki behar da. Lege horrek aldatu egin zuen abenduaren 28ko 39/1988 Legea, Toki Ogasunak arautzekoa.

1. Udalerri bakoitzaren partaidetza dela-eta Finantzaketarako Funts Osagarrian 2004an egin beharreko konturako ekarpenen kopuru osoa berariaz kontsignatutako kredituan jasoko da Lurralde Finantzaketaren Zuzendaritza Orokorreko. 942 M Programaren 32. sekzioko 23. zerbitzuan. Udalerri horiek Tokiko Ogasunak arautzekoa den martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunen Legearen Testu Bateratuko 111. artikuluak araututako eremu subjektibokoak izango dira.

Zenbateko hori kalkulatzeko, 2004an Funts Osagarri horretan jasotako konturako ekarpenen zenbatekoa gehituko zaio bilakaera-indizearen aurreikuspenari, Tokiko Ogasunak arautzekoa den martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunen Legearen Testu Bateratuko 121. artikuluak araututakoaren arabera; betiere, zenbateko hori kalkulatzerakoan, Estatuko Aurrekontu Orokorrak 2004rako onartzekoa den abenduaren 30eko 61/2003 Legeko 70 bi artikuluak ezarritakoa hartuko da oinarri.

Udalerriek Finantzaketarako Funts Osagarrian duten partaidetzaren konturako ekarpenen zenbatekoa zehazteko, Ekonomia Jardueren gaineko Zerga aldatzeak haiei sorrarazi dien diru-sarreren galera konpentsatzeko kopuruaren % 95 handituko da hura ekarpen-zenbatekoa kalkulatzeko oinarria.

Konturako diru-emateak hilero egingo dira, eta bakoitzean zenbateko osoaren hamabiren bat emango da.

2. Udalerriek Finantzaketarako Funts Osagarrian egin beharreko konturako diru-

2.d. Financiación de los Municipios en Territorio Común

La participación de los Municipios en los tributos del Estado se determinará con arreglo a las normas contenidas en la Ley 51/2002, de 27 de diciembre, de reforma de la Ley 39/1988, de 28 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales.

1. El montante global de las entregas a cuenta de la participación de cada municipio incluido en el ámbito subjetivo del artículo 111 del texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, en el Fondo Complementario de Financiación correspondiente a 2004 se reconocerá con cargo al crédito específico consignado en la Sección 32, Servicio 23, Dirección General de Financiación Territorial, Programa 942 M.

El citado importe se calculará incrementando, en la previsión del índice de evolución establecido con arreglo a lo dispuesto en el artículo 121 del texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, la cuantía de las entregas a cuenta percibidas por este Fondo Complementario en el año 2004, calculado en los términos del apartado Dos del articulo 70 de la Ley 61/2003, de 30 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2004.

El importe de las entregas a cuenta de la participación en el Fondo Complementario de Financiación se determinará incrementando la base de cálculo en una cuantía equivalente al 95 por 100 de la compensación definitiva por merma de ingresos derivada de la reforma del Impuesto sobre Actividades Económicas.

Las entregas a cuenta serán abonadas mediante pagos mensuales equivalentes a la doceava parte del montante global.

2. El montante global destinado a realizar las entregas a cuenta a los municipios

emateen zenbatekoa jarduneko ekitaldian Estatuko zergetan parte hartzeagatiko finantzazio-aurreikuspenaren % 95ekoa izango da, eta Lurralde Finantzaketaren Zuzendaritza Orokorreko 942 M Programaren 32. Sekzioko 23. zerbitzuan berariaz kontsignatutako kredituan jasoko dira. Udalerri horiek Tokiko Ogasunak arautzekoa den martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunen Legearen Testu Bateratuko 122. artikuluak araututako eremu subjektibokoak izango dira.

incluidos en el ámbito subjetivo del artículo 122 del texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por el Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, equivalente al 95 por 100 de la previsión de su financiación total para el presente ejercicio por participación en los tributos del Estado, se reconocerá con cargo al crédito específico consignado en la Sección 32, Servicio 23, Dirección general de Financiación Territorial, Programa 942 M.

Estatuko zergen diru-sarreren igoera erabaki ondoren, behin betiko likidatu behar da udalerriek 2005eko Estatuko zergetan izango duten partaidetza.

Determinado el incremento de los ingresos tributarios del Estado, se efectúa la liquidación definitiva de la participación de los Municipios en los tributos del Estado para el 2005.

Estatuak, 2005ean, 2004ko diru-sarrerei dagokienez egin bezala, aurreko zenbatekoan behin betiko ordainak sartuko dizkie udalerriei, Ekonomia Jardueren Gaineko Zergaren erreformarengatik izandako diru-sarreren murrizketa dela-eta.

En la cuantía anterior se integrará, incrementado en los mismos términos que los ingresos del Estado en 2005 respecto de 2004, el montante de las compensaciones definitivas a los municipios por la merma de ingresos derivada de la reforma del Impuesto sobre Actividades Económicas.

Zenbateko osoa honako irizpide hauei jarraituz banatuko da:

El importe global se distribuirá de acuerdo con los siguientes criterios:

a. Udalerri bakoitzak, eskuarki, 2003ko Estatuko zergetan izandako partaidetzaren behin betiko likidaziotik esleitutako zenbateko gordin bera jasoko du. Zenbateko hori 2003ko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa den abenduaren 30eko 51/2002 Legeko 65. artikuluko hirugarren, laugarren eta bosgarren ataletan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

a. Como regla general cada Ayuntamiento percibirá una cantidad igual a la resultante, en términos brutos, de la liquidación definitiva de la participación en los tributos del Estado de 2003 calculada con arreglo a lo dispuesto en los apartados dos, tres, cuatro y cinco del artículo 65 de la Ley 51/2002, de 30 de diciembre, de Presupuestos Generales para 2003.

b. Gainerakoa proportzioan banatuko da, jarraian adieraziko diren aldagaien eta ehunekoen eta a) puntuan finkatutako zenbatekoen artean izandako emaitza positiboari erreparatuta. Hala, honako aldagai eta ehunekoak aplikatuko dira:

b. El resto se distribuirá proporcionalmente a las diferencias positivas entre la cantidad que cada Ayuntamiento obtendría de un reparto en función de las variables y porcentajes que a continuación mencionan y las cantidades previstas en la letra a) anterior. A estos efectos, las variables y porcentajes a aplicar serán:

- % 75, zuzenbidezko biztanleen arabera; biztanle-kopurua zehazteko orduan, Gobernuak ofizialki onartuta, Udalerri bakoitzean 2005eko abenduaren 31n indarrean zegoen

- 75% en función del número de habitantes de derecho de cada Municipio, según el padrón de población municipal vigente a 31 de diciembre de 2005, oficialmente aprobado por el Gobierno,

udaleko biztanle-errolda hartuko da oinarri. Biderkatzaile batek (1,00-1,40) haztatuko du kopuru hori, biztanleria-estratuei erreparatuz.

- % 12,5, Udalerri bakoitzak 2003ko ekitaldian izandako batez besteko ahalegin fiskalari erreparatuz, zuzenbidezko biztanleek haztatuta, betiere, Gobernuak ofizialki onartuta 2005eko abenduaren 31n indarrean zegoen biztanle-erroldaren arabera.
- % 12,5, zerga-gaitasunaren alderantzizkoaren arabera.

Udalerriek 2005eko ekitaldian Estatuko zergetan izango duten partaidetzaren zenbatekoak hilero ordainduko dira, zenbateko osoaren hamabiren bat emanez.

3. KUDEAKETA EKONOMIKOA

Ondoren EAEko Udalerrietako kudeaketa ekonomikoari buruzko datuak daude ikusgai. Horiek 2004ko ekitaldian likidatutako aurrekontuetatik hartu dira.

Datu hauek erakusten dute udalerriak eta eremu txikiagoetako toki-erakundeak areago batu direla, hau da, udalerriak, batetik, eta toki-erakunde txikiak, Administrazio-organo autonomoak eta Enpresa Publikoak, bestetik, estuago elkartu direla aurrekontuetan (azken bi kasuetan, % 50 baino gehiagoko partaidetza badago).

Atal honen amaieran, udal-sektore publikoaren baterakuntza orokorraren laburpen-datuak ageri dira, betiere, kontuan hartuta bai udalerriaz azpiko eremuetako erakundeak bai udalerriaz gaindikoak ere (mankomunitateak eta partzuergoak).

Baterakuntza orokorraz ez da azterketa zehatza egiten; izan ere, mankomunitateek eta partzuergoek udalerriei esleitutako aurrekontua ezin da partaidetza ekonomiko edo aurrekontu bidez egin, eta zerbitzu publikoaren eskaintzari buruzko balioztapenak (biztanleria, adibidez) aintzat hartuta egin behar da. Udal-baterakuntza bakoitzaren emaitza ez litzateke, beraz, udalerri

ponderado por un coeficiente multiplicador (1,00-1,40), según estratos de población.

- 12,5% en función del esfuerzo fiscal medio de cada Municipio en el ejercicio de 2003, ponderado por el número de habitantes de derecho de cada Municipio según el padrón municipal vigente a 31 de diciembre de 2005 y oficialmente aprobado por el Gobierno.
- 12,5% en función del inverso de la capacidad tributaria.

Las entregas a cuenta de la participación en los tributos del Estado para el ejercicio 2005 serán abonadas mediante pagos mensuales equivalentes a la doceava parte del respectivo crédito.

3. GESTIÓN ECONÓMICA

Los datos sobre la gestión económica de los Municipios del País Vasco que se exponen a continuación han sido tomados de los presupuestos liquidados del ejercicio 2004.

Estos datos contienen la consolidación de los Municipios con las Entidades de ámbito inferior al Municipio, es decir, con las Entidades Locales Menores, los Organismos Autónomos Administrativos y las Empresas Públicas (en los dos últimos casos cuando el Ayuntamiento participa en más de un 50%).

Al final de este apartado se presentan los datos resumen de la consolidación global del Sector Público Municipal, teniendo en cuenta tanto las entidades de ámbito inferior al Municipio como las supramunicipales (Mancomunidades y Consorcios).

El análisis detallado no se realiza con la consolidación global, dado que la atribución presupuestaria de las Mancomunidades y Consorcios a los Municipios no puede hacerse según la participación económica o presupuestaria, sino sólo en función de estimaciones sobre la prestación del servicio público (por ejemplo, población). El resultado de cada consolidación municipal no sería, por tanto, estrictamente el reflejo

bakoitzaren egoera ekonomikoaren isla zehatza, ezin delako inola ere datu horiek gainerako udalerriek dituztenekin konparatu.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan likidatutako aurrekontuek 1999 eta 2004 artean izan zuten bilakaera V.1 taulan azaltzen da. Azken urte horretan likidatutako diru-sarrerak eta gastuak % 7,8 eta % 2,2 hazi ziren, hurrenez hurren, 2003koekin alderatuz. Aurreko ekitaldian ez bezala, oraingoan diru-sarrerak gastuak baino gehiago igo ziren.

Gastuen eta diru-sarreren bilakaera ez zen berdina izan lurralde guztietan. Araba eta Gipuzkoan gastuek arinki egin zuten behera, eta diru-sarrerek, berriz, nabarmenki gora. Bizkaian, diru-sarrerak % 12,6 hazi ziren, eta gastuak, berriz, % 5,1.

económico de cada Municipio, planteando innumerables problemas de comparación entre Municipios.

La evolución entre los años 1999 y 2004 de los presupuestos liquidados de los Municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco se presenta en el Cuadro V.1. En este último año los ingresos y los gastos liquidados crecieron un 7,8% y un 2,2%, respecto a 2003. El crecimiento de los ingresos, al contrario de lo sucedido en el ejercicio anterior, fue superior al registrado por los gastos.

La evolución de los gastos y los ingresos por territorios no fue homogénea. Mientras que en Álava y Gipuzkoa los gastos descienden ligeramente frente a un aumento moderado de los ingresos, en Bizkaia, los ingresos crecen un 12,6% y los gastos un 5,1%.

EAE-KO UDALERRIEN DIRU-SARRERA ETA GASTUEN BILAKAERA
LURRALDE HISTORIKOKA ETA URTEKA, 1999-2004

INGRESOS Y GASTOS DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI 1999-2004
POR TERRITORIOS HISTÓRICOS Y AÑOS

000€

URTEAK AÑOS	**SARRERAK** / INGRESOS				**GASTUAK** / GASTOS			
	ARABA ÁLAVA	**BIZKAIA**	**GIPUZKOA**	**EAE** CAE	**ARABA** ÁLAVA	**BIZKAIA**	**GIPUZKOA**	**EAE** CAE
1999	333.353	1.017.419	719.005	2.069.777	309.879	947.266	713.209	1.970.454
2000	354.523	1.067.587	708.248	2.130.457	341.150	966.142	682.003	1.989.295
2001	333.107	1.189.856	766.542	2.289.505	332.246	1.041.407	753.423	2.117.076
2002	376.897	1.239.224	876.592	2.492.713	378.966	1.150.175	835.837	2.364.978
2003	398.935	1.238.396	917.482	2.554.814	404.138	1.310.548	908.692	2.623.378
2004	412.868	1.393.952	946.657	2.753.476	399.785	1.376.920	903.780	2.680.484
% 00/99	6,35	4,93	-1,50	2,93	10,09	1,99	-4,38	0,96
% 01/00	-6,04	11,45	8,23	7,47	-2,61	7,79	10,47	6,42
% 02/01	13,15	4,15	14,36	8,88	14,06	10,44	10,94	11,71
% 03/02	5,85	-0,07	4,66	2,49	6,64	13,94	8,72	10,93
% 04/03	3,49	12,56	3,18	7,78	-1,08	5,06	-0,54	2,18

KOADROA / CUADRO V.1

EAEko udalerrien diru-sarreren eta gastuen zenbatekoen bilakaera eta ehuneko-tasen aldaketaren eboluzioa ikus daitezke V.1 eta V.3 tauletan. Lurralde historikoen 2004ko diru-sarrerak eta gastuak alderatzen ditu V.2 grafikoak.

En los Gráficos V.1 y V.3 se presenta la evolución de los importes totales de ingresos y gastos del conjunto de Municipios del País Vasco y sus tasas porcentuales de evolución. La comparación por Territorios Históricos, ingresos y gastos en 2004, aparece en el Gráfico V.2.

EAE-KO UDALERRIEN DIRU-SARRERA ETA GASTUAK, 1999-2004
INGRESOS Y GASTOS 1999-2004
MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI



GRAFIKOA / GRÁFICO V.1

EAE-KO UDALERRIEN DIRU-SARRERA ETA GASTUAK LURRALDEKA, 2004. URTEAN
MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI 2004
INGRESOS Y GASTOS POR TERRITORIOS



GRAFIKOA / GRÁFICO V.2

EAE-KO UDALERRIEN DIRU-SARRERA ETA GASTUEN BILAKAERA EHUNEKOTAN, 1993-2004 EPEAN
EVOLUCIÓN PORCENTUAL DE LOS INGRESOS Y GASTOS DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI 1993-2004



GRAFIKOA / GRÁFICO V.3

3.a. Diru-sarrerak

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek 2.753,5 milioi euroko diru-sarrerak likidatu zituzten 2004an, aurreko urtean baino % 7,8 gehiago. Diru-sarrera horien bilakaera V.2 taulak irudikatzen du kapituluka sailkatuta, 1999-2004 aldiari dagokionez.

Batez bestekotik gora hazi ziren 9. kapitulua (finantza-pasiboak), 7.a (diru-transferentziak) eta 6.a (inbertsio errealen besterentzea); % 23,4, % 18 eta % 12, hurrenez hurren. Portaera negatiboa izan zuten 8. kapituluak (finantza-aktiboak) eta 5. kapituluak (ondarezko diru-

3.a. Ingresos

El importe de los ingresos liquidados en 2004 por los Municipios del País Vasco ascendió a 2.753,5 millones de euros, con un crecimiento del 7,8% respecto al año anterior. El Cuadro V.2 muestra, desglosado por capítulos, la evolución de los mismos en el período 1999-2004.

Los capítulos 9 (pasivos financieros), 7 (transferencias de capital) y 6 (enajenación de inversiones reales) crecen por encima de la media, 23,4, 18 y 12,4% respectivamente. Los capítulos 8 (activos financieros) y 5 (ingresos patrimoniales) tienen un comportamiento negativo,

sarrerak); 3. kapitulua (tasak eta beste diru-sarrera batzuk), berriz, batez bestekoan zegoen. Igo egin ziren 1. kapitulua (zerga zuzenak), 2.a (zeharkako zergak) eta 4.a (transferentzia arruntak), hurrenez hurren, % 4,7, % 2,7 eta % 6,7.

mientras que el crecimiento del capítulo 3 (tasas y otros ingresos) se sitúa en la media y los capítulos 1 (impuestos directos), 2 (impuestos indirectos) y 4 (transferencias corrientes) crecen un 4,7, 2,7 y 6,7% respectivamente.

EAE-KO UDALERRIEN DIRU-SARRERAK KAPITULUKA ETA URTEKA, 1999-2004
INGRESOS DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI 1999-2004 POR CAPÍTULOS Y AÑOS

000€

URTEAK AÑOS	KAPITULUAK/ CAPÍTULOS									GUZTIRA TOTAL
	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.	
1999	375.098	77.936	400.323	886.337	40.909	71.406	112.000	42.702	63.066	2.069.777
2000	392.433	82.588	418.339	912.923	54.936	66.477	101.396	8.120	93.147	2.130.357
2001	403.881	85.153	448.636	1.050.353	63.711	45.480	111.860	14.363	66.068	2.289.505
2002	420.813	102.138	490.431	1.034.694	58.899	89.028	136.270	14.134	146.307	2.492.713
2003	402.812	93.017	525.283	1.110.410	46.235	111.106	148.351	17.417	100.182	2.554.814
2004	421.749	95.501	565.765	1.184.394	45.701	124.934	175.076	16.720	123.635	2.753.476
% 00/99	4,62	5,97	4,50	3,00	34,29	-6,90	-9,47	-80,99	47,70	2,93
% 01/00	2,92	3,11	7,24	15,05	15,97	-31,58	10,32	76,90	-29,07	7,47
% 02/01	4,19	19,95	9,32	-1,49	-7,55	95,75	21,82	-1,60	121,45	8,88
% 03/02	-4,28	-8,93	7,11	7,32	-21,50	24,80	8,87	23,23	-31,53	2,49
% 04/03	4,70	2,67	7,71	6,66	-1,15	12,45	18,01	-4,00	23,41	7,78

KOADROA / CUADRO V.2

EAE-KO UDALERRIEN DIRU-SARRERAK KAPITULUKA, 2004. EKITALDIAN
INGRESOS DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI EN 2004 POR CAPÍTULOS

%



GRAFIKOA / GRÁFICO V.4

Udalerriz udalerri jasota, IV.2 eranskinean adierazten dira diru-sarrerak, eta bertan ikus daiteke Arabako diru-sarreren % 70,5 Gasteizi dagokiola. Beste bi euskal hiriburuei, hots, Donostiari eta Bilbaori, beren lurralde historikoko diru-sarreren % 32,5 eta % 28 dagokie. Era berean,

Analizando el Anexo IV.2, en el que se recogen los ingresos por Municipios, se observa que en Álava el 70,5% de los ingresos correspondieron a Vitoria-Gasteiz. En el caso de las otras dos capitales vascas, Bilbao y Donostia-San Sebastián, representaron el 32,5% y el 28% respecto

100.000 biztanletik gorako udalei (EAEko hiru hiriburuei, beraz) diru-sarrera guztien % 36,7 dagokie.

3.a.1. Tokiko zergen bilketa

Toki-zergen bilketen zenbatekoak, 1999 eta 2004 bitartekoak, V.3 taulak adierazten ditu; aldi horretan datuek urtetik urtera izandako aldaketa ere bertan azaltzen da. EAEko udalerrietan, 2004 ekitaldian, 517,2 milioi euro bildu ziren toki-zergen bidez. Beraz, 2003ko ekitaldiarekin alderatuz, % 4,3 hazi zen. Ondoren, V.4 taulan, lurralde historikoetako tokiko zergak eta horien pisu zehatza eta kontzeptu orokorrak bateratu dira EAEkoak lortzeko. Tokiko zergen zenbateko osoaren % 36,7 bildu dute EAEko hiri hiriburuek, eta zenbateko oso hori likidatutako zerga guztien % 18,8 izan da. Zerga-bilketaren datuak adierazten ditu V.5 grafikoak, tokiko zergei eta kontzeptu orokorrei erreparatuta.

de su Territorio Histórico. Así mismo, los Ayuntamientos de más de 100.000 habitantes (las tres capitales vascas) representaron el 36,7% sobre el total de los ingresos.

3.a.1. Recaudación de tributos locales

La recaudación por tributos locales en el período 1999-2004 y su variación interanual se recoge en el Cuadro V.3. En el ejercicio 2003 la recaudación por tributos en los Municipios del País Vasco ascendió a 517,2 millones de euros. Esto supuso un aumento del 4,3% respecto al año 2003. En el Cuadro V.4 se presentan las recaudaciones por tributos locales, consolidados por Territorios Históricos y para la Comunidad Autónoma, así como su peso específico. La recaudación por tributos locales, de la cual la correspondiente a las tres capitales vascas supuso el 36,7%, representó un 18,8% sobre el total de ingresos liquidados. En el Gráfico V.5 se aprecia la distribución de la recaudación por tributos locales y principales conceptos.

EAE-KO UDALERRIEN DIRU-SARRERAK BILTZEA. I. ETA II. KAPITULUAK
ZERGA ZUZENAK ETA ZEHARKAKO ZERGAK, LURRALDE HISTORIKOKA ETA URTEKA
RECAUDACIÓN CAPÍTULOS I Y II DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI
IMPUESTOS DIRECTOS E INDIRECTOS POR TERRITORIOS HISTÓRICOS Y AÑOS

000 €

URTEAK AÑOS	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE CAE
1999	63.484	238.395	151.155	453.044
2000	66.186	241.858	166.977	475.021
2001	70.858	251.572	166.604	489.044
2002	76.365	278.732	167.853	522.950
2003	77.000	251.611	167.218	495.829
2004	87.583	257.476	172.191	517.250
% 00/99	4,26	1,45	10,47	4,85
% 01/00	7,06	4,02	-0,22	2,95
% 02/01	7,77	10,80	0,75	6,93
% 03/02	0,83	-9,73	-0,38	-5,19
% 04/03	13,74	2,33	2,97	4,32

KOADROA / CUADRO V.3

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALERRIETAKO TOKIKO ZERGEN BILKETA LURRALDE HISTORIKOKA ETA URTEKA, 2004. EKITALDIAN
RECAUDACIÓN DE TRIBUTOS LOCALES EN LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI EN 2004 POR TERRITORIOS HISTÓRICOS Y TRIBUTOS

000€

TOKIKO ZERGAK IMPUESTOS LOCALES	**ARABA** / ÁLAVA		**BIZKAIA**		**GIPUZKOA**		**EAE** / CAE	
	ZENBATEKOA IMPORTE	**LH %** % T.H.	**ZENBATEKOA** IMPORTE	**LH %** % T.H.	**ZENBATEKOA** IMPORTE	**LH %** % T.H.	**ZENBATEKOA** IMPORTE	**EAE %** % CAE
Ondasun Higiezinen g/ Zerga Impuesto s/ Bienes Inmuebles	37.968	43,4	105.147	40,8	85.469	49,6	228.584	44,2
Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen g/ Zerga Impuesto s/ Vehículos Tracción Mecánica	13.603	15,5	50.045	19,4	34.010	19,8	97.658	18,9
Hiri-lurren Balio Igoeraren g/ Zerga Impuesto s/ Incr. Valor Terrenos Nat. Urbana	6.560	7,5	15.552	6,0	10.639	6,2	32.752	6,3
Ekonomia Jardueren g/ Zerga Impuesto s/ Actividades Económicas	11.194	12,8	35.091	13,6	15.661	9,1	61.946	12,0
Eraikuntza, Instalazio eta Obren g/ Zerga Impuesto s/ Construcción, Instalación y Obras	17.465	19,9	51.617	20,0	26.410	15,3	95.493	18,5
Beste zerga batzuk Otros impuestos	792	0,9	24	0,0	1	0,0	817	0,2
1. ETA 2. KAPITULUEN BATURA (1) SUMA CAPÍTULOS 1 Y 2 (1)	**87.583**	100,0	**257.476**	100,0	**172.191**	100,0	**517.250**	100,0
SARRERAK GUZTIRA (2) / TOTAL INGRESOS (2)	412.868		1.393.952		946.657		2.753.476	
% (1) / (2)	21,2		18,5		18,2		18,8	
% (1) / EAE-ko 1. eta 2. kapituluen batura % (1) / Suma Capítulos 1 y 2 de la C.A. de Euskadi	16,9		49,8		33,3		100,0	

KOADROA / CUADRO V.4

Ondasun Higiezinen gaineko Zerga, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gainekoa eta Ekonomia Jardueren gainekoa dira derrigorrez ezarri beharreko hiru tokiko zergak. Hiru zerga horiek tokiko zergek bildutakoaren % 75,1 jaso zuten.

Los tres impuestos de implantación obligatoria, es decir, los Impuestos sobre Bienes Inmuebles, sobre Vehículos de Tracción Mecánica y sobre Actividades Económicas, significaron el 75,1% de la recaudación por tributos locales.

Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren pisua % 44,2koa izan zen EAEn. Gipuzkoan, % 49,6 izan zen; Araban, % 43,4koa; eta Bizkaian, berriz, % 40,8koa.

El Impuesto sobre Bienes Inmuebles representó el 44,2%. En Gipuzkoa el 49,6%, en Álava el 43,4% y en Bizkaia el 40,8%.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergak zerga guztien % 18,9 bildu zuen EAEn; zehazki, % 15,5 Araban; % 19,4 Bizkaian eta % 19,8 Gipuzkoan.

El Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica supuso un peso específico para el conjunto del País Vasco del 18,9%, en Álava del 15,5%, situándose en Bizkaia en el 19,4% y en Gipuzkoa en el 19,8%.

Hiri-lurren Balio Igoeraren gaineko Zergaren partaidetza, tokiko zergetan guztira bildutako zenbateko osoarekin alderatuta, % 6,3koa izan izan zen, udalerri guztiei dagokienez. Ehuneko hori, Araban, % 7,5etik gorakoa izan zen, eta Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, % 6koa eta % 6,2koa, hurrenez hurren.

La participación del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana con relación a la recaudación total por tributos locales fue del 6,3% para el conjunto de los Municipios. Mientras en Álava se situó por encima con un 7,5%, en Bizkaia y Gipuzkoa fue de un 6 y un 6,2% respectivamente.

Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren pisua jaitsi egin zen pixka bat 2004ko ekitaldian, eta % 12an geratu zen. Bizkaiko udalerriek gorakada handia izan zuten; % 13,6ra igo ziren. Gipuzkoan,

En el ejercicio 2004 desciende ligeramente la importancia del Impuesto sobre Actividades Económicas situándose en un 12%. Destacaron al alza los Municipios de Bizkaia con un 13,6% y a la baja los de

berriz, nabarmenki egin zuten behera; % 9,1era. Arabako udalerrietakoen pisua % 12,8koa izan zen.

Gipuzkoa con un 9,1%, mientras que los de Álava se situaron en un 12,8%.

ZERGEN BILKETA EAE-KO UDALERRIETAN BANAKETA, ZERGAKA ETA LURRALDE HISTORIKOKA, 2004. URTEAN
RECAUDACIÓN DE TRIBUTOS DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI. REPARTO POR TRIBUTOS Y TERRITORIOS HISTÓRICOS EN 2004



GRAFIKOA / GRÁFICO V.5

3.a.2. Beste diru-sarrera batzuk

Tasa eta beste diru-sarrera batzuei buruz, 3. kapituluan, honako hauek dira kontzeptu garrantzitsuenak: ur-horniketa, zabor-bilketa eta hirigintza-lizentziak. Lurralde historikoei dagokienez, 3. kapituluak pisu hau izan zuen: Gipuzkoan, % 22,4koa; Araban, % 20,4koa; eta Bizkaian, % 19,4koa. Euskal Autonomia Erkidego osoan, guztira, % 20,5ekoa izan zen.

Transferentzia arruntei buruzkoa da 4. kapitulua, eta ehuneko hauek izan zituen: EAEn, % 43; Bizkaian gora egin zuen nabarmen, % 44,2ra iritsi baitzen; eta Araban eta Gipuzkoan, berriz, % 41,8 inguruan ibili zen. Ondarezko diru-sarrerei buruzkoa da 5. kapitulua, eta haren ehunekoa zenbateko osoaren % 1,7 izan zen. Araban nabarmenki igo zen, harik eta % 2,2ra iritsi arte; Bizkaiko ehunekoa bat etorri zen batez bestekoarekin, eta

3.a.2. Otros ingresos

Dentro del capítulo 3, tasas y otros ingresos, los conceptos más importantes son Suministros de Agua, Recogida de Basuras y Licencias Urbanísticas. En cuanto a los Territorios Históricos, señalar que la importancia relativa del capítulo 3 en Gipuzkoa se situó en un 22,4%, en Álava el 20,4% y en Bizkaia el 19,4% mientras que para el conjunto del País Vasco fue del 20,5% del total de ingresos.

